


**NATURA 2000 SAREAK ARABAKO
HEGOALDEKO MENDILERROETAN DITUEN
TOKIETAKO INFORMAZIO EKOLOGIKOARI,
KONTSERBAZIO HELBURUEI,
KONTSERBAZIO ARAUEI ETA SEGIMENDU
PROGRAMARI BURUZKO DOKUMENTUA**

**Toloño-Kantabria mendilerroa/Sierra Toloño-Cantabria
KBE (ES2110018)**

**Arabako hegoaldeko mendilerroak/Sierras meridionales
de Álava HBBE (ES0000246)**

2015eko apirila




Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
(Eusko Jaurlaritza)



Nahi izanez gero, J0D0Z-T0H6M-8B9N bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0H6M-8B9N en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>



AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	2
2.- INFORMAZIO OROKORRA	5
2.1.- KOKAPENA ETA MUGAK.....	5
2.2.- JABETZA ERREGIMENA.....	8
2.3.- BESTE BABES FIGURA BATZUK.....	11
2.4.- NATURA 2000 SAREKO BESTE LEKUEKIKO HARREMANA	14
3.- INFORMAZIO EKOLOGIKOA.....	17
3.1.- HABITAT NATURALAK ETA ERDINATURALAK.....	17
3.3.- FLORA	23
3.4.- FAUNA	27
3.5.- KONEKTIBILITATEA	41
3.5.1.- Korridore ekologikoen sarea.....	41
3.5.2.- Konektibitatearen afekzioak.....	43
4.- KBE/HBBEan FUNTSEZKOAK EDO KUDEATZEKOAK DIREN ELEMENTUAK	44
5.- FUNTSEZKO ELEMENTUEN KONTSERBAZIO-EGOERA. PRESIOAK ETA MEHATXUAK	58
1. KE.- Basoak	59
2. KE.- Larreak.....	77
3. KE.- Zohikaztegiak.....	84
4. KE.- Ingurune andeatuak.....	88
5. KE.- Ibaiak eta ingurune erriparioak.....	90
6. KE.- Harkaitzak eta antzeko inguruneak	95
7. KE.- Anfibioak eta narrastiak.....	112
8. KE.- Konektibitatea	118
6.- KONTSERBAZIO-ARAUAK.....	122
6.1.- ARAU OROKORRAK.....	122
6.1.1.- Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerari buruzko arau orokorrak..	123
6.1.2.- Ehizari eta arrantzari buruzko arau orokorrak.....	123
6.1.3.- Ura erabiltzeari buruzko arau orokorrak	123
6.1.4.- Hirigintza-araubideari, hirigintzako erabilerei eta eraikuntzari buruzko arau orokorrak.....	124
6.1.5.- Azpiegiturei, ekipamenduei eta erauzketa-jarduerei buruzko arau orokorrak.....	124
6.1.6.- Beste erabilera eta jarduera batzuei buruzko arau orokorrak.....	124
6.2.- FUNTSEZKO ELEMENTUETARAKO XEDEAK ETA ERREGULAZIOAK.....	125
1. KE.- Basoak	125
2. KE.- Larreak.....	127
3. KE.- Zohikaztegiak.....	128
4. KE.- Ingurune andeatuak.....	128
5. KE.- Ibaiak eta ingurune erriparioak.....	128
6. KE.- Harkaitzak eta antzeko inguruneak	130
7. KE.- Anfibioak eta narrastiak.....	132
8. KE.- Konektibitatea	132
6.3.- KUDEAKETA TRESNEI BURUZKO XEDEAK ETA ERREGULAZIOAK.....	133
9. KE.- Biodibertsitateari buruzko ezagutza eta informazioa	133
10. KE.- Herritarren hezkuntza, partaidetza eta kontzientziazioa eta haiekiko komunikazioa.....	134
11. KE.- Gobernantza.....	134
7.- SEGIMENDU PROGRAMA.....	136
1. ERANSKINA: KONTSERBATU BEHARREKO BASoko HABITAT ETA ESPEZIE GUZTIENTZAKO ARAUAK ETA KONTSERBAZIO NEURRIAK	141

1.- SARRERA

Arabako hegoaldeko mendilerroek osatzen duten espazioaren ezaugarri nagusia da eskualde biogeografiko atlantikoaren eta mediterraneoaren arteko muga dagoela. Lehentasunezko orientazioa ekialde-mendebaldekoa da; beraz, eraglin klimatiko ozeanikoari muga jartzen dionez, landaredia atlantikoa da iparraldean (pagadiak) eta mediterranea hegoaldean (erkameztiak eta artadiak). Garaiera ertaineko zenbait mendilerrok osatzen dute eremua:

Lokiz mendilerroa, edo Santiago de Lokiz mendilerroa, Arabako ekialdean dago, lurralde horren eta Nafarroaren artean. Mendi-eremu zabala da Entzia-Urbasa eremuaren paraleloan, baso-masa handiak ditu mazelatan eta sastrakadia zein larre zabalak daude goialdean; halaber, nabarmentzekoak dira amildegia eta gailur-lerroak. Era berean, Harana eta Kanpezu nekazaritza-haranak bereizten ditu.

Kodes mendilerroa, bestalde, Arabako hego-ekialdean dago, Nafarroarekiko muga. Alde horretan, ia-ia paraleloan jarraitzen die Lokiz eta Urbasa-Andia mendilerroei. Nabarmentzekoa da kontraste handiak daudela bertako alde basalean; malda txikiko mazelak dira nagusi, baina gunearen gainerakoan badira eremu malkartsuak eta aldapatsuak.

Toloño edo Kantabria mendilerroa mendebaldean dago. Erliebe malkartsua du hego-mazelan, eta iparraldeko isurikoa lauagoa da. EAEko muga biogeografiko garrantzitsuenetako bat da eta, bertan, pagadi, erkamezti eta garriga ugari dago; horiez gain, oihanpean ezpela dago, baita gailur-lerro, kareharrizko harkaitz eta amildegi garrantzitsuak ere. Arabako Mendialdea eta Arabako Errioxa eskualdeak bereizten ditu, eta eragin handia du paisaian, Ebroko sakonune zabala itxi egiten baitu.

Cabrera mendia gailur-lerro txiki bat da, mendebaldean aldapatsuagoa dena. Bertan, espezie errupikolentzat interesekoak diren harkaitzak daude, eta nekazaritza-eremu bat dago erdian. Bertan daude El Castillo ehiza-barruti industrialeko ehiza-lurrak. Mendia interes handikoa da Bonelli arrano-bikotearentzat, haren elikadura-eremu nagusia baita Arabako Lurralde Historikoan. Hori dela eta, egokitzen jo du Natura 2000 Sareko gunek mendi horretan ere zabaltzea.

Bestetik, Portilla mendilerroa ere zabaltze-lan horretan sartu da, eta gunearen jarraitutasunaren erakusle da ipar-mendebaldeko muturrerantz. Cabrera mendiaren iparraldean dago, eta baso-mailakoa da funtsean; dena den, badira zenbait harkaitz-azalerrak, eta interes handikoa da hegazti-faunarentzat, sai errearentzat (ugalkolonia bat du bertan) eta, nagusiki, Bonelli arrano-bikotearentzat.

Mendilerro multzoko habitaten dibertsitatea dela eta, intereseko flora- eta fauna-espezie ugari daude, eta floraren kasuan, endemismo asko daudela nabarmendu behar da, adibidez, *Asplenium seelosii* (subsp.: *glabrum*) edo *Genista eliassemenii*.

Gune hau oso interesgarria da ornodunentzat, bertako habitat askoren kontserbazio-egoera erlatiboki onargarria delako, harkaitz eta ingurune errupikola ugari daudelako eta orografia aldapatsua lurralde honen zati baten ezaugarri delako. Hegazti errupikolen populazioak gailentzen dira, baina bada basoko hegazti-fauna handi samarra, baso-masen azalera handia da eta. Orobat, kiropteroen komunitatea aipatu behar da, 24 espezie baitaude bertan.

Hala, Toloño edo Kantabria mendilerroa Batasunaren garrantzizko leku (BGL) bat da, bertako habitat naturalengatik eta espezieengatik. Gune hau BGL izateko proposamena Eusko Jaurlaritzak egin zuen 2000ko azaroan lehenbizikoz, eta berriro

2003ko ekainean. Hala, habitatetarako intereseko kokalekuen kopurua handitu zen, kontuan hartuta gune honetan dagoela Natura 2000 Europako Sare ekologikoko habitat mota horren ordezkari handienetakoa. Nahiz eta gunearen izendapen ofiziala "ES2110018 Toloño mendilerroa/Sierra Toloño" den, izena Toloño-Kantabria izango da, bertako herritarrek darabilten eta horrela ezagutzen duten toponimoa behar bezala jasotze aldera.

Faunari dagokionez, aztore-arranoa edo Bonelli arranoa (*Hieraaetus fasciatus*) nabarmendu behar da; galtzeko arriskuan dago EAEn, eta gainbehera nabarian Espainian. Beste alde batetik, ugatzak (*Gypaetus barbatus*) Arabako eremu horretan du presentzia erregularrenetako bat, berau ere galtzeko arriskuan baitago EAEn.

Bi espezieak Basa Hegaztiak Kontserbatzeari buruzko 2009/147/CE Zuzentarauko I. eranskinean jasota daude (aurrerantzean, Hegaztiei buruzko Zuzentaria). Hain zuzen, guneak aztore-arranoa eta ugatza berreskuratzeko duen gaitasuna oinarrizko irizpidea izan zen Eusko Jaurlaritzak hegaztiak babesteko eremu berezitzat (HBBE) jotzeko Gobernu Kontseiluak 2000ko azaroan hartutako erabakiaren bidez, eta «ES0000246 Arabako hegoaldeko mendilerroak/Sierras meridionales de Álava» gisa izendatu zuten.

Europako Batzordeak 2004/813/CE eta 2006/613/CE erabakien bitartez onetsi zituen bi proposamenak, eta haien bidez, orobat, eskualde biogeografiko atlantikoko eta mediterraneoko Batasunaren garrantzizko lekuen zerrendak onetsi ziren, hurrenez hurren.

Era berean, Lokiz, Kodes eta Portilla mendilerroetako zein Cabrera mendiko balioak aintzat hartuta, bertako intereseko habitatak eta espezieak kontserbatzeko, egokitzat eta koherentetzat jotzen da BGL hori aipatu mendilerroetarantz handitzea, gune osoa HBBE eta KBE izan dadin, Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berron KBE HBBEtik igarotzen den eremuetan izan ezik.

Dokumentu honek zuzentaria hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ditu: a) Habitategi buruzko 92/43/CEE Zuzentaria, 4. artikuluan Batasunaren garrantzizko lekuak (BGL) kontserbazio bereziko eremu (KBE) gisa izendatu behar direla ezartzen duena eta, horretarako, Zuzentaria I. eta II. eranskinetan jasotako eta toki horietan dauden habitat naturalen moten eta espezieen eskakizun ekologikoei erantzuten dieten kontserbazio-neurriak finkatzen dituen; eta b) Hegaztiei buruzko 79/409/CEE Zuzentaria, habitatak direla-eta I. eranskinean aipatutako espezieak kontserbazio-neurri berezien xede izango direla ezartzen duena, banaketa-eremuan bizirik dirautela eta ugaltzen direla ziurtatze aldera.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategia onartzen duen 1/2014 Legegintzako Dekretuko 18. artikuluan ezarritakoa betetzeko, gune babestuetako zenbait figura leku berean gainezartzen badira, haien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko dira, eremuaren kudeaketa-planean, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko. Horrenbestez, dokumentu honek Toloño-Kantabria KBERako eta Arabako hegoaldeko mendilerroak HBBERako eskakizunak biltzen ditu. Hori dela eta, aurrerantzean KBE/HBBE izendapena erabiliko dugu babestutako naturaguneaz aritzeko.

Dokumentuak gunearen egungo egoerari eta ezaugarri ekologikoei buruzko diagnostikoa jasotzen du, eta kudeaketan eragina izan dezaketen edo erabakigarri suerta daitezkeen baldintzak aztertzen ditu. Guneko balio naturalen azterlana abiapuntu, kudeaketarako funtsezkotzat hartzen diren elementuak hautatu dira, haietara bideratu behar direlako kontserbazio-neurriak, habitat naturalen eta espezieen kontserbazio-egoera onari eusteko edo berau lortzeko beharrezkoak direnak.

2.- INFORMAZIO OROKORRA


2.1.- KOKAPENA ETA MUGAK

Toloño-Kantabria mendilerroa KBE eta Arabako hegoaldeko mendilerroak HBBE Euskal Autonomia Erkidegoko hego-hegoaldeko eremuan daude, Nafarroa eta Errioxa autonomia-erkidegoekiko mugan, Arabako Mendialdea eta Arabako Errioxa eskualdeetan.

Bi guneak Jugalez eta Ega ibaiak isurtzen diren arroetan integratuta daude, eta ibaiok, hurrenez hurren, Jugalez-Ebro eta Ega unitate hidrografikoetakoak dira, biak ala biak Ebroko Mugapean.

Guneen mugak bat datoz HBBE eta BGL Lokiz, Kodes eta Portilla mendilerroetarantz eta Cabrera mendirantz handitzeko proposamenarekin. Dena den, xehetasun handiagoko eskala erabili da, eta ondoren doitu egin dira Europako Batzordeak hasieran onetsitako mugak, eskura dagoen kartografia eguneratzea eta kontserbatzekoak diren habitat zein espezieen kontserbazio-irizpideak direla eta. Bi guneek muga berberak dituzte, Toloño eta Kodes mendilerroetako ekialdeko sektorean izan ezik, ES2110020 Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berron KBEak HBBE zeharkatzen baitu bertan; beraz, ez dator bat ES2110018 KBEarekin.

Honatz doitzeko aplikatu diren irizpideak: doitze-lana hobetzea autonomia- eta probintzia-mugetan nahiz Natura 2000 Sareko beste gune batzuekiko mugetan, gainezartzea ekiditeko; berrikustea eta katastroaren azken bertsiora zein onura publikoko mendietara egokitzea; eta KBE/HBBEaren mugakide diren lursailak sartzea, kontserbatzekoak diren elementu garrantzitsuak dituztenak.



2.1. irudia.- KBE/HBBEaren eremuaren kokapena.

Mugak 1:5.000 eskalaren xehetasunera egokitzeko doitu ostean, honako hauek dira KBE/HBBE ezaugarritzen duten oinarritzko parametroak:


Kodea	ES0000246	ES2110018
Leku mota	A	B
Izena	Arabako hegoaldeko mendilerroak/ Sierras meridionales de Álava	Toloño-Kantabria mendilerroa/ Sierra Toloño-Cantabria
HBBE/BGL gisa sailkatu/proposatu zen data	2000/11	2000/11
Onetsi zen data	2000/11	2000/11
Zentroaren koordinatuak*	Longituedea -2,6672 Latituedea 42,6161	Longituedea -2,6672 Latituedea 42,6161
Azalera (ha)	18.529,11	18.515,02
Garaiera handiena (m)	1.453,8	1.453,80
Garaiera txikiena (m)	449,59	449,59
Batez besteko garaiera (m)	856,85	856,85
Administrazio-eskualdea	ES211-Araba	ES211-Araba
Eskualde biogeografikoa	Atlantikoa Mediterranea	Atlantikoa Mediterranea

2.1. taula.- Parametro nagusiak.

Azalera handieneko poligonoko (Toloño) zentrodeari dagozkion zentroaren koordinatuak.

Halaber, KBE/HBBE gunearen inguruan 100 metroko zerrendako babestutako gune periferikoa ezarri da.

Babestutako gune periferiko osoan, 13 udalerriren lurak daude, beheko irudian ikus daitekeen moduan:



2.2. irudia.- KBE/HBBE eremua osatzen duten udalerrriak.

Jarraian, KBE/HBBE babestutako naturgunearen banaketa azalduko da, berau osatzen duten udalerrietako bakoitzean.

Kd.	Udalerrria	Udallerriaren azal. (ha)	Udallerriaren azal. KBE/HBBEan (ha)	Udalerrria KBE/HBBEan (%)	KBE/HBBE udalerrrian (%)
01014	Berantevilla	3.596,35	307,96	8,6	1,7
01016	Bernedo	13.077,25	900,45	6,9	4,9
01017	Campezo/Kanpezu	8.554,95	3.349,78	39,2	18,1
01019	Kripan	1.249,55	373,74	29,9	2,0
01023	Elvillar/Bilar	1.742,62	16,62	1,0	0,1
01028	Labastida/Bastida	3.829,16	1.531,66	40,0	8,3
01030	Lagran	4.531,22	2.305,87	50,9	12,4
01031	Guardia	8.262,35	2.135,32	25,8	11,5
01034	Leza	843,20	88,71	10,5	0,5
01044	Peñacerrada/Urizarra	5.695,53	2.960,55	52,0	16,0
01052	Samaniego	1.069,83	329,29	30,8	1,8
01056	Valle de Arana/Harana	3.905,86	1.810,11	46,3	9,8
01062	Zanbrana	3.961,57	2.375,52	60,0	112,8
Guztira		60.319,45	18.485,57	30,6	99,8

2.2. taula.- KBE/HBBE osatzen duten udalerrien azalera-banaketa.

Guztira, 27 kontzeju daude zortzi udalerritan banatuta, babestutako naturgunean zati batean edo osorik sartuta daudenak:

Kd.	Udalerrria	Administrazio-batzarrak
01014	Berantevilla	Mijancas
		Santa Cruz del Fierro
		Santurde
		Tobera
01016	Bernedo	Angostina
		Bernedo
		Navarrete
		Villafria
01017	Campezo/Kanpezu	Orbiso
		Oteo
		Santa Cruz de Campezo/Santikurutze Kanpezu
01023	Elvillar/Bilar	-
01019	Kripan	-
01028	Labastida/Bastida	Salinillas de Buradón/Gatzaga Buradon
01030	Lagran	Lagran
		Pipaon
		Villaverde
01031	Guardia	-
01034	Leza	-
01044	Peñacerrada/Urizarra	Lotza
		Montoria
		Payueta/Pagoeta
		Peñacerrada/Urizarra
01052	Samaniego	-
01056	Valle de Arana/Harana	Alda
		Kontrasta
		San Vicente de Arana/Done Bikendi Harana
		Ullíbarri-Arana/ Uribarri Harana

01062	Zanbrana	Bergantzu
		Ozio
		Portilla

2.3. taula.- KBE/HBBE osatzen duten administrazio-batzarrak.


2.2.- JABETZA ERREGIMENA

Jabetza-erregimena aztertzeko, Arabako Foru Aldundiaren 2015eko katastro-informazioa erabili da. Beheko tauletan, azaleraren udal-banaketa eta KBE/HBBEko lursail publiko eta pribatuen banaketari buruzko informazioa islatu da.

Kd.	Udalerria	Udal-azal. KBE/HBBEan (ha)	Lursailen azal. osoa (ha)	Hiri- lursailak (ha)	Publikoen % *
01014	Berantevilla	307,96	304,28	0,00	95
01016	Bernedo	900,45	914,27	0,07	94
01017	Campezo/Kanpezu	3.349,78	3.310,10	0,14	96
01019	Kripan	373,74	383,68	0,02	74
01023	Elvillar/Bilar	16,62	15,05	-	50
01028	Bastida	1.531,66	1.518,17	-	93
01030	Lagran	2.305,87	2.266,69	0,01	82
01031	Guardia	2.135,32	1.985,83	7,66	91
01034	Leza	88,71	183,41	-	74
01044	Peñacerrada/Urizarra	2.960,55	3.004,63	0,00	92
01052	Samaniego	329,29	332,06	0,02	91
01056	Valle de Arana/Harana	1.810,11	1.804,40	0,01	98
01062	Zanbrana	2.375,52	2.317,85	0,06	86
Guztira		18.485,57	18.340,43	7,99	91

2.4. taula.- Jabetza KBE/HBBEan, udalerrika.

Lursail publiko gehienak onura publikoko mendiak (OPM) dira, eta titularrak arestian adierazitako toki-erakundeak, udalak eta administrazio-batzarrak dira. KBE/HBBEan, 55 OPMko lurak daude, eta 16.100,06 ha hartzen dituzte (babestutako naturgunearen % 86,89).



2.3. irudia.- Onura publikoko mendiak KBE/HBBEan.

Hurrengo taulan, OPMei eta KBE/HBBEan duten azalerari buruzko informazioa bildu da.

OPM zk.	Izena	OPM azalera (ha)	OPM azal. KBE/HBBEan (ha)	OPM KBE/HBBEan (%)
151	Juan Zamarro	420,18	419,88	99,93
152	Peñacaida	322,63	322,61	99,99
153	La Rassa	224,13	224,03	99,95
155-154	-	189,49	185,82	98,06
156	Los Cerros	169,32	0,00	0,00
157	Los Cerros	61,69	61,69	100,00
158	Dehesa Angostina	589,60	570,76	96,80
161	Dehesa Villafría	272,34	268,11	98,44
164	La Sierra	813,73	744,05	91,44
166	Montorte	32,89	32,89	100,00
167-168-169-170-171	-	295,88	0,02	0,01
176	Dehesa de Bergón	925,24	849,94	91,86
177	Dehesa Vieja	21,56	21,56	100,00
179	La Sierra	1.626,50	1.487,27	91,44
180	Nacedero Aguas	223,35	221,22	99,05
181	Monte de Laguardia	433,99	432,03	99,55
182	Sierra	180,84	180,84	100,00
183	La Sierra	425,17	413,66	97,29
184	Las Llanas	467,85	0,00	0,00
185	Argomal	429,70	427,99	99,60
188	Comunidades	188,68	187,69	99,47
191	Dehesa	51,47	51,47	100,00
192	Dehesa	140,69	127,32	90,50
195	Hayedillo	817,48	786,49	96,21
196	Herrera	180,72	180,72	100,00
197	Ligortabe	607,99	605,38	99,57
198	Mendilucia	253,97	0,00	0,00
199	Montes Altos	124,93	124,93	100,00
204	Recomendia	4,74	4,74	100,00
206	Arategui	338,25	285,71	84,47
207	Arezulo	146,61	146,61	100,00
207-208-209-211	-	30,32	30,32	100,00
210	El Matical	396,57	396,57	100,00
211	Mendecamo	115,36	115,36	100,00
212	La Sierra	608,97	608,43	99,91
220	Arbina	296,69	295,47	99,59
221-222-224-225	-	1.385,03	1.384,25	99,94
226	Monte de Samaniego	16,02	15,32	95,60
233	Carrascal	512,39	480,10	93,70
234-576	-	46,66	44,47	95,32
235	Cebollero	354,09	353,22	99,75
236	La Dehesa	471,85	469,11	99,42
243	Monte de Alda	35,36	0,00	0,00
244	Monte de Arriba	103,05	103,04	99,99
246	Salbalte	48,42	41,55	85,80
381	Igurza	585,48	572,79	97,83
382	Larradana	21,76	21,76	100,00

OPM zk.	Izena	OPM azalera (ha)	OPM azal. KBE/HBBEan (ha)	OPM KBE/HBBEan (%)
385	Monte de Abajo	281,24	281,24	100,00
572	Marquillano	481,87	468,74	97,27
573	Marquillano	39,10	39,10	100,00
574	Monte de Abajo	378,54	263,80	69,69
575	Carrascales	548,66	374,58	68,27
578	Monte de Abajo	76,22	67,52	88,58
640	La Dehesa	18.261,76	16.100,06	88,16
641	Castillo	420,18	419,88	99,93
Guztira		18.261,76	16.100,06	88,16

2.5. taula.- OPM eta azalera KBE/HBBEan.

2.3.- BESTE BABES FIGURA BATZUK

Toloño-Kantabria mendilerroa/Arabako hegoaldeko mendilerroak KBE/HBBE babestutako naturgunea interes bereziko eremua da Kudeaketa Plana indarrean duten beheko espezieentzat; hori dela eta, aipatu kudeaketa-planen xedapenak aplikatu behar dira eremu horietan:

- 612/2001 Foru Agindua, irailaren 28koa, "Bonelli arranoa" (*Hieraetus fasciatus*) izeneko hegaztia Araban Kudeatzeko Plana onartzen duena. Hona hemen eremuak: Buradon, Toloño mendilerroko mendebaldeko muturrean; Cerro Moraza, Pagoeta eta Bergantzu artean; Angostina, Toloño mendilerroko mendebaldeko muturrean; La Dormida, Kodes mendilerroan; eta Aistora, Lokiz mendilerroan.
- 180/2003 Foru Agindua, apirilaren 1ekoa. Horren bidez, Arabako Lurralde Historikoan *Mustela lutreola* bisoi europarra (Linnaeus, 1761) Kudeatzeko Plana onesten da.
- 880/2004 Foru Agindua, urriaren 27koa. Horren bidez, *Lutra lutra* igarabaren (Linnaeus, 1758) Kudeaketa Plana onartzen da, Arabako Lurralde Historikoan. Interes bereziko eremua bat dator Jugalez ibaiarekin, Peñacerrada-Urizaharra herriaren eta Ebroren bokalearen arteko tartean.

Beste alde batetik, Toloño-Kantabria, Lokiz eta Kodes mendilerroak interes bereziko eremu dira Batasunaren intereseko hegazti nekrofago hauentzat: ugatza, sai zuria eta sai arrea. Toki horiek ezagutzen dira hazkuntza-eremu historikoak izan direlako, edota espezie horiek bertan bizitzeko gaitasun handi samarra dutelako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planaren arabera (uztailaren 27ko 160/2004 Dekretua, urriaren 30eko 231/2012 Dekretuak aldatutakoa), hezegune hauek daude KBE/HBBEan:

Kd.	Izena gaztelaniaz	Izena euskaraz	Taldea	Azal. (m ²)	Perim. (m)
B1A19_01	Trampales de la sierra de Toloño	Toloñoeko mendizerrako zingirak	III	2.648,34	229,51
B1A19_02	Trampales de la sierra de Toloño	Toloñoeko mendizerrako zingirak	III	2.412,58	334,89
B1A23_01	Trampales de Peñacerrada	Peñacerradako zingirak	III	7.434,78	988,81
B1A23_02	Trampales de Peñacerrada	Peñacerradako zingirak	III	273,97	67,92
B1A24	Trampales de Herrera	Herrerako zingirak	III	5.703,93	504,60
B1A25	Trampales de Peña Huecazo	Peña Huecazo zingirak	III	933,94	249,11
B6A5_01	Charcas de La Isla	La Islako putzuak	III	3.999,49	423,46
B7A5	Charca de la Campa de Loza	Loza Campako putzua	III	209,67	58,86
DA4	Charca de La Mina	Minako putzua	III	218,09	63,02
FA102	Balsas de Pipaón	Pipaoneko urmaela	III	1.402,32	158,64
FA106	Charca de San Bartolomé	San Bartolomeko putzua	III	9.193,40	368,87
FA112	Balsa de riego de Orbiso	Orbisoko ureztaketarako urmaela	III	1.734,92	168,00
FA119	Balsa de riego de Lagrán	Lagraneko ureztaketarako urmaela	III	50.883,75	938,10
FA131	Balsa de riego de Villaverde	Villaverdeko ureztaketarako urmaela	III	1.985,63	163,99
FA132	Balsa de riego de Lagrán	Lagraneko ureztaketarako urmaela	III	2.159,52	166,93
FA135_02	Balsa de riego de Ocio	Ocioko ureztaketarako urmaela	III	8.627,84	371,77
FA142_02	Balsas de riego de Santa Cruz de Campezo	Santa Cruz Kanpezuko ureztaketarako urmaela	III	975,47	119,02
GA53_01	Charcas de la Sierra de Codes	Sierra de Codeseko putzuak	III	76,12	32,35
GA53_02	Charcas de la Sierra de Codes	Sierra de Codeseko putzuak	III	85,30	33,73
GA53_03	Charcas de la Sierra de Codes	Sierra de Codeseko putzuak	III	30,82	21,66
GA54	Charca de Santa Lucía	Santa Luciako putzua	III	341,43	69,53
GA56	Charca de La Calzada	Calzadako putzua	III	139,26	49,73
GA67	Charca de Iturburua Gaina	Iturburua Gainako putzua	III	55,83	37,72

2.6. taula.- EAEko Hezeguneen Inbentarioan jasotako hezeguneak KBE/HBBEan.

Uraren Esparru Zuzentarauak (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/CE Zuzentaraua, ur-politikaren alorrean jarduteko Batasun-mailako esparrua finkatzen duena) 6. artikuluan Ereku Babestuen Erregistroa dela eta ezarritakoa oinarri hartuta, Uraren Euskal Agentziak (URA) honako hauek aipatzen ditu KBE/HBBEari dagokionez:

Kodea	Ereku babestua	Mota
ES0000246	Arabako hegoaldeko mendilerroak HBBE	Habitaten eta espezieen babes-eremuak
ES2110018	Toloño mendilerroa BGL	Habitaten eta espezieen babes-eremuak
ES2110020	Ega-Berron ibaia KBE	Habitaten eta espezieen babes-eremuak
P9100011	Itxakoko iturburua	Ur mineralen eta termalen babes-perimetroa
5933.336	Aistora ibaia	Natura- eta ingurumen-intereseko ibai-tarteak
1912.906	Ega ibaia	Natura- eta ingurumen-intereseko ibai-tarteak
17	Bergantzuko zentralako eroanbidea	Hiri-hornidurako hartuneak
2208-5-0010	Portillako iturburua	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-1-0003	El Silo	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-1-0004	El Tamboril	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-1-0033	Fuente Toro	Hiri-hornidurako hartuneak

Kodea	Eremu babestua	Mota
2209-1-0034	Fuentenueva	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-1-0036	Los Nogales	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-1-0085	Torrolate	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-2-0034	Turnina	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-2-0070	Rumias edo Montoria	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-3-0003	San Miguel	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-3-0031	Leza-2 zundaketa	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-3-0034	Santa Masa	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-4-0006	Lagraneko sorburua	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-4-0007	Fuente de San Juango iturria	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-4-0008	La Yeca	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-4-0040	San Bartolomé	Hiri-hornidurako hartuneak
2209-7-0006	Cristo iturria	Hiri-hornidurako hartuneak
2308-7-0024	Berrabia iturria	Hiri-hornidurako hartuneak
2309-1-0028	Salud iturria	Hiri-hornidurako hartuneak
2309-1-0030	Suso iturria	Hiri-hornidurako hartuneak
2309-1-0036	Angostina iturria	Hiri-hornidurako hartuneak
2309-1-0038	Hayedilloko iturburua	Hiri-hornidurako hartuneak
2309-1-0067	Nacedero iturburua	Hiri-hornidurako hartuneak
2309-3-0001	Antocina	Hiri-hornidurako hartuneak

2.7. taula.- EAEko Eremu Babestuen Erregistroan jasota dauden KBE/HBBEko enklabeak (URA-Uraren Euskal Agentzia).

2014an, EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala onetsi zen (irailaren 16ko 177/2014 Dekretua); nekazaritza eta basozaintzako erabilerak kudeatzea du xede, bai eta balio agrologiko handiko lurra babestea ere. Dokumentu horrek nekazaritza eta basozaintzako lurrak kudeatzeko gidalerroak zehazten ditu.

Ibai-ibilguekin lotutako erabilerak eta aprobeixamenduak EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurraldearen Arloko Planean araututa daude (azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuaren bidez onetsi zen).

Bestetik, Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana (abenduaren 28ko 277/2004 Dekretua) eta Guardiako (Arabako Errioxa) Lurraldearen Zatiko Plana (abenduaren 28ko 271/2004 Dekretua) ere onetsi dira. Bi plan horietan, hurrenez hurren, KBE/HBBE guneko ipar- eta hego-sektoreetan dauden udalerrien lurraldea kudeatzeko gidalerroak jaso dira.

Titulartasun publikoko mendien harira, aipatu behar da Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak arautzen dituela.

Arabako Lurralde Historikoko paisaia bikainen katalogoari dagokionez, 8 paisaia bikain daude hizpide dugun babestutako naturgunean: Harana-Oteo-Markillano, Hornillo-Orbis, Joar, Mendiluzea-Jaunden-Luzaran, Ozio-Bergantzu, Kantabria mendilerroa, Kantabria mendilerroko hego-oina, Toloño mendilerroa.

EAEko paisaia berezien eta bikainen katalogoan, bestalde, Arabako hegoaldeko mendilerroak (Lokiz mendilerroa), Arabako hegoaldeko mendilerroak (Kodes mendilerroa), Kantabria mendilerroa, Jaunden mendia eta Portilla mendilerroa jasota daude.


Orobat, SEO/BirdLifek KBE/HBBEko mendebaldeko muturreko sektorea sartu du Obarenes mendiak-Toloño mendilerroa IBA 031n.

2.4.- NATURA 2000 SAREKO BESTE LEKUEKIKO HARREMANA

Jarraian, Toloño-Kantabria mendilerroa/Arabako hegoaldeko mendilerroak KBE/HBBE babestutako naturguneak inguruko Natura 2000 guneekin duen harremana deskribatuko da:

- ES2110022 Entzia: KBE/HBBEaren ipar-mendebaldean dago, zehazki, Lokiz mendilerroaren ipar-mendebaldean. Gune hau Arabako erdialdeko mendilerroen korridore ekologikoaren barruan dago, jarraitutasuna ematen dio Gasteizko Goi Mendietatik Urbasa eta Andia mendilerroa (Nafarroa) doan mendikateari, eta Hornillo mendiaren nahiz Haranaren bidez lotzen da KBE/HBBEarekin.
- ES2200022 Lokiz mendilerroa: Nafarroako Foru Erkidegoan dago, KBE/HBBEaren ekialdean, eta Arabako Lokiz mendilerroaren jarraipen geografikoa da. Gune biek korridore ekologikoa osatzen dute, eta korridoreak Entzia-Urbasa-Andia mendilerroak (iparraldean) eta Toloño-Kodes mendilerroak (hegoaldean) lotzen ditu.
- ES2200029 Kodes mendilerroa: Nafarroako Foru Erkidegoan dago, KBE/HBBEaren hegoaldean (Kodesetik, zehazki); beraz, nola Nafarroako hala Arabako mendimultzoa osatzen du. BGL hau korridore ekologikoa da Arabako erdialdeko eta hegoaldeko mendilerroetako mendi-sistemen artean, eta Nafarroako beste mendi-sistema batzuekiko lotura da.
- ES0000062 Obarenes-Kantabria mendilerroa HBBE: Errioxan dago, KBE/HBBEaren hegoaldean. Nabarmentzekoa da gune hau oso garrantzitsua dela konektibitate-prozesuei dagokienez, Toloño mendilerro osoa babesten duelako, bai Arabako bai Errioxako isurialdeetan; hala, Arabako hegoaldeko gainerako mendilerroekiko lotura da, baita Burgos (Gaztela eta Leon) eta Nafarroakoekikoa ere.
- ES0000187 Miranda Ebroko eta Ameyugoko mendiak HBBE: KBE/HBBEaren mendebaldean dago, eta Obarenes-Kantabria HBBEaren (Errioxa) iparraldean. Korridore ekologikoa da Burgosko Gobera eta Nafarroako Kodes mendilerroen artean, eta gune hau bertako erdiko sektorea da.
- ES211019 Izki: Lokiz mendilerroaren mendebaldean, Kodesko mendilerroaren ipar-mendebaldean eta Toloño mendilerroaren iparraldean dago, eta horiek nahiz Gasteizko mendiek eta Entzia mendilerroak osatutako Arabako erdiko sistemako korridore ekologikoa lotzen ditu.
- ES2110020 Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berron KBE: KBE honetan, Berron ibaiaren (Izki HBBE zein BGL eta Entzia BGL artean dago) eta Ega ibaiaren (iturburua Toloño mendilerroan dago) zati bana dago. Gune hau Toloño mendilerroko eki-ekialdeko sektorearen iparraldetik doa, baita Kodes mendilerroko iparraldetik ere; Angostina eta Dormida amildegietatik sartzen da Arabako hegoaldeko mendilerroak/Sierras meridionales de Álava HBBEan. Natura 2000 Sareko gune hau interes bereziko tartea da, eta KBE/HBBE eta inguruko guneak lotzen ditu, batik bat Izki, Entzia eta Kodes mendilerroa.
- ES4120052 Ihudako erriberak: KBE/HBBEaren iparraldean dago, Burgoseko probintzian (Gaztela eta Leon). Gune honek, baita hurrengoak ere, mugakide diren Natura 2000 Sareko beste gune batzuk lotzen ditu, adibidez, Izki.

- ES2110012 Ihuda ibaia-Río Ayuda KBE: KBE/HBBEaren ipar-mendebaldean dago; Ihuda ibaia oso ibai-korridore garrantzitsua da, eta mugakide diren Natura Sareko beste gune batzuk lotzen ditu.
- ES2110008 Ebro ibaia-Río Ebro: KBE/HBBEaren mendebaldean dago, eta Iberiar penintsulako ibai-korridore garrantzitsuenetako bat da. Halaber, kasu honetan, babestutako naturgune hau lotzen du Obarenes-Kantabria mendilerroa HBBEarekin eta Miranda Ebro-Ameyugo HBBEarekin.
- ES2300006 Ebroko basoak eta erriberak KBE: Errioxako erribera da, Ebro ibaiaren eskuineko ertzean, eta osatu egiten ditu ibai-korridorearen bi aldeak.
- ES2110021 Guardiako aintzirak/Lagunas de Laguardia: Toloño mendilerrotik hegoaldera daude, eta geologia- zein ingurumen-garrantzi handiko aintzira-multzoa dira.



2.4. irudia. KBE/HBBEaren mugakide diren Natura 2000 Sareko guneak.

Kodea	Izena	Azalera (ha)	Eskualde biogeografikoa	Autonomia-erkidegoa
ES2110022	Entzia	9.931	Atlantikoa	EAE
ES2200022	Sierra de Lokiz	12.600	Atlantikoa Mediterraneo	Nafarroako FE
ES2200029	Sierra de Codés	4.571	Mediterraneo	Nafarroako FE
ES0000062	Obarenes-Sierra Cantabria	5.160	Mediterraneo	Errioxa
ES0000187	Montes de Miranda de Ebro y Ameyugo	6.661,81	Mediterraneo	Gaztela eta Leon
ES2110019	Izki	9.005,12	Atlantikoa Mediterraneo	EAE
ES2110020	Ega-Berron ibaia/ Río Ega-Berron	226	Atlantikoa	EAE
ES4120052	Riberas del Ayuda	425	Atlantikoa Mediterraneo	Gaztela eta Leon
ES2110012	Ihuda ibaia/Río Ayuda	66	Atlantikoa Mediterraneo	EAE
ES2110008	Ebro ibaia/Río Ebro	543	Mediterraneo	EAE
ES2300006	Sotos y Riberas del Ebro	1.687	Mediterraneo	Errioxa
ES2110021	Guardiako Aintzirak- Lagunas de Laguardia	45	Mediterraneo	EAE

2.8. taula. KBE/HBBEaren mugakide diren Natura 2000 Sareko gunek.

3.- INFORMAZIO EKOLOGIKOA

Atal honetan, KBE/HBBEan dauden Batasunaren eta eskualdearen intereseko flora eta fauna basatiko habitatei eta espezieei buruzko informazioa ageri da. Kontserbazio-xedeen inguruko ezagutza osatu ahala, informazio hori ere zabalduz eta eguneratuz joango da Euskadiko naturaren informazio-sisteman www.euskadi.eus/natura.

3.1.- HABITAT NATURALAK ETA ERDINATURALAK

Jarraian, Toloño-Kantabria mendilerroa/Arabako hegoaldeko mendilerroa KBE/HBBEan dauden habitaten estaldura deskribatuko da: Zuzentarauko habitatak aipatuko dira (BIH), eta gainerakoei EUNIS baliokidea eman zaie kodetzat, hots, Europako Ingurumen Agentziak harmonizatutako eta garatutako sailkapen-sistema.

Habitaten kartografia, hala BIH nola EUNIS, eskuragarri dagoen EUNIS base kartografikoa abiapuntutzat hartuta prestatu da, eta doiketa zein eguneraketa txikiak egin dira habitaten interpretazioan. Doiketa eta eguneraketa horien bidez, gunetako habitaten inguruko informazioa eta interpretazioa hobetu ahal izan dira; Datuen Inprimaki Normalizatueta aipatzen ez ziren beste batzuk identifikatu dira, eta bertan jasota zeuden baina interpretazioa okerra zen beste batzuk baztertu.

Beheko taulan, honako alor hauetako informazioa bildu da:

- ✓ Habitategi buruzko Zuzentarauko kodea: BIHei dagokien kodea.
- ✓ EUNIS kodea: habitaten sailkapen honi dagokion kodea.
- ✓ Izena: Batasunaren intereseko habitataren izena (Habitategi buruzko Zuzentarauko I. eranskinean jaso ez diren habitaten kasuan, EUNIS nomenklatura erabili da).
- ✓ Eskualdearen intereseko habitatak (EIH): eskualde-mailan garrantzitsuak diren EAEko habitatak.
- ✓ Habitataren azal. KBE/HBBEan: EIH/EUNIS kode jakin bati dagokion habitata habitat nagusi gisa agertzen den poligonoen azalera osoa (ha).
- ✓ Eremuaren % KBE/HBBEan: EIH/EUNIS kode jakin bati dagokion habitatak hartutako azaleraren ehuneko osoa.
- ✓ Eremuaren % EAEko N2000Sn: EIH/EUNIS kode jakin bati dagokion habitatak KBE/HBBEan hartutako azaleraren ehuneko osoa, EAEko Natura 2000 Sareak hartzen duen azalera osoarekin alderatuta.
- ✓ Eremuaren % EAE osoan: EIH/EUNIS kode jakin bati dagokion habitatak KBE/HBBEan hartutako azaleraren ehuneko osoa, EAEn hartutako azalera osoarekin alderatuta.
- ✓ Ordezkararritasuna: Batasunaren intereseko habitat motaren ordezkararritasun-maila adierazten du, Natura 2000ko gune jakin bati buruzko informazio-inprimakiak direla-eta Batzordeak 2011ko uztailaren 11n hartutako Erabakiaren arabera.
- ✓ Lekuaren balorazio globala (SDF): leku jakin baten balorazio globala da, hizpide den habitat motaren kontserbazioarekin ikuspuntutik. Kasu honetan, lekuaren balorazio globala egiteko, habitataren azalera erlatiboa hartzen da aintzat, EAE osoaren eta Natura 2000 Sarearen aldean.
- ✓ Kontserbazio-egoera KBE/HBBEan: habitataren kontserbazio-egoera gunean, Habitategi buruzko Zuzentaruaren 17. artikuluko irizpideei jarraiki.
- ✓ Kontserbazio-egoera EAEn: habitataren kontserbazio-egoera gunean, Habitategi buruzko Zuzentaruaren 17. artikuluko irizpideei jarraiki.

HaZ/ EUNIS kodea	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBEan (ha)	Eremuaren % KBE/HBBEan	Eremuaren % EAEko N2000Sn	Eremuaren % EAE osoan	Ordez k.	Balor. globala	Kontserba zio- egoera KBE/HBBE an	Kontserb azio- egoera EAEn
3170*	Denboraldiko urmael mediterraneoak	-	2,6172	0,01412	5,0024	5,8747	E	E	D	O
4030	Europako txilardi lehorrak	-	192,8986	1,04106	1,0134	2,9663	A	C	D	O
4060	Txilardi alpetar borealak	-	9,3818	0,05060	1,1773	1,1828	B	B	D	O
4090	Txilardi oromediterraneo endemikoak elorri-triskarekin	-	639,8531	3,45323	3,4483	8,0290	B	B	O	O
5110	Malda arroksuetako <i>Buxus sempervirens</i> en formazio egonkor xerotermofiloak	-	1.202,7712	6,49125	72,8648	91,2467	C	C	O	D
5210	<i>Juniperus</i> spp.-ren sastrakadi zuhaizkara	-	4,1735	0,02252	7,0206	13,0714	B	B	D	O
6170	Karekizko larre alpetar eta subalpetarrak	-	3,1896	0,01721	0,0594	0,0816	A	C	O	O
6210	Larre lehor erdinaturalak eta sasi-faziesak karekizko substratuetan (<i>Festuco-Brometalia</i>)	-	94,9718	0,51260	7,1975	31,9664	C	B	D	D
6210(*)	Soropil lehor erdinaturalak eta sasi txikiko faziesak karekizko lurretan (<i>Festuco-Brometalia</i>)	-	517,5417	2,79313	-	-	B	C	D	D
6220(*)	Gramineo-larre subestepikoak eta <i>Thero-Brachypodietea</i> ren urteko larreak, <i>Brachypodium retusum</i> en larreekin nahasita	-	630,0221	3,40018	10,4940	132,9292	B	B	O	D
6230*	Belar-formazioak <i>Nardusekin</i> , espezie ugariarekin, mendialdeko (eta Europa kontinentaleko eremu azpi-menditsuetako) silize-substratuetan	-	124,8183	0,67363	1,5573	2,0342	C	C	D	O
6420	Molinion-Holoschoenionen belar altuen larre heze mediterraneoak	-	13,9598	0,07534	44,3582	78,2165	B	B	O	D
7210*	<i>Cladium mariscus</i> en karekizko zohikaztegiak, eta <i>Caricion davalliana</i> ren espezieekin.	-	4,9082	0,02649	274,0155	276,2736	B	B	O	D
7220*	Iturburu petrifikanteak tuf-formazioarekin (<i>Cratoneurion</i>)	-	0,0232	0,00013	3,0476	3,6287	A	A	E	D
7230	Zohikaztegi txiki alkalinoak	-	1,5403	0,00831	1,4556	1,6631	A	C	D	D
8130	Askatze mediterraneoak, mendebaldekoak eta termofiloak	-	19,5463	0,10549	8,5330	9,2846	D	D	O	O
8210	Landaredi kasmofitikoa duten malda arroksu kaltzikolak	-	324,9234	1,75360	8,9847	10,6945	C	B	O	O
8310	Turismoak ustiatu gabeko leizeak	-	-	-	-	-	C	E	O	D
9120	Pagadi azidofilo atlantikoak, <i>Ilex</i> en eta, batzuetan, <i>Taxus</i> en (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion</i>) oihanpearekin	-	294,1133	15,48254	1,2402	2,0408	B	C	D	T

HaZ/ EUNIS kodea	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBEan (ha)	Eremuaren % KBE/HBBEan	Eremuaren % EAEko N2000Sn	Eremuaren % EAE osoan	Ordez k.	Balor. globala	Kontserba zio- egoera KBE/HBBE an	Kontserba azio- egoera EAEn
9150	<i>Cephalanthero-Fagionen</i> Europa erdialdeko pagadi kaltzikola	-	2.868,7753	15,48254	113,0297	138,8791	B	C	D	T
9160	<i>Carpinion betuliren</i> harizti kandudun edo zuri subatlantikoak eta Europa erdialdekoak	-	4,5365	0,02448	0,4512	0,7850	B	B	D	T
9180*	Maldetako basoak, askatzeak edo <i>Tilio-Acerionen</i> trokak	-	88,8979	0,47977	14,2117	20,8715	A	B	D	T
91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsioren</i> (<i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>) baso alubialak	-	7,2973	0,03938	0,1640	0,6079	B	C	D	T
9230	Harizti galaikoportugesak <i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaicarekin</i>	-	10,8035	0,05831	0,1173	0,3008	A	A	D	T
9240	<i>Quercus faginea</i> eta <i>Quercus canariensis</i> en harizti iberiarrek	-	2.854,0912	15,40329	12,7228	39,8463	B	C	D	T
9260	<i>Castanea sativaren</i> basoak	-	0,0212	0,00011	0,0048	0,0242	-	C	D	E
92A0	<i>Salix alba</i> eta <i>Populus albaren</i> galeria-basoak	-	1,8262	0,00986	0,3202	0,4348	E	E	D	T
9340	<i>Quercus ilex</i> eta <i>Quercus rotundifoliaren</i> artadiak	-	3.370,9348	18,19265	14,0147	33,8850	C	C	D	T
9580*	<i>Taxus baccata</i> ren baso mediterraneoak	-	1,1880	0,00641	1,7509	1,7621	B	C	D	T
F3.15(X)	<i>Ulex europaeus</i> en otadi subatlantikoa	EI	23,6234	0,12749	-	-	B	C	D	-
F5.21(X)	Maki altu mediterraneoak <i>Erica arborea</i> eta <i>Arbutus unedorekin</i>	EI	70,2356	0,37906	-	-	C	C	D	-
F5.22	Maki baxu mediterraneoak <i>Erica scopariarekin</i>	EI	187,9040	1,01410	-	-	C	C	D	-
F6.11(Y)	Abarizti submediterraneoak	EI	288,4994	1,55701	-	-	C	C	D	-
F6.12	Erromerodia	EI	465,8391	2,51409	-	-	B	C	D	-
G1.64	Pagadi basofiloa edo neutroa	EI	1.390,2918	7,50329	-	-	B	C	D	-
G1.91	Urkidia	EI	33,6300	0,18150	-	-	C	C	D	-
G4.(V)	<i>Quercus faginea</i> eta <i>Quercus rotundifoliaren</i> baso mistoa	EI	117,5177	0,63423	-	-	C	C	D	-
C2	Ibai eta erreketan dabilen ur gezako orriak	-	0,0075	0,00004	-	-	-	-	-	-
C3.21	<i>Phragmites</i> en lezkadiak	-	0,3642	0,00197	-	-	-	-	-	-
C3.26	<i>Phalaris arundinacearen</i> formazio dentsoak	-	0,0933	0,00050	-	-	-	-	-	-
D5.11	<i>Phragmites</i> en lezkadiak, ikusteko moduko ur askerik gabe	-	0,1035	0,00056	-	-	-	-	-	-
D5.3	<i>Juncus effusus</i> nagusi den ihidiak eta beste ihi handi batzuk	-	0,1918	0,00104	-	-	-	-	-	-
E2.11	Bazkatutako larreak eta manipulatu gabeko larreak	-	17,0798	0,09218	-	-	-	-	-	-

HaZ/ EUNIS kodea	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBEan (ha)	Eremuaren % KBE/HBBE an	Eremuar en % EAEko N2000Sn	Eremuar en % EAE osoan	Ordez k.	Balor. globala	Kontserba zio- egoera KBE/HBBE an	Kontserb azio- egoera EAEn
E2.11(X)	Hasieran ereindako larreak eta bazka-laboreak	-	33,1301	0,17880	-	-	-	-	-	-
E2.13(X)	Albizti edo bestelako larre mesofilo bihurtzeko joera duten lugorriak	-	2,2563	0,01218	-	-	-	-	-	-
E2.13(Y)	Larre abandonatuak espezie erruderaekin	-	0,3853	0,00208	-	-	-	-	-	-
E2.6	Hobetutako soropilak eta kirol-zelaiak	-	0,6820	0,00368	-	-	-	-	-	-
E3.41	Larre-ihidi basofilo atlantikoak	-	0,1806	0,00097	-	-	-	-	-	-
E5.31(X)	Iratzedi atlantikoak eta subatlantikoak, muinoetan	-	5,5408	0,02990	-	-	-	-	-	-
E5.31(Y)	Iratzedi atlantikoak eta subatlantikoak, mendietan	-	16,9008	0,09121	-	-	-	-	-	-
E5.6		-	0,0035	0,00002	-	-	-	-	-	-
F3.11(X)	Elordi atlantiko kaltzikolak	-	7,6737	0,04141	-	-	-	-	-	-
F3.11(Y)	Lahardi kaltzikola (<i>Rubus ulmifolius</i>)	-	1,7994	0,00971	-	-	-	-	-	-
F3.13	Lahardi (<i>Rubus gr. glandulosus</i>) azidofilo atlantikoa, elorriekin	-	0,0002	0,00000	-	-	-	-	-	-
F3.15(Y)	<i>Ulex europaeus</i> en otadi atlantikoa	-	0,4395	0,00237	-	-	-	-	-	-
F3.17	Hurritzia	-	2,5123	0,01356	-	-	-	-	-	-
F3.22	Elordi ez atlantikoa	-	53,2530	0,28740	-	-	-	-	-	-
F5.21(Y)	Gurbizti edo maki altu termoatlantikoa	-	7,1368	0,03852	-	-	-	-	-	-
F6.11(X)	Errioxako abariztia	-	4,5593	0,02461	-	-	-	-	-	-
F9.12(X)	Erriberako sahasia harritsuak ez diren lurretan	-	1,6058	0,00867	-	-	-	-	-	-
F9.12(Y)	Erriberako sahasia lur harritsuetan	-	1,3145	0,00709	-	-	-	-	-	-
FA.1	Espezie aloktonoen hesia	-	0,0149	0,00008	-	-	-	-	-	-
FA.3	Bertako espezieen hesiak	-	0,5984	0,00323	-	-	-	-	-	-
FB.4	Mahastiak	-	46,2490	0,24960	-	-	-	-	-	-
G1.33	Erriberako lizardi mediterraneoak	-	19,0552	0,10284	-	-	-	-	-	-
G1.86	<i>Quercus</i> nagusi den baso azidofiloa	-	40,0602	0,21620	-	-	-	-	-	-
G1.92	<i>Populus tremular</i> en basoa	-	2,7647	0,01492	-	-	-	-	-	-
G1.A1	Harizti-lizardi mesotrofoa	-	0,1539	0,00083	-	-	-	-	-	-
G1.C1	Makalen landaketak	-	3,6760	0,01984	-	-	-	-	-	-
G1.D(X)	Beste fruta-arbola batzuen landaketak	-	19,3526	0,10444	-	-	-	-	-	-

HaZ/ EUNIS kodea	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBEan (ha)	Eremuaren % KBE/HBBE an	Eremuar en % EAEko N2000Sn	Eremuar en % EAE osoan	Ordez k.	Balor. globala	Kontserba zio- egoera KBE/HBBE an	Kontserb azio- egoera EAEn
G1.D3	Arbendolondoen landaketak	-	0,6423	0,00347	-	-	-		-	-
G2.83(X)	<i>Quercus ilex</i> en landaketak	-	42,6781	0,23033	-	-	-		-	-
G2.91	<i>Olea europae</i> aren landaketak	-	2,3294	0,01257	-	-	-		-	-
G3.F(L)	<i>Pinus sylvestris</i> en landaketak	-	228,7464	1,23453	-	-	-		-	-
G3.F(M)	<i>Pinus pinaster</i> en landaketak	-	166,9320	0,90092	-	-	-		-	-
G3.F(N)	<i>Pinus halepensis</i> en landaketak	-	42,1749	0,22761	-	-	-		-	-
G3.F(P)	<i>Pinus radiata</i> ren landaketak	-	22,0172	0,11882	-	-	-		-	-
G3.F(Q)	<i>Pinus nigra</i> ren landaketak	-	175,1602	0,94532	-	-	-		-	-
G3.F(R)	Beste pinu mota batzuen landaketak	-	0,1676	0,00090	-	-	-		-	-
G3.F(T)	<i>Chamaecyparis lawsoniana</i> ren landaketak	-	0,6553	0,00354	-	-	-		-	-
G3.F(U)	<i>Pseudotsuga</i> ren landaketak	-	23,8162	0,12853	-	-	-		-	-
G3.F(V)	<i>Picea</i> sp.-ren landaketak	-	7,5253	0,04061	-	-	-		-	-
G3.F(Z)	Koniferoen landaketa mistoak	-	275,0587	1,48447	-	-	-		-	-
G4.C	<i>Pinus sylvestris</i> en nahasteak erkametzekin	-	2,0992	0,01133	-	-	-		-	-
G4.F	Baso-landaketa mistoak, hostozabalenak eta koniferoenak: zenbait espezie	-	5,0841	0,02744	-	-	-		-	-
G5.61	Zuhaitz hostotsuen baso natural gazteak	-	67,0708	0,36198	-	-	-		-	-
G5.62	Koniferoen eta hostozabalen baso natural gazte mistoak	-	27,8001	0,15003	-	-	-		-	-
G5.72	Hostozabal erorkorren landaketa gazteak	-	29,7342	0,16047	-	-	-		-	-
G5.73	Hostozabal iraunkorren landaketa gazteak	-	8,3754	0,04520	-	-	-		-	-
G5.74	Koniferoen landaketa gazteak	-	204,1625	1,10185	-	-	-		-	-
G5.75	Koniferoen eta hostozabalen landaketa gazte mistoak	-	6,4376	0,03474	-	-	-		-	-
G5.82	Duela gutxi ebakitako koniferoak	-	0,3837	0,00207	-	-	-		-	-
H5.31	Buztinak, tuparri bigunak eta lohiak landaredi urriarekin, higadura dela eta	-	55,6266	0,30021	-	-	-		-	-
H5.6	Zapal dutako eremuak	-	4,4101	0,02380	-	-	-		-	-
I1.1	Monolaborantza intentsiboak	-	845,6446	4,56387	-	-	-		-	-
I1.1(X)	Monolaborantza intentsiboak harea-lurretan	-	28,8819	0,15587	-	-	-		-	-
I1.2	Ortuak	-	0,5824	0,00314	-	-	-		-	-

HaZ/ EUNIS kodea	Habitataren izena	EI	Habitataren azal. KBE/HBBEan (ha)	Eremuaren % KBE/HBBEan	Eremuaren % EAEko N2000Sn	Eremuaren % EAE osoan	Ordez k.	Balor. globala	Kontserbazio- egoera KBE/HBBEan	Kontserbazio- egoera EAEn
I1.5	Goldatutako lur soilak, lugorriak edo abandonatu berriak	-	43,6455	0,23555	-	-	-		-	-
I2.2	Apaindura-parke eta -lorategi txikiak	-	1,3150	0,00710	-	-	-		-	-
J1	Herriak eta dentsitate handiko hiriak eraikitzea	-	0,6772	0,00365	-	-	-		-	-
J2	Dentsitate txikiko eraikuntzak	-	4,6033	0,02484	-	-	-		-	-
J3.2	Harrobiak eta aire zabaleko beste erauzketa-toki batzuk	-	1,2277	0,00663	-	-	-		-	-
J3.3	Abandonatutako erauzketa-guneak	-	3,0828	0,01664	-	-	-		-	-
J4	Garraio-sareak eta lotutako lurak	-	0,5164	0,00279	-	-	-		-	-
J4.1	Komunikatzeko bidean dauden birlandatutako ezpondak	-	3,0651	0,01654	-	-	-		-	-
J4.2	Errepide-sareak	-	30,0644	0,16226	-	-	-		-	-
J4.6	Beste lur asfaltatu batzuk	-	1,4180	0,00765	-	-	-		-	-
J5.3	Ur gezako urtegiak eta putzuak, gizakiek eginikoak	-	5,3054	0,02863	-	-	-		-	-
J6	Zabortegiak	-	3,6801	0,01986	-	-	-		-	-
GUZTIRA			18.529,1031	100	-	-			-	-

3.1. taula.- Habitataren KBE/HBBEan.

KBE/HBBE babestutako naturgunearen eremuan, 119 EUNIS habitat daude erregistratuta; horien artean, Batasunaren intereseko 28 habitat daude (BIH), eta horietatik 9 lehentasunezkoak dira. Batasunaren intereseko habitat horiek 13.289,63 ha-ko azalera hartzen dute, hau da, gunearen % 71,72. Azalera horren barruan, ez da sartu BIH 8310 (Turismoak ustiatu gabeko leizeak), kuantifikatu ezin delako.

Beste alde batetik, Zuzentarauan jasota ez dauden baina inbentariatu diren EUNIS habitaten barruan, eskualdearen interesekotzat jotzen diren 8 habitat (EIH) erregistratu dira: *Ulex europaeus*en otadi subatlantikoa, abarizti submediterranea, erromerodia, maki altu mediterranea *Erica arborea* eta *Arbutus unedo*ekin, maki baxu mediterranea *Erica scoparia*ekin, pagadi basofiloa, urkidia, eta *Quercus faginea* eta *Quercus rotundifolia*ren baso mistoa. EIH horiek 2.396,77 ha-ko azalera hartzen dute (KBE/HBBEaren % 12,94).

Kartografia berrikustean, ez dira 2004ko Datuen Inprimaki Normalizatueta jasotako habitat hauek antzeman (beharbada, akatsak egin zirelako habitat horiek interpretatzean, gunea izendatu zenean).

- 3150: Laku eutrofiko naturalak *Magnopotamion* edo *Hydrocharition* landarediarekin.
- 3240: Ibai alpetarrak, *Salix albaeagnosen* zurezko landarediarekin ertzetan.
- 4020: *Erica ciliaris* eta *Erica tetralix*en txilardi heze atlantikoak, alde epeletakoak.

3.3.- FLORA

Kontserbaziorako interes handiena duen KBE/HBBEko floraren ordezkariak gailurretako eta eremu altuetako ingurunearekin zerikusia duten landare-espezieak dira, baita zohikatz-gainazal eta baso-eremuetako inguruneekin lotura dutenak ere. Haietako asko bakanak dira, euren banaketa EAeko lurralde horietara mugatzen delako, eta dezente daude Fauna eta Flora Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan jasota.

Hala, kontserbazio-intereseko 54 espezie inbentariatu dira. Haien artean, *Narcissus asturiensis* Habitategi buruzko Zuzentarauko II. eta IV. eranskinetan dago; eta *Narcissus triandrus* subsp. *triandrus*, berriz, IV. eranskinetan.

Eskualdearen intereseko espezieen harira, KBE/HBBEan aipatutako 53 espezie daude Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoko kontserbazio-kategoriaren batean: zehazki, 5 «galtzorian daude», 20 «kalteberak» dira, 15 «bakanak» dira, eta 13 «interes berezikoak».

Armeria cantabrica subsp. *vasconicaren* populazioa nabarmentzekoa da, eta ziurrenik, HBBEko landarerik adierazgarriena da, gunea horietan bakarrik dago eta; orobat, *Prunus lusitanica* ere aipatu behar da, bertan baitago espeziearen EAeko populaziorik handiena.

Halaber, *Cochlearia aragonensis* ere garrantzitsua da; eremu murriztuko endemismoa da, eta KBE/HBBEan dauden populazioak banaketaren mendebaldea dira.

Antennaria dioica espezieari dagokionez, Kodes mendilerroa da EAEn ezagutzen zaion kokapen bakarra, eta ez da eginiko laginketa-lanetan topatu. Gainera, aipatu behar da *Prunus lusitanica* duela gutxi aurkitu zela; Espezie Mehatxatuen EAeko

Katalogoan, galtzeko arriskuan dagoen espezieetat sailkatu da. Ega ibaira doazen troketan topatu zen, eta EAeko populaziorik oparoena du bertan.

Beheko taulan, KBE/HBBEko flora-espezie garrantzitsuenak bildu dira. Taularen xedea informazioa ematea besterik ez da, eta datuak aldi berean berrikusi eta eguneratzen dira.

HaZ kd.	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	HaZ eranskina	LESRPE CEEA	EMEK	PO EAEn	Kontserbazio-egoera KBE/HBBEan
-	Katu-hanka	<i>Antennaria dioica</i>	P	-	-	-	-	T
-	-	<i>Arenaria erinacea</i>	P	-	-	B	-	D
-	-	<i>Armeria arenaria</i> subsp. <i>burgalensis</i>	P	-	-	B	-	D
-	-	<i>Armeria cantabrica</i> subsp. <i>vasconica</i>	P	-	-	K	-	D
-	Aster alpetarra	<i>Aster alpinus</i>	P	-	-	B	-	D
-	-	<i>Aster willkommii</i>	P	-	-	B	-	D
-	-	<i>Botrychium lunaria</i>	P	-	-	B	-	D
-	Ezpel arrunta	<i>Buxus sempervirens</i>	P	-	-	IB	-	-
-	-	<i>Berula erecta</i>	P	-	-	GA	-	E
-	-	<i>Cardamine heptaphylla</i>	P	-	-	GA	-	D
-	-	<i>Carlina acaulis</i> subsp. <i>simplex</i>	P	-	-	B	-	D
-	-	<i>Centaurea lagascana</i> subsp. <i>lagascana</i>	P	-	-	K	-	D
-	-	<i>Cistus psilosepalus</i>	P	-	-	K	-	D
-	-	<i>Cochlearia aragonensis</i>	P	-	-	K	-	D
-	-	<i>Convolvulus lineatus</i>	P	-	-	IB	-	-
-	-	<i>Dactylorhiza sulphurea</i>	P	-	-	GA	-	D
-	-	<i>Dryopteris carthusiana</i>	P	-	-	K	-	D
-	-	<i>Epilobium angustifolium</i>	P	-	-	K	-	D
-	-	<i>Epipactis palustris</i>	P	-	-	K	-	D
-	-	<i>Erinacea anthyllis</i> subsp. <i>anthyllis</i>	P	-	-	K	-	D
-	Moko-belarra	<i>Erodium daucoides</i>	P	-	-	B	-	D
-	-	<i>Erodium glandulosum</i>	P	-	-	B	-	D
-	-	<i>Galium pyrenaicum</i>	P	-	-	B	-	D
-	-	<i>Genista eliasseanenii</i>	P	-	-	B	-	D
-	-	<i>Geum rivale</i>	P	-	-	-	-	T
-	-	<i>Gypsophila repens</i>	P	-	-	K	-	D
-	-	<i>Himantoglossum hircinum</i>	P	-	-	B	-	D
-	Gorostia	<i>Ilex aquifolium</i>	P	-	-	IB	-	-
-	Ostargi-belarra	<i>Iris latifolia</i>	P	-	-	K	-	D
-	-	<i>Lomelosia graminifolia</i>	P	-	-	B	-	D

HaZ kd.	Izen arrunta	Izen zientifikoa	Mota	HaZ eranskina	LESRPE CEEA	EMEK	PO EAEn	Kontserbazio-egoera KBE/HBBEan
1865	Lilipa txikia	<i>Narcissus asturiensis</i>	P	II eta IV	*	IB	-	O
1864	-	<i>Narcissus bulbocodium</i> subsp. <i>citrinus</i>	P	V	-	IB	-	O
1996	-	<i>Narcissus triandrus</i> subsp. <i>triandrus</i>	P	IV	*	K	-	D
-	-	<i>Nepeta tuberosa</i> subsp. <i>reticulata</i>	P	-	-	B	-	D
-	-	<i>Ononis fruticosa</i>	P	-	-	IB	-	-
-	-	<i>Orchis italica</i>	P	-	-	K	-	T
-	-	<i>Ornithogalum narbonense</i>	P	-	*	IB	-	-
-	-	<i>Pedicularis foliosa</i>	P	-	-	B	-	D
-	-	<i>Peucedanum officinale</i>	P	-	-	K	-	D
-	Legeltxorra	<i>Pistacia lentiscus</i>	P	-	-	IB	-	-
-	Loro, Portugalgo erramua	<i>Prunus lusitanica</i>	P	-	K	GA		O
-	-	<i>Pyrola minor</i>	P	-	-	K	-	D
-	Haritza	<i>Quercus robur</i>	P	-	-	IB	-	-
-	Azitzaia	<i>Satureja montana</i> subsp. <i>montana</i>	P	-	-	K	-	D
-	-	<i>Saxifraga losae</i>	P	-	-	B	-	T
-	-	<i>Senecio carpetanus</i>	P	-	-	GA	-	T
-	-	<i>Sideritis ovata</i>	P	-	-	IB	-	-
-	Gurbea	<i>Sorbus latifolia</i>	P	-	-	K	-	D
1900	-	<i>Spiranthes aestivalis</i>	P	IV	*	K	-	D
-	Hagina	<i>Taxus baccata</i>	P	-	-	IB	-	D
-	-	<i>Teucrium botrys</i>	P	-	-	K	-	D
-	Loskosko ezkaia	<i>Thymus loscosii</i>	P	-	*	IB	-	-
-	-	<i>Trollius europaeus</i>	P	-	-	K	-	D
-	Gogortxua	<i>Viburnum tinus</i>	P	-	-	IB	-	-

2. Informazio tekniko edo zientifikoaren arabera egoera txarrean egon daitezkeen edo, neurririk hartu ezean, egoera txarrean egotera irits daitezkeen habitatak edo espezieak.
3. Giza erabilera duten eta kontserbazio-egoera onean jartzeko edo mantentzeko arautu edo lagundu behar diren habitatak edo espezieak.
4. Talde taxonomikoen eta ekosistemen osasunaren adierazle diren eta/edo biodibertsitatearen gaineko presioak detektatzeko baliagarri diren eta, beraz, monitorizazio-ahalegin espezifikoko bat eskatzen duten habitatak edo espezieak.
5. Beste habitat edo espezie basati batzuentzat edo lekuko segurtasun ekologikorako erabilera onuragarria duten habitat edo espezieak.

Horrenbestez, Toloño-Kantabria mendilerroa/Arabako hegoaldeko mendilerroak KBE/HBBEan funtsezko elementutzat hartzen dira honako hauek:

Funtsezko elementua	Kod.	Barnean hartutakoak	Justifikazioa
Basoak	9120	<i>Ilex</i> eta, batzuetan, <i>Taxus</i> generoko espezieetako (<i>Quercion robori-petraeae</i> edo <i>Ilici-Fagenion</i>) oihanpea duten pagadi azidofilo atlantikoak	Eskualdearen interesekoak diren lehentasunezko hainbat baso mota, ingurune oso partikularretan azalera txikiak hartzen dituztenak (9180* eta 9580* moten kasuan, adibidez), eta egiturari eta funtzionamenduari dagokienez kontserbazio-gabeziak dituztenak (9120 eta 9160 moten kasuan, adibidez). Batasunaren zein eskualdearen intereseko flora- eta fauna-espezieak, habitat oihantsuen kudeaketari lotuta kontserbatzen direnak.
	9160	<i>Carpinion betulii</i> harizti kandudun edo kandugabe azpiatlantiko eta erteuroparrak	
	9180*	Malda, lur-jausi edo amildegietako <i>Tilio-Acerion</i> basoak	
	9580*	<i>Taxus baccata</i> baso mediterraneoak	
	1996	<i>Narcissus triandrus</i> subsp. <i>triandrus</i>	
	-	<i>Cardamine heptaphylla</i>	
	-	<i>Dryopteris carthusiana</i>	
	-	<i>Prunus lusitanica</i>	
	-	<i>Pyrola minor</i>	
	-	<i>Sorbus latifolia</i>	
	-	<i>Cistus psilosepalus</i>	
	-	<i>Geum rivale</i>	
	1088	<i>Cerambyx cerdo</i>	
	1083	<i>Lucanus cervus</i>	
	1065	<i>Euphydryas aurinia</i>	
	6199	<i>Callimorpha quadripunctaria</i>	
	A072	<i>Pernis apivorus</i>	
	A074	<i>Milvus milvus</i>	
	A080	<i>Circaetus gallicus</i>	
	A085	<i>Accipiter gentilis</i>	
	A092	<i>Hieraaetus pennatus</i>	
	A236	<i>Dryocopus martius</i>	
	A238	<i>Dendrocopos medius</i>	
	A240	<i>Dendrocopos minor</i>	
	1323	<i>Myotis bechsteinii</i>	
	1330	<i>Myotis mystacinus</i>	
	1314	<i>Myotis daubentonii</i>	
	1322	<i>Myotis nattereri</i>	
	1331	<i>Nyctalus leisleri</i>	
	1312	<i>Nyctalus noctula</i>	
1328	<i>Nyctalus lasiopterus</i>		
1308	<i>Barbastella barbastella</i>		
1326	<i>Plecotus auritus</i>		
Bazkalekuak	6210(*)	Lursail karedunetako soropil lehor erdinaturalak eta sastraka-itxurakoak (<i>Festuco-Brometalia</i>)	Orkidea askoko lehentasunezko habitatak (gutxi ikusten den eta giza jardueraren mendeko motaren bat barne)

Funtsezko elementua	Kod.	Barnean hartutakoak	Justifikazioa
	6220(*)	Gramineodun eta urteroko <i>Thero-Brachypodietadun</i> bazkaleku azpiestepikoak, <i>Brachypodium retusum</i> dun bazkalekuekin nahasiak	Eskualdearen intereseko espezieak, bizileku dituzten habitaten kudeaketa egokia eskatzen dutenak
	6230*	Mendi-inguruneetako (eta Europa kontinentaleko zona azpimenditarretako) substratu silizeoetako <i>Nardus</i> dun belar-formazioak, askotariko espezieekin	
	-	<i>Dactylorhiza sulphurea</i>	
	1865	<i>Narcissus asturiensis</i>	
	-	<i>Orchis italica</i>	
	-	<i>Iris latifolia</i>	
	-	<i>Trollius europaeus</i>	
	A081	<i>Circus cyaneus</i>	
A082	<i>Circus pygargus</i>		
Zohikaztegiak	6420	<i>Molinion-Holoschoenion</i> goi-belarren belardi heze mediterraneoak	Lurzoruan etengabe hezetasuna izatearen menpeko komunitateak, eskualdearen intereseko espezieekin
	7210*	<i>Cladium mariscus</i> aren zohikaztegi karedunak <i>Caricion davalliana</i> aren espezieekin	
	-	<i>Berula erecta</i>	
	-	<i>Epipactis palustris</i>	
	1900	<i>Spiranthes aestivalis</i>	
Ingurune andeatuak	-	<i>Teucrium botrys</i>	Eskualdean kalteberatzat katalogatutako espezieak, bizileku dituzten guneen kudeaketa egokia eskatzen dutenak. <i>Peucedanum officinale</i> ren kasuan, EAEn gune humanizatuetan ezagutzen den kokaleku bakarra da
	-	<i>Peucedanum officinale</i>	
Ibaiak eta ingurune erriparioak	7220*	Iturburu petrifikanteak tuf-formazioarekin (<i>Cratoneurion</i>)	Lehentasunezkoak eta gunean oso urriak diren habitatak (7220* eta 91E0 kasuak, adibidez) Batasunaren eta eskualdearen intereseko fauna-espezieak
	91E0*	<i>Alnus glutinosa</i> eta <i>Fraxinus excelsior</i> baso alubialak (<i>Alno-Padion</i> , <i>Alnion incanae</i> , <i>Salicion albae</i>)	
	92A0	<i>Salix alba</i> eta <i>Populus alba</i> galeria-basoak	
	1092	<i>Austropotamobius italicus</i>	
	1356	<i>Mustela lutreola</i>	
	1355	<i>Lutra lutra</i>	
Harkaitzak eta antzeko inguruneak	-	<i>Antennaria dioica</i>	Batasunaren eta eskualdearen intereseko espezieak
	-	<i>Armeria cantabrica</i> subsp. <i>vasconica</i>	
	-	<i>Centaurea lagascana</i> subsp. <i>lagascana</i>	
	-	<i>Cochlearia aragonensis</i>	
	-	<i>Erinacea anthyllis</i> subsp. <i>anthyllis</i>	
	-	<i>Gypsophila repens</i>	

Funtsezko elementua	Kod.	Barnean hartutakoak	Justifikazioa
	-	<i>Satureja montana</i> subsp. <i>montana</i>	
	-	<i>Epilobium angustifolium</i>	
	A093	<i>Hieraaetus fasciatus</i>	
	A076	<i>Gypaetus barbatus</i>	
	A077	<i>Neophron percnopterus</i>	
	A078	<i>Gyps fulvus</i>	
	A091	<i>Aquila chrysaetos</i>	
	A103	<i>Falco peregrinus</i>	
	A215	<i>Bubo bubo</i>	
	A346	<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i>	
	1304	<i>Rhinolophus ferrumequinum</i>	
	1303	<i>Rhinolophus hipposideros</i>	
	1305	<i>Rhinolophus euryale</i>	
	1324	<i>Myotis myotis</i>	
	1307	<i>Myotis blythii</i>	
	1321	<i>Myotis emarginatus</i>	
	1309	<i>Pipistrellus pipistrellus</i>	
	5009	<i>Pipistrellus pygmaeus</i>	
	1317	<i>Pipistrellus nathusii</i>	
	2016	<i>Pipistrellus kuhlii</i>	
	5365	<i>Hypsugo savii</i>	
	1327	<i>Eptesicus serotinus</i>	
	1329	<i>Plecotus austriacus</i>	
	1310	<i>Miniopterus schreibersii</i>	
	1333	<i>Tadarida teniotis</i>	
Anfibioak eta narrastiak	2353	<i>Triturus alpestris</i>	Batasunaren eta eskualdearen intereseko anfibio- eta narrasti-espezieak
	1191	<i>Alytes obstetricans</i>	
	1195	<i>Discoglossus jeanneae</i>	
	1198	<i>Pelobates cultripipes</i>	
	6284	<i>Epidalea calamita</i>	
	1203	<i>Hyla arborea</i>	
	1209	<i>Rana dalmatina</i>	
	2004	<i>Lacerta lepida</i>	
	2430	<i>Psammodromus algirus</i>	
	2464	<i>Elaphe scalaris</i>	
	2466	<i>Malpolon monspessulanus</i>	
Konektibitatea	-	Konektibitatea	Prozesu garrantzitsua Natura 2000 gunean

4.4 taula.- KBE/HBBEko funtsezko elementuen hautaketa eta justifikazioa.

5.- FUNTSEZKO ELEMENTUEN KONTSERBAZIO-EGOERA. PRESIOAK ETA MEHATXUAK

Habitategi buruzko Zuzentarauaren arabera, «habitat baten kontserbazio-egoera» dagokion habitat naturalaren gaineko eraginek eta bertan finkatuta dauden ohiko espezieen gaineko eraginek osatzen dute (epe luzera haien kokapen naturalean, egituran eta funtzioetan eragin dezakete, baita ohiko espezieen biziraupenean ere). Habitat natural baten «kontserbazio-egoera» «ontzat» ematen da baldintza hauek betez gero: a) kokapen-eremu naturala eta eremu horren barruko azalerak egonkorak izatea edo zabaltzea, b) epe luzera mantentzeko beharrezkoak diren egitura eta funtzio espezifikoak izatea, eta aurreikusteko moduko etorkizunean izaten jarraitu ahal izatea, eta c) bertako ohiko espezieen kontserbazio-egoera ona izatea. Era berean, «espezie baten kontserbazio-egoera» espezieetan eragiten duten eraginen multzoa da, eta epe luzera haien banaketan eta haien populazioen tamainan eragin dezakete. Espezie baten «kontserbazio-egoera» «ontzat» ematen da espezie horren populazioei buruzko datuek epe luzera espezie horren presentzia habitat horretan arriskuan ez dagoela adierazten badute, eta horretarako behar besteko hedadura izango duela adierazten badute, kokapen-eremu naturala ez murrizteko moduan, ez orain, ez aurreikusteko moduko etorkizunean.

Batasunaren intereseko habitat- eta espezie-mota guztien kontserbazio-egoera ona lortzea da helburu nagusia; habitat- eta espezie-mota bakoitzak kalitate aldetik eta hedadura aldetik aurrera egiteko moduko egoera bat eta etorkizunean aurrera egiten jarraitzeko perspektiba onak agertzen dituen egoera bat. Helburu hau kontserbatu beharreko elementutzat hartzen diren guztietara hedatzen da.

Kontserbazio-egoerak (KE) KBeko elementuaren KEri egiten dio erreferentzia eta, hura zehazteko, bi baliabite hauek erabiltzen dira: batetik, Europako Batzordeak Habitategi buruzko Zuzentzaraua betetzeko eta segimendua egiteko zuzentzarau horren 17. artikuluan ezarritako betebeharrei erantzuteko garatutako metodologia; eta, bestetik, Espainian kokatutako Batasunaren intereseko habitat motak kontserbatzeko Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak (MAGRAMA) garatutako aurretiko oinarri ekologikoak.

Era berean, **presioak eta mehatxuak** adierazten dira; lekuaren kontserbazioan eta kudeaketan modu positiboan edo negatiboan eragin dezaketen giza jarduerak eta prozesu natural guztiak. Haiek finkatzeko, gunearen datu-formulario normalizatuko presioen zerrenda eta kodeak erabili dira, Natura 2000 gune bati buruzko informazio-formulario bati lotutako Batzordearen 2011ko uztailaren 11ko Gauzatze Erabakian ezarritakoaren arabera.

Azkenik, **baldintzatzailleak** azaltzen dira, hau da, KBERako ezarritako kontserbazio-helburuak edo kontserbazio-egoera ona bideratzeko, hobetzeko edo lortzeko balio izan dezaketen beste faktore ekologiko, sozial, ekonomiko edo kultural batzuk.

1. KE.- Basoak

Kontserbazio-egoera

Lur-jausietako basoak (*Tilio-Acerion*) -9180*-

9180* habitateko baso mistoek hartzen dituzten azalerak urriak eta zatituak dira; beraz, egoera kaltegarritzat jo daiteke, baina ezin da ahaztu urriak eta zatituak direla haiek garatzeko eta aurrera egin ahal izateko baldintzak betetzen dituzten lekuak ere. Leku horiek, gainera, mendi-sistemetak puntu aldapatsuetan egon ohi dira; beraz, oro har, ez dute lehia handiegirik jasaten lurzoruaren okupazioari dagokionez. Hala ere, KBE/HBBEan hartutako azalera desegokitzat hartzen da.

9180* habitataren egitura konplexu samarra da, baina nahiko aldakorra, sakanetan eta lur-jausiak eta indar handiko beste fenomeno fisiko batzuk jasan ditzaketen mendi-hegaletan kokatuta daudenez, beren garapena baldintzatuta eta, askotan, mugatuta egoten baita hainbat adinetako ordezkari oneko egitura konplexu eta egonkor bat lortzeko. Haginak eta haginaren habitata izateak, batez ere ale urtetsu asko daudenean, areagotu egiten du bizileku dituzten komunitateen egitura eta egonkortasuna. Hala ere, baso hauen hedadura urria eta zatiketa handia direla eta, egitura hori desegokitzat kalifikatu behar da.

Komunitate mota hauek bete beharko lituzketen natura- eta ingurumen-funtzioak betetzeari dagokionez, ezarritako irizpideen arabera, desegokitzat hartu behar dira, lurraldean duten ordezkari txikiarengatik, nahiz eta berriz ere lur-jausietako basoetarako (9180*) kokapena eta azalera mugatzeak murriztu egin beharko lukeen irizpide honen pisua, eta haien dinamikari eta egiturari eman garrantzia, egitura- eta funtzio-baldintzak betetzen diren lekuetan egoerarik hoberenera hurbiltzen direla ikusteko.

Habitat honentzako etorkizuneko perspektibek, oro har, onak izan behar dute kudeaketa konpon daitezkeen hutsuneetara egokituz gero (zur hila, dibertsitate espezifikoak, etab.); izan ere, indar abiotikoen jarduketari lotutakoak (grabitatea, lur-jausiak), dinamika naturalaren parte izateaz gain, ezin izango dira inoiz saihestu.

EB 9180* kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala		X		

Taxus baccata baso mediterraneoak -9580*-

Taxus baccata baso mediterraneoan 9580* habitata, hasiera batean, lur-jausien baso mistoena (9180* habitata) baino nonahikoagoa da. Izan ere, askotariko baso motatan ager daiteke, kokalekua egokia baldin bada. Hala ere, habitat honek aipatu baso mistoek baino lurralde-ordezkari askoz ere txikiagoa eta zatituagoa du; beraz, pentsa daiteke haren eremu potentziala gaur egun hartzen duena baino nabarmen handiagoa dela.

Bizitza-luzera nabarmena eta hazkunde-moteltasuna bereizgarri dituen espezie batean denboran zehar izandako eraso eta alterazioen metaketak (belarjaleak, mozketak, ikazkintza, sua, etab.) berreskuratze-moteltasun handia ekarriko luke, eta bi kausa horiek, uztartuta, egungo banaketa oso murriztuta eta zatituta egotea azal lezakete askotan kokaleku babestuetara eta sarbide zailekoetara mugatuta egoten den potentzialari dagokionez. Horregatik, egungo kokapena desegokitzat hartzen da.

KBE/HBBEan dagoen hagin-sail bakarrak egitura-hutsuneak dauzka; desberdintasun nabarmena adinaren arabera banaketari eta birsorkuntza-urritasunari dagokienez. Baso mistoetan trinko samarrak diren eta ale urtetsuak dituzten populazioak izateak, kasu honetan gertatzen den bezala, hobetu egiten du bertako dibertsitatea eta egitura, baina, hala ere, desegokitzat hartu behar da.

Natura- eta ingurumen-funtzioak desegokitzat hartu behar dira hartutako azalera oso txikia eta oso zatitua baita, adin-egitura urriarekin, birsorkuntzarik gabe, ale gutxiarekin, etab. Baldintzatzaile hauek ez dute ahalbidetzen berezko funtzioak behar bezala garatzea, nahiz eta bizikide dituzten basoen funtzioetan integra daitezkeen.

Habitat honentzako etorkizuneko perspektibak desegokiak dira haren egungo egoerarengatik, birsortzeko eta hazteko dauden zailtasunengatik edo belarjaleen aurreko sentikortasunarengatik. Horrek guztiak are aurreikusenagoa egiten du etorkizunean izango duen bilakaera.

EB 9580* kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Egitura eta funtzio espezifikoak		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Pagadi azidofiloak -9120-

Pagadiak dira KBE/HBBEko baso-masa handiena, eta bertako hiru pagadi motetako bi daude sartuta Habitategi buruzko Zuzentarauan.

Bi habitat mota bereizten dira substratu motaren arabera: pagadi azidofiloak (9120 habitata) –beste zuhaitz-espezie batzuk ere tartean izan ditzakete, baina, oro har, flora gutxi izaten dute (gorostia eta, batzuetan, hagina izaten dituzte oihanpean)– eta pagadi kaltzikolak (9150 habitata) –materia organikoa pilatzen den sakonuneetan edo lautadetan (eutrofikoak) daudenean izaten dira flora aldetik aberatsenak eta ugariak, eta egitura hobe eta dibertsitate handiagoa lor dezakete tartean ezkiak, mendiko zumarrak, haginak, etab. izanez gero–.

Pagadiak, oro har, baso trinkoak dira, zuhaitz altuez osatuak, argitasuna barrualdera sartzea zailtzen duen errezel itxi bat sortzen dutenak. Horregatik, baso hauetako zuhaixkak eta sastrakak nahiko urriak izaten dira espezie kopuruari eta dentsitateari dagokienez. Iluntasun horrek, neurri handi batean, murriztu egiten ditu komunitateen egitura eta flora-dibertsitatea, eta basoko aprobetxamenduak adin klase gutxi batzuk nagusitzea eta zur hila ateratzea dakar. Ondorioz, baso hauen egitura desegokitzat hartu behar da.

Formazio hauei aplikagarri zaien azalera-irizpideari dagokionez, eta haientzako erreferentziako gutxieneko azalera-kalkulu bat ez egotearen baitan, ikusten da HBBEan pagadi kaltzikolak (9150 habitata) direla azalera handiena hartzen duten arboladi motak. Pagadi azidofiloek (9120 habitata), aldiz, lekukotasun hutseko presentzia dute. Beraz, habitat honek hartzen duen azalera desegokitzat jotzen da.

Haien egiturak eta dibertsitateak asko baldintzatzen ditu komunitate horiek betetzen dituzten funtzioak, eta desegokitzat jo daiteke.

Pagadientzako etorkizuneko perspektibak desegokitzat jotzen dira; izan ere, kudeaketa aldatu arren, edo azalera-zati handi batean egin arren, egur- eta sutarako aprobetxamenduek hor jarraituko dute, eta basoaren egungo uniformetasunak denbora beharko du desagertzeko.

EB 9120 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Egitura eta funtzio espezifikoa		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Harizti azpiatlantikoak -9160-

Harizti azpiatlantikoen (9160 habitata) presentzia KBE/HBBEaren barruan lekukotasunezkoa den arren, garrantzi ekologikoa du; izan ere, besteak beste, bertan dago *Geum rivale* espeziearen Arabako populazio bakar eta urria (espezie hau «arriskuan» dauden espezieen kategorian sartuta dago Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan).

Quercus robur espezieko harizti mesotrofo azpiatlantikoek hartutako azalera ez da inola ere nahikoa. Oso lokalizatua dago Urizaharra-Montoriako orban bakar batean, maldarik gabeko gune batean, eta azalera handiagoko mendi-hegaleko harizti azidofilo batekin lotzen da, jarraipenik izateko aukerarik gabe.

Urizaharra-Montoriako hariztiko egituraren egoera, parametro adierazleei dagokienez (dibertsitate espezifikoa eta estrukturala, birsorkuntza, zur hila, adin-banaketa, etab.), pagadien egoera orokorrak baino emaitza hobekiak agertzen ditu, baina komunitate hauen presentzia txikiak, orban-tamaina txikiak eta beste harizti batzuekiko duten isolamenduak bertako espezieen dibertsitatea galtzeko prozesuak eragiten dituzte, eta, horrekin batera, haien garapen estrukturala mailarik hobereenera ez iristea eragiten dute. Beraz, irizpide hau desegokitzen hartzen da.

Komunitate hauek betetzen dituzten funtzioak ezin dira behar bezala zehaztu, ez baitago horretarako irizpide zorrotzik, baina argi dago haien egiturak eta dibertsitateak asko baldintzatzen dituztenez, beste harizti batzuekiko isolamenduak erabat mugatzen dituela bereizgarri dituen espezieen truke genetikoak. Hortaz, desegokitzen hartzen dira.

Etorkizuneko perspektibak ere ez dira hobekiak; izan ere, haien isolamenduak, zatiketak eta orban-tamaina txikiaren ondoriozko ertz-efektuak asko zailtzen dute funtzio hobereenak lortzea.

EB 9160 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Egitura eta funtzio espezifikoa		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Narcissus triandrus subsp. *triandrus* -1996-

Ia Iberiar penintsulako ipar-mendebaldeko koadrantean bakarrik topa daitekeen endemismo iberikoa. Bere kokapenaren ipar-ekialdean EAEn eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko muga dauka.

EAE barruko kokapenari dagokionez, Bizkaian populazio bat ezagutzen da, eta beste pare bat Arabako hego-ekialdean.

KBE/HBBEaren barruan, 1 km-ko UTM lauki pare batean kokatzen da, Kodes mendilerroan (Ioar). Beraz, gunearen barruan espezie honentzat egun ezagutzen den eremua oso txikia da, baita espezie honen populazioaren tamaina ere. Horregatik, desegokitzen kalifikatzen dira bi irizpide hauek.

Gaur egun hartzen duen habitatak –baso eta sasi arteko soilguneak– ez dirudi oso egonkorra, aipamen gehienek habitat hauetako presentzia suak irekitako hutsuneekin

lotzen baitute; bestalde, ez dira ezagutzen populazio hauen bilakaera-joeren xehetasunak. Ingurune hauetan surik komeni ez denez, basoek eta sastrakek gero eta sail gehiago hartzen dutenez, eta horrek espezieak aurrera egiteko bizileku dituen soilgunek desagertzea dakarrenez, etorkizuneko perspektibak desegokitzat hartu beharko lirateke.

EB 1996 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Cardamine heptaphylla

Ingurune freskoetako lurzoru aberats eta sakonetan hazten den pagadi eta mendiko baso mistoen sail deigarria.

Espeziearen kokapen-eremua, penintsulan, Pirinioetara mugatzen da; beren artean berezitako zenbait gune hartzen ditu. EAEn Toloño mendilerroan kokatutako populazio bakar bat ezagutzen da; horixe da kokapenik mendebaldekoena, eta horrek ere bizirik irauteko aukerak mugatzen dizkiola dirudi. Populazio honek bere okupazio-eremua egonkor mantentzen du 30 urte baino gehiagoan; beraz, ontzat hartzen da kokapenaren egoera.

Cardamine heptaphylla espeziearen populazioak ale dezente ditu, baina, hala ere, ez dago «erreferentzia oneko populazioaren» gainerik. Bestalde, ugalketa sexualerako dituen zailtasunek ugalketa begetatibo nagusi batean pentsatzera garamatzate, eta horrek populazio honen dibertsitate genetikoan murrizketa bat dakar. Horrenbestez, guneko populazioa desegokitzat hartzen da.

Hartutako habitatak -lurzoru aberats eta freskoetako pagadiak- egokia dirudi espeziearentzat, baina populazioak dituen bizitasun- eta ugalketa-arazoez hutsuneak eragin ditzakete beharrezkoak diren faktore ekologikoetan; agian, kokapena nahiko termikoa izan daiteke (horren adierazle da ezpela egotea) edo kokapenaren hutsune horiek kokapen-eremua mugatu besterik ez lukete egingo. Hortaz, gaur egun hartzen duen habitatak ez du espeziearen biziraupena bermatzen epe luzera; beraz, irizpide hau desegokitzat hartu behar da.

Etorkizuneko perspektibak ere desegokitzat hartzen dira bere ugalketa-dinamikaren eta populazioaren berezitasunak direla eta, baita espeziea berreskuratzeko plan zehatzik ez dagoelako ere (halako planek ale kopurua eta hartutako eremua handitzen lagunduko lukete). Nolanahi ere, plan hauek kontuan hartu beharko lukete populazio honen egonkortasun-historia; izan ere, areagotze hori aldi batekoa soilik izan liteke, eta egungo egoerara itzul daiteke populazio-errefortzuak eten orduko.

EB - kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Dryopteris carthusiana

Baso ospel eta hezeetako berezko iratzea, lurzoru putzudunak nahiago dituena, harizti eta pagadietan bizi dena, baina haltzadi zingiratsuak askoz nahiago dituena.

Penintsulan batez ere Kantabria aldean kokatzen da, kostako udalerrietan. Hala ere, gehiago babesten da mendiguneetan. EAeko hiru probintzietan dago, baina Araban gehienbat, Arabako mendietako udalerri gutxi batzuetan. KBE/HBBEan Toloño mendilerroan dago, eta badirudi egonkor eusten diola bertako kokapenari. Beraz, ontzat hartzen da.

Ez dakigu Toloño mendilerroko puntu bakar honetan zenbat ale dauden, ezta iratze honen populazioaren bilakaera zein den ere, eta, populazio urri honi egonkor eutsiko balio ere, irizpide hau ezezaguntzat hartu beharko litzateke.

Basoetan agertzeko joera duen iratze honen tokiko habitata lurzoru lohitsuetao haltzadi eta hariztiak dira. Toloñon hartzen duen azalera txikia da. Laborantza artean isolatutako harizti baten barruan kokatzen da; beraz, eremua ez da epe luzera espeziearen biziraupena bermatzeko adinakoa, eta ezin da ziurtatu habitata egungo kalitatearekin mantenduko denik ere. Bere egoera desegokitzat hartu da.

Espeziearen etorkizuneko perspektibak ezin dira ontzat hartu, azaleraren txikitasuna eta habitatarentzako mehatxuak kontuan hartuta. Nolanahi ere, bereziki sentikorra den eremu batean agertzen da; beraz, babes-ahalegin bereziak merezi ditu, eta horrek egungo presentzia mantentzea ziurta dezake. Perspektiba hauek desegokitzat hartzen dira.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Prunus lusitanica

Tertziarioritik datozen erramu-basoen adierazle den espezie zuhaizkara. Kokapen mediterraneo-atlantikoa du, eta Makaronesia eskualdean du ordezkartzarik hoberena. Iberiar penintsulan presentzia txikia eta irregularra du, eta sakan egokietan babesleku klimatikoak izateari lotuta dago. EAEn, Kodes mendilerroko populazioaz gain, oso populazio gutxi ditu, sakan silizeo batzuetan sakabanatuak, eta guztira 50 ale baino gutxiago daude, 1x1 km²-ko sei laukitan.

Kanpezuko populazioa, asko jota, EAeko handiena da, tamaina askotako 130 ale inguru baititu, denak ere Valderrota izenez ezagutzen den paraje bateko hiru sakanetan, Ega ibaiaren eskuinaldeko ibaiertzean.

Kareharrien gaineko eta egun egur-aprobetxamendurik ez duen arren duela 50 bat urte egur-ikatz egiteko erabilitako artadi-garriga batean garatzen da. Haren egoera desegokitzat hartzen da, basoa heldutasunerako prozesu batean baitago eta horrek espezieak aldaketa-prozesuan dagoen ingurune batean izango duen bilakaera aurreikustea eragozten baitu.

Etorkizuneko perspektibak ontzat hartzen dira, betiere, populazioaren segimendua egiten bada eta haren kontserbazioa ahalbidetzeko beharrezkoak diren neurriak hartzen badira.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Pyrola minor

Baso itzaltsuetako berezko espeziea, ingurune hotz eta hezeetako, lurzoru azido eta gutxi nitrogenatuetan agertzen dena.

Penintsularen ipar parteko gune menditsuetan kokatzen da, baina ez dago modu uniformearen banatuta, baizik eta beren artean bereizitako zenbait gune osatzen ditu. EAEn Toloño mendilerroko udalerrri bakar batean agertzen da, hurbilen duen populazio-gunetik (Demanda, Urbión eta Cebollera mendilerroetan –Errioxa eta Gaztela eta Leon-) isolatuta eta bereizita. Populazio honek, ezagutzen denetik (duela 30 urte baino gehiagoz gerotik), egonkor eusten dio bere okupazio-eremuari, eta, itxuraz behintzat, bere bizitasuna mantentzen du. Beraz, hartutako eremua «erreferentzia oneko kokapen-eremutat» hartuko litzateke; beraz, ontzat hartuko litzateke kokapen-irizpidea.

Ezagutzen den populazioa nahiko mugatua da ale-kopuruari dagokionez, eta oso isolatuta dago beste populazioekiko, azalera txikia hartzen du, eta habitataren aldaketa posibleek mehatxatzen dute. Populazio oso ahultzat hartzen da, eta, gutxienez, desegokitzen jo behar da.

Garatzen den habitatak bertako erabileren ondoriozko alterazioak jasateko joera du, eta horrek nabarmen eragin diezaiolke hurbileko baso-pista bateko obren edo istripuen ondorioz, baita populazioa desagerrarazi ere, bertan egiten diren soilte-lanen edo basoko bestelako lanen ondorioz. Bere egoera desegokitzen hartzen da.

Etorkizuneko perspektibak ere ez dira ontzat hartzen, arrisku naturaleko eta arrisku antropikoko faktoreak metatzen baitira, eta haiek kalte egin baitiezaielke lekuko espeziearen presentziari.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Sorbus latifolia

Jatorri hibridogenoko zuhaitz txikia, baso freskoetan eta substratu mota ororen gaineko heskaietan bizi ohi dena. Ia ez du sexu-ugalketarik; beraz, ekologiako ohiko zenbait kontzeptu eta, besteak beste, populazioari eta konektibitateari dagozkionak, itxuragabetuta geratzen dira.

Kokapen sakabanatua du penintsulan, eta kontzentrazio-puntuetako bat Burgos iparraldearen (Gaztela eta Leon) eta EAEn artean du. Kodes mendilerroa da dispertsio handieneko puntua, aldameneko hiru 1x1 UTM laukitan aipatu baita. Hain presentzia txikia eduki arren, eta hain eremu sakabanatuan egon arren, gunearen barruan duen kokapenak ezagutzen den eremuari eusten dio; beraz, ontzat hartu behar da.

Oro har, populazio murrizta da, baina KBE/HBBEan eta, zehazki, Kodes mendilerroan du, agian, lurraldeko populaziorik zabalenetako bat, ale-urritasunaren barruan.

Espezieak gunearen barruan erabilitako habitata garrigetako soilguneak dira batez ere; iparraldeko orientazioarekin. Tarteka urkidietan ere agertzen da. Bi inguruneetan baldintza egokiak daude espezie honentzat; beraz, habitataren egoera ontzat hartzen da.

Etorkizuneko perspektibak desegokitzat hartzen dira, populazioaren urritasunarengatik, dispertsioarengatik, eta, Kodes mendilerroko populazioak izan dezakeen babesa gorabehera, sexu-ugalketaren independentzia erlatiboak haien dispertsioa edo ohiko bideen bitartez haien eremua zabaltzea zailtzen duelako eta, hortaz, aurreikusteko modukoa ez delako.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Cistus psilosepalus

Espezie atlantikoa, degradazio-sastraketan eta basoko orletan ohikoa dena, eta ingurune hezeetako lurzoru hareatsuetan garatzen dena.

Penintsularen mendebalde osoan zabaltzen da, eta ia desagertu egiten da eremu kantauriarrean. EAE da, praktikan, haren kokapen-mugetako bat; EAEn mendebaldean, Bizkaian, dauzka ale gutxi batzuk, eta Araban, Toloño eta Kodes mendilerroen mendebaldeko sektoreetan.

Horrela, KBE/HBBEan, Toloño eta Kodes mendilerroetako puntu zehatzetan banatuta daude populazio-aleak, eta ez dakigu azken urteetan zer bilakaera izan duten.

Espezieak gunearen barruan hartzen duen habitata eragin ozeanikoa duten ingurune hezeetako lurzoru hareatsuetan, basoko soilguneetan edo sastraka-guneetan kontzentratzen da. Baldintzatzaile mota hauek eremu txiki batera mugatzen dute haren kokapena, eta, ziur aski, eremu hori txikitzen joango da basoko sastrakek gero eta eremu handiagoa hartzearen ondorioz. Beraz, alderdi hau ziurtasunez ezagutzen ez dugun arren, desegokitzat hartzen da.

Etorkizuneko perspektibei dagokienez eta espeziea bizitzeko leku egokiek ingurunearen degradazio-maila bat dakartenez (erreketak eta soiltzeak), bazkaleku eta sastrakadien aprobetxamenduaren menpe samar daude, betiere, egokiro mantentzen badira. Beraz, espeziearen iraunkortasuna eta, batez ere, haren populazioen tamaina eta dentsitatea aldatu egingo lirarteke erabilera hauetako batzuen bilakaeraren arabera.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Geum rivale

Ingurune hezeetan eta lurzoru sakon, humifero, askotan putzudun edo erreketatik hurbilekoetan aurkitzen den landarea, eskualde menditsuak aukeratu ohi dituena. Penintsulan, Pirinioetan eta Kantabriar mendikatean, sistema iberikoan eta zentrolean eta Sierra Nevada eta Cazorla mendilerroetan topa daiteke.

EAEren barruan, Gipuzkoan eta Araban kokatzen da, eta Gipuzkoan duen populazioa nahiko zalantzazkoa da gaur egun, lokalizaziorik gabe zenbait urte egin ondoren. Araban populazio bakar bat ezagutzen da, Gyllorrekoko hariztian kokatua, Urizaharran (Toloño mendilerroa). Hortaz, desegokitzen har daiteke guneetan duen kokapena.

Urizaharrako hariztiko populazioak, azken erroldetako batzuen arabera, hamar ale baino gutxiago ditu, eta horrek oso kolokan jartzen du bideragarritasuna. Hortaz, egoera txartzat hartzen da.

Harizti barruan haltza duten gune oso hezeetan garatzen da, eta baldintza horiek oso puntualki agertzen dira tokian. Beraz, habitat gisa balio dezakeen azalera ez da inola ere nahikoa epe luzera espezie honen bizirik iraun ahal izateko. Hortaz, egoera txartzat hartu behar da.

Ondorioz, etorkizuneko perspektibak ez dira batere itxaropentsuak espezie honen kontserbazioari dagokionez; ale oso-oso gutxi izatea mehatxu zuzena da, eta inguruneak (bizileku duen hariztia) jasan dezakeen pixkanakako degradazioa, berriz, zeharkako mehatxua. Hariztia laborantza-eremuz inguratua dago, eta ertz-efektu nabarmen horrek andeatzeko eta espezie aldetik pobretzeko joera izaten du, eta, betiere, prozesu horretan kalteberenak espezie arraro eta delikatuak izango dira.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala			X	

Kaprikornio handia (*Cerambyx cerdo*) - 1088

Kaprikornio handia (*Cerambyx cerdo*) koleoptero saproxiliko bat da, eta EAEn duen habitat naturala bat dator arbolak kontserbatzen dituzten *Quercus* generokoen baso helduekin (*Quercus robur*, *Q. faginea*, *Q. pyrenaica*, etab.). Espeziearen errekerimendu ekologikoak direla eta, KBE/HBBEak bizigarritasun-ezaugarri onak ditu espezie honentzat.

Beste parametro batzuei dagokienez, ezezagunak zaizkigu haren kokapena eta guneko espeziearen populazio-mailak.

KBE/HBBEko etorkizuneko perspektibei dagokienez, ontzat hartzen dira, betiere, *Quercus* generoko zuhaitz urtetsuen aleak kontserbatzen badira.

EB 1088 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala				X

Arkanbelea (*Lucanus cervus*) - 1083

Arkanbelea (*Lucanus cervus*) ere *Quercus* generoko basoei lotua dago (*Quercus robur*, *Q. faginea*, etc.), baina zuhaitz- nahiz zuhaixka-formako espezieez osatutako edozein motatako baso misto hostogalkor ere koloniza dezake: gaztainondoak (*Castanea sativa*), pagoak (*Fagus sylvatica*), lizarrak (*Fraxinus excelsior*), etab. Espezie hau ez da *Cerambyx cerdo* bezain selektiboa. Aldekotzat baloratzen da KBE/HBBEko espeziearen habitat potentziala.

Aurreko intsektuaren kasuan bezalaxe, ezezagunak zaizkigu Natura 2000 gunean dituen kokapena eta populazio-mailak. Soilik Toloño mendilerroaren ipar-isurialdeko pagadietan, Pipaon inguruan, egiten zaio aipamenei bat.

Bestalde, etorkizuneko perspektibak ontzat hartzen dira, haren habitataren ezaugarriak kontserbatzen badira behintzat: zuhaitz urtetsuen babes eta deskonposizio-bidean den zur lodia presentzia.

EB 1083 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala				X

Zingira-dontzeila (*Euphydryas aurinia*) - 1065

Zingira-dontzeila (*Euphydryas aurinia*) basoko lepidoptero bat da, ongi kontserbatutako oihanpeak, lianatan aberatsak (haietatik elikatzen da larba-aldian), bizileku dituen. Ontzat hartu da KBE/HBBEan duen habitata.

Natura 2000 guneko *Euphydryas auriniaren* kokapenari eta populazioari dagokienez, gaur egun ia ez dago haiei buruzko informaziorik, eta, ondorioz, ezin da baloratu.

Gune hauek espezieetan aberatsak diren oihanpeetan izaten dituzten arren, haien kokapenari eta populazio-mailei buruzko informaziorik ez dagoenez, tximeleta honek gune honetan dituen etorkizuneko perspektibak ezin dira zehaztu.

EB 1065 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Tximeleta ijtoa (*Callimorpha quadripunctaria*) - 1078

Tximeleta ijtoa ere basoko lepidoptero bat da, nagusiki ingurune hezei (ibar-basoak, bazkalekuak eta leku humanizatuak), beldarrek elikagai dituzten asunak eta beste landare-espezie batzuk dituztenei, lotutakoa. Hala, KBE/HBBEko habitataren ezaugarriak espeziarentzat onak direla uste da.

Guneetako bere kokapenari eta populazioari dagokienez, ia ez dago informaziorik, eta, beraz, ezin da horien baloraziorik egin.

Hortaz, aurrez aipatu bezala gune hauek espezieetan aberatsa den oihanpea duten arren, ezin izan dira guneetako tximeleta honen etorkizuneko perspektibak baloratu.

EB 1078 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Zapelaitz liztorjalea (*Pernis apivorus*) – A072

Basoko harrapari bat da, soilgune handiak dituzten baso hostogalkorrei lotua (batez ere pagadiak eta hariztiak), baina gaztainondo, urki, pinu gorri, arte edo ibai-sastrakadiz osatutako basoetan ere aipatu da. KBE/HBBEan, espeziearentzako habitat potentzialaren kontserbazio-egoera ona dela uste da. Azterketa-eremuan udako espezie bat da, baina banakako batzuk edo talde txiki batzuk ere igarotzen dira uda-amaieran.

Hegazti honen presentzia txikia baina egonkorra da, eta ez dakigu zehazki zenbat ugalketa-bikote dituen, baina badirudi KBE/HBBE osatzen duten mendilerroetan ugaltzen dela; eremu zabalean agertzen da bertan, eta guneeetan duen kokapena ontzat hartzen da.

Hala, gune honetako zapelaitz liztorjalearen ugalketa-populazioaren etorkizuneko perspektibak onak direla uste da, betiere, espeziearen ugalketa- eta larreratzeko-habitataren egoera kontserbatzen bada.

EB A072 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Miru gorria (*Milvus milvus*) – A074

Basoko hegaztia, filopatrikoa. Hegazti hau habiak egiteko eta elikatzeko substratuak dauden lekuetan egoten da (lotura du simaurtegien, abeltegien, zabortegien, abeltzaintza estentsiboaren eta abarren presentziarekin). Gunean, habitata eta kokapena espeziearentzat egokiak direla uste da.

KBE/HBBEan espezie sedentarioa da, baina askotan ikusten dira pasaeran edo migrazioan diren banakakoen kontzentrazioak, eta negutarrak ez dira horrenbeste. Ugalketarako egungo populazio-datuak 3-5 bikote artean dabilta; beraz, guneeetako populazioa ona da, baita kokapena ere.

Iberiar penintsulako populazioaren gaineko mehatxu nagusiak harrapakariak legez kanpo kontrolatzeko pozoinen erabilerari, linea elektrikoetako elektrokuzioari eta zabortegi eta simaurtegien itxierari lotuta daude. Ildo horretan, Arabako hegoaldeko mendilerroetan ia ez da miru gorriaren populazioarenganako afekziorik erregistratu. Hala ere, Arabako Lurralde Historikoan, ugalketa-populazioaren joera ez da oso ona; beraz, etorkizuneko perspektibak ezezagunak dira.

EB A074 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala	X			

Arrano sugezalea (*Circaetus gallicus*) – A080

Basoko harraparia, artadie, artelatz-basoei eta, neurri txikiagoan, hariztiei eta pagadiei lotua, betiere, gune irekiak badituzte, larreratzeko eremu gisa erabiltzen baitituzte (Mañosa, 2003). Errekerimendu ekologiko hauek direla eta, KBE/HBBEko espeziearen habitat potentziala ona dela uste da.

Guneak osatzen dituzten mendilerroetan udako ugalketa-hegazti bat aipatzen da sei bat lurraldetan. Migrazio-paseetan gutxi erregistratzen dira. Beraz, haren kokapena ontzat hartzen da.

Arrano honek Estatuan dituen mehatxu nagusiak honako hauek dira: linea elektrikoetako elektrokuzioa, nekazaritza-guneetako narrasti-populazioen murrizketa eta sastrakadiaren okupazioa haren larreratze-guneetan. KBE/HBBEan ez da inolako gorabehera aipagarrikerregistratu espezie honentzat; beraz, gunetako etorkizuneko perspektibak onak direla uste da.

EB A080 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Aztoarea (*Accipiter gentilis*) – A085

Penintsulako lurralde osoan hedatzen den basoko espezie bat da, nagusiki mendiko gune oihantsuei lotua, baina baita nekazaritzari lotuago dauden eremuei ere. Portilla, Toloño, Kodes eta Lokiz mendilerroetan, eta Cabrera mendian, bertako habitataren ezaugarriak ontzat hartzen dira eguneko harrapariarentzat.

Natura Sareko bi gune hauetan kokapen zabala du hegazti honek, nahiz eta ezezagunak zaizkigun haren populazio-mailak.

Aztoarearen penintsulako populazioak dituen mehatxu nagusiak honako hauek dira: elektrokuzioa, organokloratuen ondoriozko kutsadura, isileko ehiza eta piroen espoliazioa, eta baso-sailen ustiapen desegokia. KBE/HBBEan ia ez da afekziorik aipatzen; beraz, haren etorkizuneko perspektibak ontzat hartzen dira.

EB A085 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Arrano txikia (*Hieraetus pennatus*) – A092

Bereziki basokoa den hegazti bat da, eta soilgune eta gune irekiekin tartekatutako formazio oihantsuetan agertzen da (pinudiak, pagadiak, hariztiak, etab.). Errekerimendu ekologiko hauek direla eta, gunetako espeziearen habitat potentziala ona da.

KBE/HBBEan udako ugalketa-hegazti bat da, baina ez dakigu ugalketa-bikoteen kopurua zenbatekoa den. Migrazio-paseko gutxi batzuk ere erregistratzen dira.

Kokapen zabaleko hegazti bat da, lau mendilerroetan agertzen dena (Lokiz, Kodes, Toloño eta Portilla), baita Cabrera mendian ere. Beraz, gunean duen kokapena ona da.

Oro har, arrano honentzat aipatutako mehatxu nagusiak honako hauek dira: formazio oihantsuen desegitea eta degradazioa, isileko ehiza, habien espoliazioa, linea elektrikoekin talka egitea eta ugalketa-garaiko eragozpenak. Arabako hegoaldeko mendilerroetan ez da espeziearentzako afekzio nabarmenik aipatzen, eta etorkizuneko perspektiba onak dituela uste da.

EB A092 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Okil beltza (*Dryocopus martius*) – A236

Baso heldu hezeei lotutako espeziea, batez ere pagadi eta pinudiei (*Pinus sylvestris* eta *P. nigra*), baina baita harizti, amezti eta bestelakoei ere. Zenbait autorek koniferoen hautaketa positibo bat adierazten dute elikadura-substratu gisa. Habiak egiteko, aldiz, tamaina handikoak diren eta adarrik gabeko enborra duten pagoak hautatzen ditu nagusiki. KBE/HBBEko espeziearen habitat potentziala ona dela zehaztu da.

Iberiar penintsulan bi azpipopulazio disjuntu deskribatu dira: bata Pirinioetan eta bestea Kantabriar mendikatean. Hala ere, egin berri diren ikerketen arabera, bi populazio horiek lotzen dituen gunean, EAEn, finkatuta dago espeziea.

KBE/HBBEan soilik Lokiz mendilerroan aipatzen da, nahiz eta egindako laginketetan ez zen haren presentzia egiaztatu; aurretiko zantzu batzuk eta pizido honi egotz dakioken zuloren bat besterik ez zegoen. Hala, ezin dira baloratu gunean duen kokapena eta populazio-mailak.

Etorkizuneko perspektibak ezezaguntzat baloratzen dira, KBE/HBBEko espezieari buruzko informazio gehiago lortzeko zain.

EB A236 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Okil ertaina (*Dendrocopos medius*) – A238

Okil ertaina Europako eta Ekialde Hurbileko klima kontinental bero eta epeleko guneetan dago, eta Iberiar penintsularen iparraldea du munduko kokalekurik hegomendebaldekoena.

Baso hostogalkor helduei lotua dago, eta elikadura-substratu gisa nagusiki *Quercus* hostogalkorren, *Fagus sylvaticaren* eta *Populus trémularen* ale biziak hautatzen ditu, 36 cm-tik gorako diametrodunak. Bestalde, habiak egiteko zuhaitz guztiak 18 cm-tik gorako diametroa duten *Quercus* ale hostogalkorrek dira, biziak zein erdi hilak edo hilak, bikote bakoitzeko 10-40 ha-ko okupazio-azalarekin. Hala, okil ertainaren habitata ontzat baloratzen da.

Gunean duen kokapenari dagokionez, Lokiz mendilerrotik hasi eta Toloño mendilerroko Montoriako sakanetaraino hedatzen da; beraz, kokapena ontzat hartzen da.

Populazio-mailei dagokienez, gaur egun ez dira ezagutzen, ezta Natura 2000 Sareko bi gune hauen etorkizuneko perspektibak ere.

EB A238 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Okil txikia (*Dendrocopos minor*) – A240

Okil txikia espezie paleartiko bat da, Iberiar penintsulan kokapen etena duena, hiru gune nagusirekin: bat mendebaldeko sistema zentrolean, beste bat ipar-ekialdeko sektorean eta hirugarren bat EAEn, Nafarroan eta Errioxan.

Deskonposatzen ari den zur hil askoko baso hostogalkor helduetan egoten da. KBE/HBBEko espeziearen habitat potentzialaren egoera ona da.

Gunean duen kokapena zabala da (batez ere pagadi eta hariztietan topatzen da); beraz, ontzat hartzen da.

Bestalde, ez dakigu guneako espeziaren populazioa zenbatekoa den eta etorkizuneko zer perspektiba dituen.

EB A240 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Bechstein saguzarra (*Myotis bechsteinii*) - 1323

Gutziz basoetan ibiltzen den kiropteroa, batez ere bailara-hondoetako baso hostogalkorre lotua (gehienbat *Quercus robur* eta *Quercus pyrenaica*).

Ugalketa-koloniak hilzorian edo zahartuta dauden zuhaitzen zuloetan kokatzen dira (nagusiki pizidoek eraikiak), baina habia-kaxa artifizialetan ere egiten dute beren txokoa. Bestalde, ar sedentarioak mota guztietako zuloetan (adar hiletako zartadurak, etab.) babesten dira.

Larreratze-eremua 5-10 ha inguruko azalera batean kontzentratzen da, batzuk besteekin gainjartzera heldzeraino, eta behar-beharrezkoak ditu ur-masak. Hortaz, guneetako espeziearen habitat potentziala ontzat hartzen da.

Hazkuntza-koloniak talde sozial itxiak dira, etengabe banantzen eta berriro taldekatzen diren eme ahaidetuek osatutakoak, eta beren artean hurbil dauden zenbait aterpe har ditzakete aldi berean. KBE/HBBEan ez dakigu zehazki zenbat dauden, baina badakigu guneako hainbat puntutan daudela; Montoriako mendi inguruetan eta San León II haitzulo inguruan, besteak beste.

Ezezagunak zaizkigu guneetako espeziearen etorkizuneko perspektibak.

EB 1323 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Saguzar biboteduna (*Myotis mystacinus*) - 1330

Gutziz basoetan ibiltzen den espezie hau baso-sail trinkoko mendiguneetan kokatzen da; batez ere zuhaitz hostotsuen baso helduetan (pagadietan nagusiki, baina baita koniferoetan ere). Udan zuhaitzen zuloetan, habia-kaxetan, arroka-zartaduretan edo teilatupeetan babesten da. Neguan, aldiz, nahiago ditu haitzulo hezeak eta zubipeko zuloak. Hala, guneko espeziearen habitat potentzialaren kalitatea ontzat hartzen da.

Ezezagunak zaizkigu guneko espeziearen populazio-mailak eta etorkizuneko perspektibak.

Haren kokapena ontzat hartzen da; nagusiki Toloño mendilerroaren hegoaldeko sektorean kokatzen da.

EB 1330 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Daubenton saguzarra (*Myotis daubentonii*) - 1314

Ubide edo ur-masei lotua (urmaelak, ibaiak, errekek, etab.). Daubenton saguzarrak hainbat aterpe hartzen ditu; zuhaitzak eta arroketako, zubietako zein haitzuloetako pitzadurak, besteak beste. Arabako hegoaldeko mendilerroetako espeziearen habitat potentziala ontzat hartzen da.

KBE/HBBEko ohiko espezie bat da, eta haren kokapena ontzat hartzen da.

Guneetan espezie hau ohikoa den arren, ez dakigu zenbateko populazioa duen eta etorkizuneko zer perspektiba dituen.

EB 1314 kod.	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Natterer saguzarra (*Myotis nattereri*) - 1322

Saguzar hau hainbat biotopori lotua dago; gune basotsu itxietatik hasi eta landaredi zuhaizkara urriko leku irekiagoetan ere aurki daiteke, betiere, kontserbazio-egoera onean badaude; zuhaitz-sail zabalarekin (bereziki, hostogalkorrek) eta erriberako behar adina landaredirekin. Aterpe gisa haitzuloak, meatzeak, tunelak, zuhaitzen zuloak, hausturak edo zubiak hartzen dituzte. Ontzat hartzen da naturgune babestu honetako espeziearen habitat potentziala.

Gaur egun ez ditugu bere populazio-mailak ezagutzen, baina badakigu Toloño mendilerroko hainbat inguruetan ibiltzen dela (Urizaharran eta Kripanen, besteak beste), baita Lokiz eta Kodes mendilerroen inguruetan ere. Beraz, guneetako bere kokapena ontzat hartzen da.

Etorkizuneko perspektibak ere ezin izan dira ebaluatu, informazio-faltarengatik.

EB 1322 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Gau-saguzar txikia (*Nyctalus leisleri*) - 1331

Basoetan ibili ohi den espezie hau batez ere zuhaitz hostotsuez eta koniferez osatutako eta orografia irregularreko basoetan bizi da, baina parkeetan eta hiriguneetan ere topatzen da. Zuhaitzetako zuloetan babesten da, baina baita habia-kaxa zein eraikinetan ere, eta gune irekiekin tartekatutako gune basotsuak ditu larreratzeko eremutat. Gune habitata ona da beretzat.

Guneetan ongi kokatutako espezie bat da; gune mendilerro guztietan ageri da. Nolanahi ere, ohikotzat hartzen den arren, ez dakigu zenbateko populazioa duen.

Informazio-eza dela eta, ezin izan dira ebaluatu etorkizuneko perspektibak.

EB 1331 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Gau-saguzarra (*Nyctalus noctula*) - 1312

Basoko saguzar hau zuhaitzetako zuloetan babestu ohi da urte osoan zehar, baina babes-kaxatan edo hormetako, eraikinetako zein zubietako zartaduretan ere topa daiteke. Gune irekietan larreratzen da (baso-ertzetan edo parkeetan), betiere, ehizarako ur-puntuen inguruan.

KBE/HBBEan Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Informazio Sistemaren bidez bakarrik dugu haren berri, eta ez dakigu zer egoera duen, zer kokapen, etab. Beraz, ezin dugu espezie honek gune hauetan duen egoera ebaluatu.

EB 1312 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata				X
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Gau-saguzar handia (*Nyctalus lasiopterus*) - 1328

Gau-saguzar handia Iberiar penintsula osoan zabaltzen da, baina kokaleku etenak ditu, ziur aski, habitataren errekerimenduengatik edo prospekzio zehatzago baten behararengatik. Andaluzia mendebaldean, Extremadura iparraldean eta Gaztela eta Leon hegoaldean, Kantabrian, Asturiasen, Errioxan, Nafarroan eta EAEn topa daiteke. EAEn ez da asko ikusten espezie hau; Toloño mendilerroan eta inguruan, baita Kodes mendilerroan ere. Guneetan duen kokapena ontzat hartzen da, baina, gau-saguzar honi buruzko informazio gutxi dugunez, ezin dugu haren populazioari eta etorkizuneko perspektibei buruzko baloraziorik egin.

Baso hostogalkor helduei lotutako espezie bat da (normalean, pagadiak eta hariztiak).

Zuhaitz zaharretan topatzen dituen zuloetan babesten da, baina baita habia-kaxatan, etxeetan eta arroketako pitzaduretan ere. Larreratze-eremu oso zabalak ditu, baita bere babeslekuetatik 25 km-ra ere. Beraz, daukan habitata ontzat hartzen da.

EB 1328 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Baso-saguzarra (*Barbastella barbastellus*) - 1308

Mendiguneei lotutako basoko kiroptero bat da, eta ongi kontserbatutako sail helduetan jartzen ditu hazkuntza-koloniak, zuhaitzen azal soltearen azpian (batez ere pago zaharretan edo hiltzeko zorian daudenetan). Habia-kaxetan, haitzuloetan eta eraikinetako pitzaduretan ere aurkitu dira hazkuntza-koloniak. Lurpeko babeslekuetan hibernatzen du; haitzuloetan, bunkerretan, tuneletan eta sotoetan, besteak beste. Arabako hegoaldeko mendilerroetako habitata espeziearentzat ona dela uste da.

Guneetan zehar ongi kokatutako espezie bat da. Nolanahi ere, Toloño mendilerroan, maizago ikusten da iparraldeko isurialdean.

Ez dakigu KBE/HBBEan zenbat dauden, eta ezezagunak zaizkigu espezieak gune hauetan dituen etorkizuneko perspektibak.

EB 1308 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Ipar belarrihandia (*Plecotus auritus*) - 1326

Habitat-dibertsitateari lotutako basoko kiropteroa. Batez ere baso hostogalkorrak hautatzen ditu larreratzeko eta ehizarako. Zuhaitzietatik hurbil dauden eraikinetako teilatu eta ganbarak hartzen ditu, baita zuhaitzetako zuloak edo habi-kaxak ere. Neguan batez ere haitzuloak eta meatzeak hautatzen ditu, baina baita zuhaitzetako zuloak ere. Beraz, bere errekerimendu ekologikoetan oinarrituta, KBE/HBBEko habitata ona da espeziearentzat.

Arabako hegoaldeko mendilerroetako bere kokapena ontzat hartzen da; Lokizen eta Toloñon dago, gune hauetako populazio-mailak ezagutzen ez ditugun arren.

Guneko espeziearen etorkizuneko perspektibak ere ezin izan dira ebaluatu informazio-faltarengatik.

EB 1326 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Presioak eta mehatxuak

- Artzaintza ez intentsiboa (A04.02): etxeko ganaduaren zein basoko unglatuak belarjaletasunak nabarmen eragiten dio haginaren birsorkuntzari, eta baldintza garrantzitsua izan daiteke habitat honen bilakaerarako eta kontserbaziorako, baita mendihagaletako baso mistoetan (9180* habitata), pagadietan (9120 eta 9150 habitatetan) edo bestelako baso-formazio batzuetan espeziearen presentzia izateko ere.
- Bioziden, hormonon eta produktu kimikoen erabilera (A07): baso-sailei erantsitako nekazaritza-laborantzetan biozidak eta produktu kimikoak erabiltzeak eragiten du presio hau, eta batez ere gune hauek elikatzeko eremu gisa erabiltzen dituzten basoko kiropteroen populazioari eragiten die.
- Landa irekiko baso-sartzea (B01): mehatxu positibo bat da, batez ere 9180*, 9580*, 9120 eta 9160 BIHei zuzendua. Izan ere, energia-iturri gisa egurra eta ikatza erabiltzetik erregai fosilak erabiltzera igarotzeak habitat hauen gaineko presioa nabarmen txikitzea ekarri du. Hala, egitura eta dibertsitatea aberastu egin dira pixka bat, hariztien kasuan batez ere.
- Basoen eta sailen kudeaketa (B02): kokaleku dituzten guneetako baso-kudeaketa oso garrantzitsua da, ia erabakigarria, eta, beraz, gune horiek baso naturalen modura orientatu eta tratatu beharko lirake, haien egituraren eta dibertsitatearen konplexutasuna areagotzen saiatuz, baso-sailei aplikatu ohi zaizkien erazketa-helburuekin baino.
- Oihanpea kentzea (B02.03): *Euphydryas aurinia* eta *Callimorpha quadripunctaria* basalepidopteroen kasuan, orla arantzatsuak eta oihanpea kentzea da, bereziki, mehatxu nagusietako bat.
- Zuhaitz hilak edo kaltetuak kentzea (B02.04): faunaren kasuan, mehatxu nagusiak basoetan egur hil gutxi izatean datzate.
- Baso-garbiketak (B02.06): batez ere hagin-sailei zuzendutako mehatxua, izan ere, hazteko denbora asko behar dutenez, epe luzera basoko zenbait jarduketek kaltetu ditzakete (beste zuhaitz-formazio batzuetan positiboak direnak edo kaltegarriak ez direnak).
- Bioziden, hormonon eta produktu kimikoen erabilera (basogintza) (B04): intsektu-izurrien aurkako aplikazioetan espektro zabala duten konposatu kimikoak erabiltzea da erregistratutako beste mehatxu faktoreetako bat, batez ere intsektu saproxilikoak, basoko pizidoen eta kiropteroen populazioarentzat.
- Energia berriztagarri abiotikoen erabilera (C03): honelako espezieentzako mehatxu bat izan daiteke azpiegitura handiak eraikitzea, flora-espezieentzat batez ere.
- Bidezidorrak, pistak, bizikletentzako bideak (D01.01): flora-espezieen kasuan, askotariko erabileren ondoriozko arrisku-faktoreak daude (pistak eta ibilgailuen zirkulazioa), bai zuzenak bai zeharkakoak.
- Linea elektrikoak eta linea telefonikoak (D02.01): presio positibo bat da, izan ere, 2004an, Araban Bonelli arranoa berreskuratzeko LIFE-Natura proiektuaren bidez, HBBEko linea elektrikoak zuzendu ziren, 30 km baino gehiagoan, Haro-Gatzaga, Santurde-Bergantzu, Pipaon-Loza, Urizaharra-Ocio lineatan eta Herrerako errepikagailuen inguruetan.
- Zanpaketa, gehiegizko erabilera (G05.01): ingurune hauen erabilera publikoa asko hazi da azken urteetan (xendazaletasuna batez ere), eta, ondorioz, antzinako bidezidorren

zabalera handitu egin da, biderkatu egin dira zenbait puntutan, eta zanpatutako guneak agertu dira, Lagrango portutik Cruz del Castilloraino igotzen den eta KBE/HBBEan katalogatutako hagin-sail bakarrari eragiten dion bidezidorrean ikusi den bezala.

-. Suteak (J01.01): babestutako gune natural honetan eragindako hainbat sute gertatu dira, eta horrek BIH-galera nabaria, higadura-prozesuen hazkundera eta flora- eta fauna-populazioaren gaineko kalteak dakartza.

-. Hidrologia orokorreko aldaketak (J02.05): nagusiki *Geum rivale* populazioari zuzendutako mehatxu bat da; izan ere, dagoen populazio oso txikia kontserbatzeko, lehen begirada batez antzematen zailak diren faktoreen zeharkako ekintzak nabarmen kaltetu lezakeen mikrohabitat bat izatea dakar. Garbi dago espezie honek eta bere kokalekuak ingurumen- eta lurzoru-hezetasuna behar dutela. Beraz, lehenik, urak lurraldeko puntu honetara isurtzen dituen arro osoko fluxu hidrikoetan aldaketak izatea saihestu behar da, mendi-hegalaren goiko aldean kokatutako labore eta pistei eragiten zaizkien ondorioei arreta berezia jarrita, baita fluxu horiek eten, aldatu edo desbideratu ditzaketan tokiko erliebearen edo infiltrazioaren alderdi hauen edo beste batzuen aldaketei ere.

-. Ekosistemen beste aldaketa batzuk (J03): kiropteroen kasuan, aurreko mehatxuei ur-masa edo -puntu egokien urritasuna gehitzen zaie (eme bular-emaileentzat batez ere).

-. Habitaten konektibitatea murriztea, kausa antropogenikoengatik (J03.02): batez ere Urizaharrako hariztian; izan ere, handiak dira bertako zatiketa-prozesuak eta ertz-efektua, laborantza-eremuz inguratuta. Energia altuko muga asimetrico bat egiten du, eta horrek areagotu egiten ditu elementuen sarrera-fluxuak (espezieak eta beste material batzuk), produktibitate handiko jatorritik (laborantzak) produktibitate txikienerako irlaraino (basoa), ertz-efektuaren ondorio kaltegarriak gogortuz eta biderkatuz (lehorketa, espezialisten galera, espezie generalisten sarrera, etab.).

-. Higadura (K01.01): malda handiko guneetan, higadura-prozesuek zuhaitz enblematikoen oinarriak babesgarririk gabe geratzea dakarte, Kodes mendilerroko La Dormida sakaneko hagin handi batzuekin gertatzen den bezala.

-. Ugalkortasuna murriztea/aldakortasun genetikoa txikitzea (K05): multzo honetako flora-espezieek kokapen-eremu murrizak dituzte, askotan penintsulako eremuen mugan, ale gutxiko populazioak dituzte, horietako batzuentzako ugalketa-mugekin, eta denak ere kokaleku bakoitzeko berezko arriskuen eta arrisku puntualen aurrean jar ditzaketan tokiko baldintzatzaileekin.

Baldintzatzaileak

Haginadien eta mendi-hegaletako eta lur-jausietako baso-habitaten kasuan, interes eta garrantzi handia dute basoaren elementu egituratzaile gisa, eta dibertsitate-, konektibitate- eta heterogeneotasun-gune gisa. Halaber, Toloño mendilerroan daude 9180* habitataren EAEko ordezkaritza hoberenetako batzuk.

Nabarmentzekoa da Urizaharrako hariztiaren garrantzia ere; bertan aipatzen da *Geum rivale* espeziearen Arabako populazio bakarraren presentzia, eta horrek areagotu egiten du bere interesa eta prebentzio-beharra, isolamenduaren ondoriozko degradazioaren, urban-tamainaren eta ertz-efektuaren aurrean, bere egitura eta orlak indartuz. Garrantzitsua da kiroptero-komunitate handi bat duelako ere.

Toloño mendilerroko pagadi batzuetan ugaltzen dira Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan "kaltebera" gisa katalogatutako *Cardamine heptaphylla* espeziearen populazio urriak, puntu hau beren kokapen-muga mendebaldekoena dutenak.

Beste baldintzatzaile positibo bat da onartu berri dela LIFE BONELLI proiektua (LIFE +

Integral recovery of Bonelli's eagle population in Spain); Arabako Foru Aldundia da onuraduna, Estatuko beste administrazio batzuekin batera, eta proiektu horretan barne hartzen da lineak zuzentzea, harrapakin-populazioa indartzea, etab. Ekintza hauek, zeharka, mesede egiten diote HBBEaren esparruko basa-harraparien populazioari.

2. KE.- Larreak

Kontserbazio-egoera

Belardi lehor erdinaturalak -6210(*)

Tamaina ertaineko hainbat gramineo-espezie nagusi dituzten bazkaleku mesofiloak, trinko samarrak, oinarrizkoak eta nahiko sakonak diren substratuen gainean garatzen direnak. Horien artean, sasi-mosaikoak garatu ohi dira, irekiagoak zein ez hain irekiak, jasaten duten abeltzaintza-presioaren arabera. Ingurune hauek urte batzuetako egonkortasuna behar dute beren flora-potentziala egoera hobereenera iristeko, eta, kasu honetan bereziki, orkidea-aberastasunak eta -ugaritasunak islatzen du hori.

Ez dugu ongi ezagutzen hartutako azalera, alde batetik, kartografiatutako poligonoek ez baitaukate orkidearik barruan, eta, bestetik, 6210 Batasunaren Intereseko Habitategian (ez da lehentasuneko) barne hartutako beste batzuek orkidea dezente baitaukate.

Komunitate hauen egitura ongi mantentzen da, oro har, nahiz eta aldatu egiten den bazkalekuaren bilakaera-egoeraren arabera, bertako sastrakadien ezaugarrien arabera (normalean, 4090 habitategoak); sastrakadi hauek, abeltzaintza-presioa gutxitzearen ondorioz, komunitate horien egitura kolonizatzen hasi dira, haren osieran eta flora-dibertsitatean eraginez.

Egiturearekin oso lotura estua duten beren funtzioek, oro har, kontserbazio-egoera ona dute, batez ere lurzuaren babesari dagokionez. Ez dirudi sastrakadi kolonizatzaileen presentziak arazorik dakarrenik, proportzio nabarmenetara iristen ez diren bitartean; hala gertatuz gero, belar-komunitateen osaera espezifikoak eta dentsitatea aldatzen hasiko lirateke, eta, orduan, galdu egingo lituzkete bazkaleku gisa dituzten funtzio bereizgarriak.

Zaila da komunitate hauen etorkizuneko perspektibak zehaztea, izan ere, beren bilakaera aurkako bi indarren artean dago: alde batetik, basoaren eta gune hauek kolonizatze joera duen landaredi naturalaren presioa, eta, bestetik, abeltzaintza-presioa, bazkalekua irekita mantentzen duena; hala, bere intentsitateak eta aprobetxamendu-garaiak habitataren bilakaera baldintzatuko du, haren azalera mantenduz edo murriztuz, baina baita bertako flora-dibertsitatea ere, eta, besteak beste, orkideen presentzia handiagoa edo txikiagoa (dirudienez, orkideen bizitza-zikloen arteko harreman zuzenaren, larrearen aprobetxamendu-garaien eta abelburu-kopuruaren menpe daude).

EB 6210(*) kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Egitura eta funtzio espezifikoak	X			
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Bazkaleku azpiestepikoak -6220*

Nahiko barbanak diren bazkalekuak, urteroko gramineoak eta zenbait bizikor normalean oinarritzakoak izaten diren lurzoruak hartzen dituzten mulu txikiekin nahasita dituztenak (askotan gutxi egituratutakoak eta gainaldea moztuta dutenak), klima epel eta lehorretakoak. Udan garatzen diren komunitate iragankorrak izaten dira askotan, prezipitazioen erregimenak eta bolumenak asko baldintzatzen dituenak; horregatik, estaldura eta tamaina txikia izan arren, askotariko komunitateak osatzen dituzte, eta espezie interesgarriak (batzuk endemikoak) agertzen dira bertan.

KBE/HBBEan Toloño mendilerroko mendigunearen hegoaldeko eta mendebaldeko ertzetan aurkitzen da gehienbat, baita Portilla mendilerroan eta Cabrera mendian ere; azken hauetan, kontaktuan dago ingurune askoz ere mediterraneoagoekin. Bestalde, Kodes eta Lokiz mendilerroetan ale gutxi batzuk besterik ez dira ageri, bere eremu biogeografikotik kanpo baitago ia.

Belardi hauek hartzen duten azalera ontzat jotzen da, duen hedadurarengatik eta babestutako guneetatik (bereziki, Arabar Errioxa osotik –bertako paisaiaren elementu erabakigarrietako bat da–) hurbil dagoen ingurunean habitat honek hartzen dituen gune zabalekin kontaktu zuzena duelako.

Era berean, egitura eta funtzioak egoera bikainean daude, periferiako gune hauek guztiak baldintza biogeografiko oso egokietan baitaude.

Etorkizuneko perspektibek, epe luzera, aldaketa klimatikoaren prozesuen ondoriozko berotze handiagoak eta prezipitazio txikiagoak on egiten dien komunitate hauen presentzia areagotzeko joera probable bat adierazten dute.

EB 6220* kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikoak	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Nardus espezieko belar-formazioak -6230*

Gramineoak nagusi dituzten mendiko larrediak, artzaintzarekiko mendetako egokitzapenaren ondorioz belardi trinko eta beteak osatzen dituztenak.

Ingurune freskoetan garatzen dira, normalean lurzoru azidoen, nahiko sakonen eta materia organiko aldetik aberatsen gainean, eta batez ere Toloñoko mendigunearen zona altuenetan kokatzen dira.

KBE/HBBEaren barruan habitat honek hartzen duen azalera txikia da, eta, hedadura aldetik nahiko egonkortzat jotzen den arren, ezezaguntzat hartzen da, kartografia egiterakoan detektatutako zenbait interpretazio-desberdintasun direla eta, batez ere habitataren hainbat azpimotaren apreziazioari dagokionez (Ihobe, 2012a).

Irizpide-desberdintasun hauek zaildu egiten dute egitura bat eta funtzio bereizgarri batzuk zehaztea, nahiz eta, kasu honetan, larre hauen osaerari eta erabilerei lotutako dentsitateak eta homogeneotasunak egituraren egoera ona dela eta bere funtzio ekologikoak behar bezala betetzen dituela iradokitzen duten.

Etorkizuneko perspektibek, KBE/HBBE osoan, azalera galtzeko joera bat agertzen dute aurreko garaiekiko, eremu hauetako askotako abeltzaintza-presioaren jaitsieraren ondorioz, inguruko zuhaitz-formazio nagusien sastrakadi serialek hartuko baitituzte pixkanaka, eta horrek dibertsitatea galtzea eta beren funtzioen gauzapena murriztea ekarriko du. Horregatik, alderdi hau desegokitzat hartzen da. Toloño mendilerroan egoera

hobexegoa den arren, larre hauen hedadura tokiko abeltzaintzarentzako baliabide garrantzitsu bat denez, ez dirudi abeltzaintza-aprobetxamendua uztearen ondorioz komunitate hauek erraz edo, behintzat, berehala degradatuko direnik.

EB 6230* kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Egitura eta funtzio espezifikak	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Dactylorhiza sulphurea

Oinarrizko lurzoruen gaineko ingurune hezeetako artadi- eta erkamezti-soilguneetan bizi den orkidea, gune mediterraneoak nahiago dituena.

Bere kokapen-eremu naturala penintsularen mendebaldeko erdian zabaltzen da, ekialderantz sakabanatutako populazioekin; horietako bat Errioxa mendebaldean eta Araba hegoaldean kokatzen da, eta Lokiz mendilerroan dagoen populazio bat bakarrik ezagutzen da bertan. Bere «erreferentzia oneko kokapen-eremua» murriztu ez denez, eta, bere kokapen-eremuaren mugan egoera ezegonkorra duen arren, alderdi hau ontzat katalogatu da.

Ezagutzen den populazio bakarra ale-kopuru txiki batek osatzen du, eta Lokiz mendilerroaren hegoaldeko garriga batean dago; bertan, populazio honen zati bat kaltetu zuen pista baten zabalkuntzak. Hala, populazioa urria denez, bere egoera desegokitzen hartzen da.

Espezie honek hartzen duen habitataren hedadura oso txikia da, eta horri bere kokapen biografikoa gehitzen badiogu (bere kokapen-eremuaren mugan dago), argi geratzen da guneko habitat egokia oso txikia dela. Hurbileko pista bat zabaltzeko obrek eragindako habitat galera eta pista honen presentziaren zeharkako ondorio posibleak kontuan hartuta, habitataren egoera desegokitzen hartu behar da gutxienez.

Espezie honen presentziari eusteko etorkizuneko perspektibak ere desegokiak dira aurrez aipatutako inguruabarrengatik: populazioaren tamaina txikia, mugako kokapen biogeografikoa eta hurbileko pista bat (alterazio-faktoreak jasateko arriskua areagotzen du), baita espezie honen bilketa ere.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Evaluación global		X		

Narcissus asturiensis -1865-

Iberiar penintsulako ipar-mendebaldeko koadranteko gune zabaletan kokatzen da espezie hau. KBE/HBBEan kokapen ona du, denean ageri baita, batez ere alderdi altuenetan, eta gehienbat Toloño mendilerroan.

Populazio zabalak ditu, eta horien habitatak (mediterraneoagoa da atlantikoa baino) baldintza onak ditu bere garapenerako eta kontserbaziorako.

Espeziearentzako etorkizuneko perspektibek ez dute mehatxu handirik azaltzen.

EB 1865 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Orchis italica

Mediterraneoko ohiko orkidea hau bazkaleku lehorretan eta abarizti edo erromerodietako soilguneetan bizi da, kareharri zein substratu silizeoen gainean.

Bere kokapen-eremua batez ere penintsularen hegoaldean eta mendebaldean eta Balear Uharteetan hedatzen da, baita iparraldeko eremu isolatu batzuetan ere; horietako bat Burgos, Errioxa eta Araba probintzien arteko kontaktu-eremu batean (azken honetan oso ale gutxi daude, bere kokapen-eremuaren muga).

Tokiko bere kokapen-eremua Conchas de Haro ingurua da, Toloño mendilerroaren baitan gehienbat; bertan, hartutako lurraldearen zati bat laborantzara eraldatu da, eta galdu egin du bere kokapen-eremuaren zati bat. Hortaz, txartzat kalifikatu behar da.

Arabako populazioa ale urriko toki oso gutxitan sakabanatuta dago, oso zatitua. Populazio-aleak, kokalekuak eta okupazio-eremuak galdu egin direla egiaztatu da, eta, beraz, irizpide hau desegokitzen hartzen da.

Bere kontserbaziorako faktore negatibotzat jotzen dira hartzen duen habitataren kalitate-galera eta hartutako hedaduraren galera ere. Beraz, habitata desegokitzen hartzen da.

Espezie honentzako etorkizuneko perspektibak, une honetan desegokiak direnak, hobetu egin litezke ezagutzen diren populazioetako batzuk (une honetan Natura 2000 Sarearen babesetik kanpo daudenak) babestutako guneetan barne hartuz gero.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea			X	
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala			X	

Iris latifolia

Metro erdiko altuera har dezakeen geofitoa, itsas mailan hasi eta mendi altuetan ere ager daitekeena, betiere, eguterako belardi eta larre irekietan. Kantabriako eta Pirinioetako mendietako endemismo bat da, penintsularen ia iparralde osoan ia kokapen-eremu jarraitua duena.

EAE presentzia-intentsitate txikiagoko gune bat da; kokaleku isolatu batzuk ditu kostaldean, eta beste batzuk barrualdeko mendietan. Hala, bi ingurune oso desberdin bereizten dira, garapen eta perspektiba desberdinekoak, izan ere, kostaldeko populazioek kokalekuak galdu dituzten arren, mendietakoek egonkor jarraitzen dutela dirudi. Beraz, guneetako bere kokapena ontzat hartzen da.

Badirudi Toloño mendilerroko populazioak, 1 km-ko lau UTM laukitan kokatzen denak, bere kokalekuak mantentzen dituela, baina «erreferentzia oneko kokapen-eremuaren» baliokidetzat hartu arren, irizpide honen balorazioa desegokitzen hartuko litzateke.

Hartzen duen habitata nagusiki iparralderantz orientatutako belardi megaforbikoko inguruneetan kokatzen da. Beti hala gertatzen ez den arren, populazio hauek guztiek dituzten kokalekuak bakantzat hartzen direnez, beren habitata ingurumenaren edo klimaren aldaketa txikiekiko sentikortzat eta, beraz, desegokitzat jotzen da.

Aurrez adierazitakoak aintzat hartuta, eta batez ere bere habitatak bakantzat hartzen direla kontuan hartuta, espezie honentzako etorkizuneko perspektibak desegokitzat hartu beharko lirateke.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Evaluación global		X		

Trollius europaeus

Iparraldeko mendi altuetako megaforbioen belardi hezeetako (ohikoak dira Pirinioetako mendigune nagusietan eta Kantabriar mendikatean, eta sistema iberikoaren eta zentralaren kota altuenetan) espezie berezia.

EAEn Gorobel, Aralar eta Toloño mendilerroetan kokatzen da, puntualki baina egonkor; beraz, beste megaforbio batzuentzat erabilitako arrazoi berberengatik, ontzat har daiteke guneetako bere kokapena.

Aintzat hartutako populazioa, antzaenez, «erreferentzia oneko kokapen-eremuaren» gainetik ez dauden zenbait alek osatzen dute; beraz, irizpide hau desegokitzat hartzen da.

Etorkizuneko perspektibei dagokienez, kasu honetan ere, mehatxu nagusia aurreikusi gabeko gertaerak eta tokiko klimaren aldaketak dira; populazioen gainean dituzten ondorioak oso lokalizatuak dira, eta ondorio kaltegarriak izan ditzakete.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Mirotz zuria (*Circus cyaneus*) – A082

Mirotz zuria lursail irekiei lotua dago; bazkalekuak, larreak, laborantzak eta lugorriak, zuhaitzi- eta sastrakadi-guneekin txandakatuta. Lurrean egin ohi du habia. KBE/HBBEko habitat potentziala ontzat baloratzen da espeziearentzat.

Gune honetan hazkuntzako zortzi eremu aipatzen dira; horietako hiru Lokiz mendilerroan eta bost Toloño mendilerroan. Pasokoak eta negutarrak ere erregistratzen dira.

Ontzat hartzen dira KBE/HBBEko espeziearen kokapena eta populazio-mailak.

Etorkizuneko perspektibak ere onak dira, betiere, habitata egoera horretan mantentzen bada.

EB A082 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Mirotz urdina (*Circus pygargus*) – A084

Udako espezie bat da, eta haren kokapena habiak egiteko habitata erabilgarri izateak baldintzatzen du: zerealen laborantza-guneak sastrakadi, txilardi, mendiko larre eta abarrekin txandakatuta. Ontzat hartzen da guneetako bere habitat potentziala.

KBE/HBBEan Lokiz mendilerroan kokatutako eremu bakar batean erregistratzen da, aldizka migrazio-paseetan ere aipatzen den arren. Ontzat hartzen dira guneetako espeziearen kokapena eta populazio-mailak.

Epe luzera ezin da zehaztu espeziearen etorkizuneko perspektiben balorazioa, izan ere, Iberiar penintsulan kontserbazio-egoera larria duen hegazti migratzaile bat da; azken urteetan populazio-beherakada nabarmena izan du, ziur aski, nekazaritza-sistemetak erabilera tradizionaletan izandako aldaketarengatik.

EB A084 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala	X			

Presioak eta mehatxuak

-. Nekazaritza-intentsifikazioa (A02.01): ingurune garbietako eta bazkalekuetako harraparien kasuan, nekazaritzako mekanizazioak eta intentsifikazioak habitatean eragindako aldaketak dira baldintzatzaile nagusiak. Halaber, honek igoera bat eragin dezake habiak desegitearen ondoriozko heriotza-tasan, lurtean egiten baitituzte habiak.

-. Laborantza-aldaketak (A02.02): azken urteetan hazi egin da nekazaritza-sailen erabilera aldatu eta mahastiak jartzeko eskaera-kopurua, eta horrek ingurune irekietako hegazti harrapariak habiak jartzeko eta/edo elikatzekeo habitatak galtzea eragin dezake, izan ere, honelako habitateetan murriztu egiten da harrapakinak eskura izateko aukera eta areagotu egiten da laborantza hauei loturiko azpiegiturekin (besora) talka egiteko arriskua.

-. Bazkalekuak moztea/soiltzea (A03): bazkalekuak moztearen edo soiltzearen ondoriozko komunitate naturalaren alterazioak aldatu egiten du bazkaleku hauetako espezie-osaera, eta interes handiko espezie asko lekuz aldarazten ditu.

-. Artzaintza-sistemak uztea, artzaintzarik eza (A04.03): 6210(*) habitateko larreak komunitate serialak dira, eta horientzat, abeltzaintza-zama jaisteak edo erabilera hau uzteak hainbat sastrakadi-motak pixkanaka bazkalekua inbaditzea dakarte, eta, ondorioz, nabarmen murriztuko lirateke belar-komunitatearen estaldura eta bertako flora-dibertsitatea. Halaber, neurrizko artzaintzak hobetu egiten du lurzoru oso pobreen emankortasuna, eta tokiko espezieen aberastasuna eta landare-estaldura susta ditzake; horrek, handitu egiten du lurraren higaduraren aurkako babesa eta prezipitazio-uren bilketa, eta hau alderdi garrantzitsua da haziak ernetzeko eta plantulak ezartzeko.

- Bioziden, hormonen eta produktu kimikoen erabilera (A07): ingurune irekietako harraparien larreratze- eta elikatze-eremuetan nagusiki, harrapakinak eskura izateko aukera murriztuz.

- Ongarrien erabilera (A08): lursaila aldatzen dute nitrogeno-ekarpen edo -zuzenketek ere, eta horrek alterazioak eragiten ditu belar-komunitatean.

- Baso-garbiketak (B02.06): presio positibo bat da funtsezko elementuen multzo honentzat. Kasu honetan, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua suteen prebentzio-arloan egiten ari den ekintzen eraginez, baso-zerrenda batzuk eta sastrakadi harrotuak sortu dira pista-sare baten inguruan, eta horrek material erregaiaren jarraitutasuna saihesten du eta 6210(*) bezalako BIHen agerpena sustatzen du.

- Hondakinak (E03): 6220* habitaten kasuan, urtearen zati handi batean izaten duten itxura apurkor, bakan eta lehorra dela eta, askotan, baliorik gabeko komunitatetzat hartzen dira, eta, biziguneetatik edo laborantzetatik hurbil daudenean, askotariko erabileretarako egokitzat ikusten dira (isurketetarako, materialak eta makinak gordetzeko, luberriketarako, etab.).

- Lurreko landareak biltzea eta kentzea, oro har (F04): orkideen kasurako, loreen ikusgarritasunagatik halako aleak biltzea izan daiteke baldintzatzaile nagusietako bat.

- Isileko ehiza (F05.04): ingurune irekietako harraparien populazioaren aurkako mehatxu nagusietako bat da.

- Suteak (J01.01): KBE/HBBEan eragindako sute asko izan dira, eta horrek BIH-galera nabarmena, higadura-prozesuetako hazkunde bat eta flora- eta fauna-populazioaren aurkako afekzioak dakartza.

- Habitaten konektibitatea murriztea, kausa antropogenikoengatik (J03.02): flora-espezieei dagokienez, baldintzatzaile nagusia beren kokapen-eremuen mugako populazio-kopurua eta populazio horien ale-kopurua mugatzea da. Hala, bereziki erasokorrek ez diren ingurune naturalaren gaineko erabilerek eta jarduketek arriskuan jar dezakete beren populazio batzuen iraunkortasuna, ale-kopuru txiki bat (baina, bere populazioaren kasuan, guztizkoari dagokionez portzentaje altu bat osatzen duena) kentzeagatik.

Baldintzatzaileak

Baldintzatzaileen artean, 6220* habitataren kasuan, nagusiki, KBE/HBBEaren zati handi batean nagusi diren klima- eta ingurune-baldintzak bazkaleku-komunitate hauentzat hoberenak izango liratekeenak baino freskoagoak eta hezeagoak dira. Beraz, Lokiz eta Kodes mendilerroetan eta Kantabria mendilerroaren barrualdean hondar-zoko batzuk dituzte; aldiz, indartsu agertzen dira Portilla mendilerroko eta Cabrera mendiko ingurune mediterraneo lehorrenetikiko mugetan, eta Arabar Errioxan eta Ebro ibaian gora igotzen diren eragin mediterraneo handiagoko lurretan.

3. KE.- Zohikaztegiak

Kontserbazio-egoera

Larre heze mediterraneoak – 6420 -

6420 habitataren azalera (ihitoki mediterraneoak) ezezaguntzat jotzen da, izan ere, normalean, eta batez ere mendiguneetan, habitat hau puntualki agertzen da, eta azalera oso txikiak hartzen ditu, ohiko errekerimendu kartografikoetatik oso behera daudenak; beste batzuetan, mosaikoak osatzen dituzte hainbat bazkaleku- edo sastrakadi-motarekin, eta horien artean izaten dira, askotan, 7230 habitateko ihitokiak.

Komunitate hauen egitura nahiko sinplea da, eta, alde batetik, uda pixka bat aurreratu bitartean irauten duen lurzoruko hezetasunak eta, bestetik, normalean bertan izaten diren eta bere itxura fisionomikoan eta flora-eraketan eta -osaeran nabarmen eragiten duten abeltzaintza-erabilerek zehazten dute.

Ihitoki hauen funtzio ekologiko garrantzitsuenek lurrazalaren azpian ura izatearekin eta ur horren zirkulazioarekin dute zerikusia. Udan leku fresko eta hezeak izaten dira, eta abeltzaintza hortaz baliatzen da, ihitoki horiek ireki eta ongarriz eta belar-estratu aberats baten presentzia ahalbidetuz. Hauek ere interes handiko puntuak dira ingurune hezeei lotutako anfibio eta intsektuentzat.

Funtzionalitate hau are garrantzitsuagoa egiten da habitata argiro ingurune mediterraneoetan kokatuta dagoenean, Arabar Errioxan, esaterako; bertako isurialdean dago honen azalerarik handiena.

Etorkizuneko perspektibak onak izango lirateke, betiere, gunearen babes-esparruaren barruan kudeaketa espezifiko bat izanez gero abeltzaintza-presioari eta aldameneko partzelen erabilerei, eta habitat hauek hartu ohi dituzten eta ziklo hidrológicoak aldatu ohi dituzten nekazaritza- eta basogintza-erabilerei lotutako presioei dagokienez.

EB 6420 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Egitura eta funtzio espezifikoak	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Kare-zohikaztegiak -7210*-

7210* habitataren kasuan, azalera ongi ezagutzen dira azterlan zehatz osatuei esker, eta masiegadien argitasunari esker, bai bertako kanaberadien tamainarengatik bai ur-gorputz iraunkor edo ia iraunkorrekin duten harremanarengatik. Habitataren azalera egonkor mantentzen da denboran.

Habitat honen egitura nahiko sinplea da, eta urtean zehar etengabeak diren ur-gorputzen presentziarekin lotua dago; horien inguruan agertzen dira masiegadiak, monoespezifikoagoak edo ez hain monoespezifikoak, beren kudeaketaren arabera (abeltzaintza, erreketak, mozketak, etab.). Etengabeko putzuak eta uretako karbonatuen presentzia dira askotan masiegadiak inguratzen dituzten eta interes handiko floraren bizileku diren zohikaztegi hezeen bereizgarri.

Funtzioak ere azaleratzen den edo gainazalaren azpian dagoen uraren presentziak baldintzatzen ditu, eta habitata bera faktore biologikoen menpe baino gehiago faktore fisiko eta hidrogeologikoen menpe dauden dinamika eta funtzioen isla da hein handi batean.

Etorkizuneko perspektibak onak dira, izan ere, lurra babesteak berak, berez, lurraren biziraupena eta haren ingurumen-funtzio garrantzitsuei eustea bermatzen du. Bestalde, lekuko floraren interesak, originaltasunak eta balioak behar bezala kontserbatu ahal izateko beharrezkoa den arreta behartzen eta ziurtatzen du.

EB 7210* kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Egitura eta funtzio espezifikak	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Berula erecta

Txiribia unbelifero bat da, penintsulan zehar sakabanatuta agertzen dena, normalean, kota nahiko baxuetan eta, betiere, ingurune hezeetan. EAE barruan espezie arraroenetariko bat da. Historian zehar hiru probintzietan aipatu izan den arren, gaur egun Arabara mugatzen dela dirudi; bertan aurkitutako azken populazioa Urizaharrako hezeguneetan dago (Toloño mendilerroa) (Ihobe, 2010). Aipamenaren berritasuna dela eta, KBE/HBBEko bere kokapena ontzat hartu behar da.

Ez daukagu Urizaharrako hezeguneko aipatu populazioaren garrantziari buruzko informaziorik, baina, normalean, espezie honen populazioek ale gutxi izaten dituzte.

Bere habitatak, hasiera batean, egokia dirudi espeziearen ekologiarentzat, baina hartutako azalera minimoa da, eta beste populazio batzuekiko zatiketa, berriz, handia. Ez dugu populazio honen bilakaera ezagutzen, ezta bere habitataren egoera ere.

Kokagune honentzako etorkizuneko perspektibak positiboak dira, Batasunaren Intereseko hainbat Habitaten presentzia bereizgarri duen gune batean baitago; habitat horietako baten bat lehentasunezkoztat jotzen da, mehatxatutako beste flora-espezie batzuk ere baditu, eta espezie hau eta "arriskuko" gisa katalogatutako beste batzuk berreskuratzeko planak gauzatzea aurreikusten da.

EB - kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata				X
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala				X

Epipactis palustris

Larre hezeetan, ihitokietan eta eguterako eta babestutako istingetan bizi den orkidea deigarria.

Penintsularen ipar-mendebaldeko erdian kokatzen da, batez ere gune menditsuetan, bere habitat gehiago dauden lekuetan. EAEn, Araba hegoaldeko istingetan bakarrik ageri da. Toloño mendilerroan, Urizaharrako istingetako puntu bakar batean dagoela dakigu, eta leku horretan egonkor jarraitzen duela dirudi.

Ezagutzen dugun populazio bakarrak ale gutxi dituzte eta Toloño mendilerroaren mugan bakarrik ageri denez, irizpide hau desegokitzen hartzen da.

Espeziearen habitatak, bere izaerarengatik, lurralde-eremu txikia hartzen du, eta maiz jasan ohi duen alterazio-egoera eta erabilera- eta jarduketa-mota jakinen aurrean duen sentikortasuna kontuan hartuta, bere egoera desegokitzen hartzen da.

Etorkizuneko perspektibak, oro har, ontzat har daitezke, bere presentzia intereseko zenbait habitaten inguruan babestutako beste espezie batzuen presentziarekin lotuta baitago, eta espezie horietako batzuk lehentasunezko hartuta baitaude; horrek gunearen eta, horrenbestez, populazio honen babes integrala erraztu eta sustatuko du.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala		X		

Senecio carpetanus

Iturburu eta lurzoru oso hezeetako guneetan, nagusiki penintsularen erdiguneko eta iparraldeko eremu menditsuetan, aurrera egiten duen endemismo iberikoa.

EAEko kokapen-eremuaren murrizketa nabarmena izan da azken hamarkadetan. KBE/HBBEaren barruan, kokaleku bakar bat dago arriskuan, Herrerako portuan (Toloño mendilerroa). Beraz, alderdi hau desegokitzen hartzen da. Adierazi behar da beste aipamen bat egiten dela gunearen mugatik oso hurbil, Meano udalerrian, Nafarroan.

Era berean, ezagutzen ditugun populazioek beren ale-kopuruaren murrizketa nabarmena jasan dute; besteak beste, Herrerako portuko populazioak (egoera larrian dagoela uste da, bere habitataren aldaketa txiki ororen aurrean ahul). Hortaz, populazioaren egoera txartzat hartzen da.

Ihitokiak eta beste iturburu batzuk dira beretzako puntu egokiak; lurraldean dagoeneko gutxi dira halako puntuak. Kasu honetan, gainera, azalera txikia dute, eta bat datoz presio txikiko gune humanizatu batekin; horregatik, bere egoera txartzat jotzen da.

Azken urteetan zehar nabarmen areagotu da iturburu guztien interesaren eta kontserbazioaren balioaren aitorpena, eta espezie honentzat egokiak dira iturburu horietako asko. Hala ere, puntu horien kalteberatasun handia eta egun hain murrizta den populazioaren egoera kontuan hartuta, etorkizuneko perspektibak txartzat hartzen dira.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizuneko perspektibak			X	
Ebaluazio globala			X	

Spiranthes aestivalis -1900-

Orkidea txiki hau kostaldean, istinga eta ihitoki oso hezeetan, bizi da.

Iberiar penintsula osoan kokatzen da, eta, EAEn, hiru lurraldeetako hainbat puntu sakabanatutan agertzen da, baina oso ale gutxirekin.

KBE/HBBEaren barruan, Urizaharrako hezeguneetan (Toloño mendilerroa) populazio bakar bat ezagutzen da, egonkor mantentzen dena, eta, beraz, egoera ontzat hartzen da.

Urizaharran ezagutzen den populazioaren tamaina txikia da, eta, ale-kopuruari eusten diola dirudien arren, ez du «erreferentzia oneko populazioa» gaingitzen; bestalde, ez da erraza populazio-joerak argitzea, eta, beraz, populazioari dagokion alderdi hau desegokitzen hartzen da.

Larre oso hezeetan hartzen duen habitatak oso azalera txikia du, eta, hain zuzen ere, urarekiko bere loturarengatik eta menpekotasunarengatik, oso nabarmenak ez diren hainbat alterazio jasaten ditu, eta aldaketa horiek kokaleku zehatzak desagerraraz ditzakete.

Espeziearentzako eta espeziaren bizilekuentzako etorkizuneko perspektibak desegokitzen hartzen dira; alde batetik, egungo bere populazio-joerei buruzko ezagutza faltarengatik, eta, bestetik, gune hauen kalteberatasun handiarengatik.

EB 1900 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Presioak eta mehatxuak

-. Artzaintza ez intentsiboa (A04.01): abeltzaintza-erabilera, honek eragiten dituen mozketa-, zanpaketa- eta nitrifikazio-ondorioak kontuan hartuta, oso kaltegarria izan daiteke presio jakin bat gairiditutakoan. Hala ere, bere presentziak larredi hezeak irekitzen laguntzen du, eta, horrela, erabilera hau bi ahoko tresna bihurtzen da, kontu handiz erabili beharrekoa.

-. Artzaintza-sistemak uztea, artzaintzarik eza (A04.03): ihitoki mediterraneoen kasuan (6420 habitata), abeltzaintza-erabileren galerak edo murrizketak ihitokien dentsitatea handitzea eta puntu nitrifikatuenetan kardu-sail bihurtzea ekar dezake, eta, ondorioz, bi kasuetan, asko txikituko litzateke flora-dibertsitatea.

-. Birpopulaketa (espezie aloktonoak) (B02.01.02): nahiko ohikoa den eta ihitoki mediterraneo hauen desagertzea eragiten duen mehatxu larri bat da makaldiak sartzeak dakarren erabilera-aldaketa; lurraldearen antolaketa aldatzen du, intsolazioa murrizten du eta fluxu hidrológicoak aldatzen ditu.

-. Eskaiak eta sastrakadi edo zuhaixkak kentzea (A10.01): sastrakadi, zuhaixka eta zuhaizti isolatuek (sahatsak, elorri zuriak, makalak edo lizarrak) berotze-prozesuetan eta udako ebapotranspirazio-prozesuetan eragina duen komunitate bat osatzen dute, eta, horrez gain, haren egitura eta dibertsitate biologikoa hobetzen dute, ornogabeei, anfibioei eta bestelako ornodun txikiei babeska eskainiz.

-. Bidezidorrak, pistak, bizikletentzako bideak (D01.01): inguru hauek (6420) alda ditzakete beren hurbiltasunarengatik, tokiko hidrologia aldatuz.

-. Kanalizazioak eta ur-desbideraketak (J02.03): drainadura, bilketa edo putzuen bidez tokiko dinamika hidrológicoak aldatzeak modu atzerazinean eragingo lieke komunitate hauei.

-. Habitaten konektibitatea murriztea, kausa antropogenikorengatik (J03.02): flora-espezieen kasuan, beren populazioak mantentzeko eta kontserbatzeko mehatxu nagusiak, alde batetik, populazio-urritasunari dagozkio, bai populazio-kopuruaren urritasunari bai populazio bakoitzeko ale-kopuru urriari, eta, bestetik, garatzen diren mikrohabitaten sentikortasunari edo kalteberatasunari.

Baldintzatzaileak

Komunitate-mota hidrofilo hauen ezaugarri nagusietako bat flora aldetik duten aberastasuna eta originaltasuna da (ihitokietan baino gehiago zohikatz-habitat hezeetan nabarmentzen da). Urizaharrako Las Balsas-eko hezegunean (7210*), zehazki, EAEko Katalogoan barne hartutako espezie mehatxatuen populazio batzuk kokatzen dira; besteak beste, *Berula erecta* ("arriskuan" dagoen espezie gisa katalogatua), *Epipactis palustris* eta *Spiranthes aestivalis* (biak ere "kalteberak").

4. KE.- Ingurune andeatuak

Kontserbazio-egoera

Peucedanum officinale

Metro erdiko altuera har dezaketen landareak, sastrakadi irekietan eta bazkalekuetan agertzen direnak, baita bide-bazter eta arekatan ere, lursail azido edo oinarrizkoetan, nitrifikatu samarretan eta, oro har, lehorretan.

Penintsularen erdialdean eta iparraldean dute beren kokapen-eremua, betiere, populazio sakabanatu eta isolatuetan. EAEn soilik Buradon Gatzaga inguruan (Toloño mendilerroa – Cabrera mendia) agertzen da –bertara mugatuta geratu da ezagutza historikoari dagokionez–; espeziearen egungo kokapen-eremua Toloño mendilerroan eta Cabrera mendian zentratzen da. Beraz, espeziearen kokapena desegokitzen hartzen da.

Populazio bakar bat ezagutzen da, hiru azpipopulazio desberdinetan bereiz daitekeena; horietako bi Cabrera mendian kokatzen dira, eta bestea Toloño mendilerroan. Hortaz, populazio-irizpidea desegokitzen hartzen da.

Litekeena da espeziearen garapenerako habitat egokia azken urteetan murriztu egin izana, batez ere mahastitara bideratutako lursailak gehitu direlako. Horregatik, desegokitzen hartzen da.

Etorkizuneko perspektibak ez dira egokiak, lurraldearen egungo erabilerak mantentzen direlako eta ezagutzen den populazio bakarraren zati bat Natura 2000 saretik kanpo dagoelako, eta, beraz, kudeaketa-ahalegin espezifikoa bertara bideratzeko zailtasun gehiago duelako.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Teucrium botrys

Lurzoru harritsueta, ingurune andeatuetako eta lursail pobre eta aldatuetako berezko espeziea.

Penintsularen ipar-ekialdeko laurdenean kokatzen da gehienbat. EAEn ordezkari txikia du hiru lurraldeetan, gehiago azaltzen da aldameneko Burgos probintzian (Gaztela eta Leon). Toloño mendilerroan kokaleku batzuk galdu dituela dirudi, eta gaur egun badu pare

bat populazio bertan.

Espezie honen populazio oso gutxi ezagutzen dira, eta Toloño mendilerroan duen presentzia Lagrango eta Pipaongo puntu zehatzetara mugatzen da. Horietakoren bat, gainera, biziraupenerako mugako egoeran dago. Horrela, «erreferentzia oneko populazioaren» ginetik ez dagoenez, alderdi hau desegokitzat hartu behar da.

Lursail harritsueta, landu gabeko landetan eta bide-bazterretan hartzen duen habitata, askotan, giza-jarduketaren zoriaren mende dago; besteak beste, sua, herbiziden erabilera, ongarritzeak eta nekazaritzako beste teknika batzuk. Horrek ezegonkortasun handia ematen dio.

Espezie honentzako etorkizuneko perspektibak desegokitzat hartzen dira, neurri handi batean, giza-jarduketaren ondoriozko gertakizunen aurrean baitaude, bizileku zituen lursailetan ongarritze-tekniken eragina jasan duen Bizkaiko populazioaren bilakaera berriak erakutsi duen bezala.

EB – kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Presioak eta mehatxuak

-. Laborantzak (A01): *Peucedanum officinale* espezieko populazioaren mehatxu nagusia, egun kokaleku dituen guneen aldaketaren ondorioz.

-. Herbizidak (A07): Laborantza-guneen edo pasealekuen inguruan (*Peucedanum officinale* espeziearen populazioaren batzuen kokalekuen inguruan, adibidez) herbizidak erabiltzeak arriskuan jar lezake dagoen populazio urriaren zati bat.

-. Oihanpea kentzea (B02.03): Espezie hauek egun hartzen duten lurraldean jarraitzea zenbait baldintzari eustearen menpe dago, eta sastrakadia kentzea afekzio handia da.

-. Bidezidorrak, pistak, bizikletentzako bideak (D01.01): *Teucrium botrys* espezieko populazioarentzako mehatxu nagusia, konponketa- eta/edo eraikuntza-lanei lotua.

-. Habitaten konektibitatea murriztea, kausa antropogenikoengatik (J03.02): Espezie-multzo honen kontserbaziorako mehatxu nagusia beren presentziaren mugan datza, bai kokapenari dagokionez (askotan, beren kokapen-eremuen mugan) bai haien populazioei eta ale-kopuruari dagokienez. Hala, bereziki erasokorrak ez diren erabilerek edo jarduketek arriskuan jar dezakete populazio hauetako batzuen iraunkortasuna, ale gutxi batzuk (populazioen guztizkoari dagokionez, ordea, portzentaje handi bat osatzen dutenak) kentzearen ondorioz.

Baldintzatzaileak

Espezie hauek ingurune andeatuetan kokatzea dute bereizgarritzat; hain zuzen ere, zirkulazio handiko guneak direnez, aldaketak jasateko aukera handiak izaten dituzte ingurune horiek, eta, beraz, bertan bateratzen diren interesen dibertsitatearen ondoriozko jarduketa asko eta askotarikoak jasan ditzakete. Hortaz, bideak, eraikinak eta bestelako elementu komun batzuk hobetzea eta/edo garbitzea bezalako helburuek edo ohiko laborantzek egun espeziea agertzen den toki horietako batzuk desagerraraz ditzakete.

5. KE.- Ibaiak eta ingurune erriparioak

Kontserbazio-egoera

Iturburu petrifikanteak tuf-formazioarekin – 7220*-

Gaur egun, La Laguna iturburuarekin lotutako puntu batean baino ez dago habitat hau KBE/HBBE osoan. Zehazki, Jugalez ibaian isurtzen den puntuan dago, Herrerías arroilean, Bergantzu eta Pagoeta guneen artean.

Jugalez ibaian erortzen den iturburuko ura salbatzen duen garaiera-aldean sortzen dira toben terrazak eta, nahiko handia den landare-estalkira izanik, aktibo eusten dio toba-formazioari eta ur-jauzia zabaltzen du.

Ur-jauzitik gora, toba-formazio zaharrak ikus daitezke, nahiz eta pista bat eraikitzeak haien zati bat aldatu duen. Jauzi horretatik urari behera, Jugalez ibaiak gaur egun aktibo ez dauden toba zahar eta handien artean egin du bidea.

Habitataren azalera ezezaguntzat sailkatu da, aitortu baita ez dela habitata nahikoa ezagutzen. Hala, noizean behingo manifestazioak direnez, baliteke oharkabean pasatu izana kartografia-lanak egitean; hori dela eta, espero izatekoa da ezagutzen den azalera zertxobait handitzea, baina txikia litzateke zenbaki absolutuetan.

Habitataren egitura ona da, multzoaren hedadurak erakusten duen bezala; gainera, haitz berrien formazio aktiboa du eta zaharrak higitzen ari dira. Hortaz, habitataren zeregin geoeologikoen nahiz berau ezaugarritzen duen lotutako florak egoera onean jarraitzen dute.

Ezin da jakin etorkizuneko perspektibak zer-nolakoak izango diren, zenbait faktoreren mende daude eta: alde batetik, KBE/HBBEaren barruan egoteak ematen dion babesak horrela jarraitzea ziurtatuko luke, baina ezezaguna da zein pista, bide eta hartunetan eragin zaion (edo etorkizunean eragingo zaion) haitza sortzeko dinamikari; beste alde batetik, toba elikatzen dituen errekan ur-hartuneak daudenez, aprobetxamendu horiei lehenetasuna eman beharko litzateke egoera jakin batzuetan, kontserbazioaren aldean.

Kd.: EB 7220*	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa-eremua edo maila				X
Egitura eta zeregin zehatzak	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Alnus glutinosa eta *Fraxinus excelsi* ordun ibar-basoak –91E0*-

Gaur egun, komunitate horiek har zitzaketan lurren oso zati txikia hartzen dute, gizakion jarduera askoren biktima izan baitira, nagusiki, nekazaritzarenak eta urbanizatzearenak. Izan ere, formazio horiek hartzen duten eremua nabarmen murriztu dute, batez ere gune lauenetan; horrenbestez, mendi-eremuetan baino ezin dira topatu nolabaiteko kontserbazio-maila duten ibaiertzeko komunitateak. Guneetan, Toloño mendilerroan bakarrik daude. Horregatik guztiagatik, uste da habitat horrek hartutako eremua desegokia dela.

Egituraren eta konposizio zehatzaren harira, konplexua eta askotarikoa izan beharko luke, baina pairatutako presio eta aldaketa etengabeek zein zatikatzeak horren aurka egin dute. Haltzadietan eta lizardietan, zuhaitzak garaiagoak eta dentsuagoak direnez, argia hobeto

sartzen da eta hain anitza ez den zuhaixka-komunitateraino heltzen da. Huntza eta apomahatsa (*Tamus communis*) dira bertan edo orletan agertzen diren igokari gutxietako batzuk. Mendilerrotik doazen 91E0* habitateko erriberen zenbait tarte ongi egituratuta daude, eta beste batzuk eraldatu egin dira; batik bat, gunetik kanpo daude eta jarraitutasuna eten eta zatikatzen dute. Izan ere, hori da egiturazko beste ezaugarrietako bat, eta hori guztia aintzat hartuta, egoera desegokia dela uste dugu.

Habitat horien zereginetik bi alderdi nagusi dituzte: horietako bat lehen mailako korridore biologikoa izatea da, eta bestea uren kalitateari dagokio, oligotrofiko izaten jarraitzen baitute iristen zaien argi urriari esker. Biak murriztu dira jarraitutasuna eten delako eta landaredian aldaketak gertatu direlako; hortaz, egoera desegokitzaletzat jotzen da.

Ezin dira etorkizuneko perspektibak ontzat hartu, ibai-ibilbide nagusien zatirik handiena Toloño mendilerrotik kanpo dabilelako. Gainera, presio antropikoa pairatzen jarraitzen dute bertan, eta ez litzateke erraza izango aplikatu beharko liratekeen babes- eta lehengoratzeneurriak ezartzea; hala, oso zaila litzateke habitataren konektibitatea eta egitura zuzentzea.

Kd.: EB 91E0*	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa-eremua edo maila		X		
Egitura eta zeregin zehatzak		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

***Salix alba* eta *Populus alba*ren galeria-basoak – 92A0-**

Sahastiek eta makaldiek Toloño mendilerroan duten presentzia eta azalera anekdotikoa baino ez da (azalera osoaren % 0,02), eta ordezkartzarik onena Angostina haitzartean dago. Hori dela eta, hartutako eremua desegokitzaletzat sailkatu da.

Egoera naturalean dauden sahasti eta makaldi mediterraneoen (92A0) egitura oso konplexua eta askotarikoa da, eta ezaugarri nagusia aniztasuna da, hala estratuei nola espezieei dagokienez. Hala, substratuak baldintzatutako zuhaitz-estratuan makalak, burzuntzak, sahatsak, lizarrak, haltzak eta zumarrak (gaur egun, ia ez dago halakorik) egon daitezke. Oparotasun eta aniztasun hori are handiagoa da zuhaixka-estratuan, eta osatu egiten da liana-gisako estratu oparo eta askotarikoarekin, honako espezie hauek baititu, besteren artean: lupulua, klematidea, astamahatsa eta huntza.

Formazio horiek bete beharko lituzketen zeregin naturalak gutxitu egin dira, bai urritasunagatik, bai zatikatzegatik; presentzia txikia da askotan, eta egitura naturala aldatu eta mugatzen duten gizakiak igarotzen dira sarri.

Etorkizuneko perspektibek ez dirudite askoz hobeak; izan ere, nahiz eta babestutako naturgune batean egon, zatikatzea hain da handia, ezen konektibitatea mugatua baitago Toloño mendilerroko tartearen aurrekoetan edo hurrengoetan kalitate txikiagoko erriberen ezaugarriak direla bide. Horrenbestez, babestutako eremutik kanpo egun dauden presioak pairatzen jarraituko dute hein handi batean.

Kd.: EB 92A0	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa-eremua edo maila		X		
Egitura eta zeregin zehatzak		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Bertako karramarroa (*Austropotamobius italicus*) – 1092-

Espezieak Iberiar penintsula osoan, 60-70eko hamarkadan, jasan zuen populazio-hondamendi orokorraren ostean, «galtzeko arriskuan daudenak» kategorian sailkatuta dago EAEn, eta «kalteberak» kategorian Iberiar penintsulan.

KBE/HBBEan duen banaketa orokorra oso txikia da. Kontuan hartuta guneko ia ibai- eta putzu-sare osoa izan daitekeela espezie horren banaketa-eremua, banaketaren balorazioa txarra da. Populazio-mailei buruz eskuragarri dauden datuei jarraiki, gunearen balorazioa desegokia da.

Uren kalitatearen harira, bertako karramarroarena izan daitekeen habitataren ezaugarriak nahikoak dira gunetan. Alabaina, arriskua honako espezie exotiko inbaditzaile hauen presentziak dakar: karramarro gorria (*Procamburus clarkii*) eta karramarro seinaleduna (*Pacifastacus leniusculus*). Horrez gain, espezie horiek bertako karramarroari transmititzen dioten onddo-gaixotasuna ere arriskutsua da, hots, *Aphanomyces astaci* onddoa. Hori guztia aintzat hartuta, espeziearen habitata desegokitzen jotzen da.

Beste alde batetik, ustea da ezen, karramarro gorriaren zein amerikarraren populazioek KBE/HBBEko ibai-sarean jarraitzen duten bitartean, bertako karramarroaren etorkizuneko perspektibak txartzat baloratu behar direla.

Kd.: EB 1092	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa-eremua edo maila			X	
Populazioa		X		
Espeziaren habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak			X	
Ebaluazio globala			X	

Bisoi europarra (*Mustela lutreola*) - 1356

Bisoi europarra Arabako Lurralde Historiko osoan banatuta dago, baina populazioen egoerak ezberdinak dira. KBE/HBBEan, banaketa desegokia da, eta guneko ibai-sareko puntu gutxitan daude, Ega ibaian nagusiki, Kodes mendilerrotik igarotzen den tartean. Baina, dirudenez, ez da modu egonkorrean ezarri, eta populazioa desegokia dela uste dugu.

Arabako hegoaldeko mendilerroetako bisoi europarraren populazioak dituen mehatxu nagusiak bisoi amerikarrarekin lotuta daude, baita habitata aldatzearekin ere, bai ur-masen kutsaduragatik, bai denborazkotasunagatik. Habitata aldatzearen harira, guneen zatikatzea nabarmendu behar da, eta bide-azpiegituren edota erriberetako zuhaixka- eta zuhaitz-estalkiak desagertzearen ondorioz gertatu da hori. Hori oinarri hartuta, egungo baldintzak aldatzen ez badira, gunen horren habitataren egoera desegokitzen hartuko da bisoi europarrarentzat.

Hala, espeziearen etorkizuneko perspektibak txarrak dira bi gunetan, eragiten dioten erregresio-faktoreak kontrolatzea zaila delako.

Kd.: EB 1356	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa-eremua edo maila		X		
Populazioa		X		
Espeziaren habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak			X	
Ebaluazio globala			X	

Igaraba arrunta (*Lutra lutra*) - 1355

Penintsulan, igaraba ia lurralde osoan banatuta dago, Mediterraneo aldean izan ezik. Araban, gainbehera handiko prozesua gertatu ondoren, lehengoratzeko-prozesu geldoan da, eta isurialde mediterraneoko ibai nagusietan dago kokatuta; isurialde kantauriarreko ibairen batean ere agertu da. Espeziea gero eta maizago agertzen da KBE/HBBEan, eta Jugalez (Toloño mendilerroa) nahiz Ega (Kodes mendilerroa) ibaietan topatu da. Horregatik, banaketa ona duela uste da.

Populazio-mailei buruz, ez dago ebaluatzeko moduko informazio nahikoa.

Igaraba landare-estalki dentsoa duten ibai-ibilbideetan, lakuetan, urtegietan eta kostako uretan bizi da; dena den, mugarik handiena elikagaien eskuragarritasuna da. Dietaren oinarria arrainak dira, batik bat, eta beste harrapakin batzuekin osatzen dute, esaterako, karramarroak, anfibioak, etab. Espezie lurraldekoa da, dentsitatea 2-4 alekoa da 10 km-ko, eta arrek hartutako eremu gehiago daude, emeek hartutakoan aldean. Eskakizun ekologiko horiek abiapuntutzat hartuta, irudipena da espeziea KBE/HBBEan egon daitekeen habitata ona dela.

Hortaz, igaraba-populazioa Arabako Lurralde Historikoan handitzen ari omen denez, espezieak Arabako hegoaldeko mendilerroetan dituen etorkizuneko perspektibak ere onak dira.

Kd.: EB 1355	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Banaketa-eremua edo maila	X			
Populazioa				X
Espeziaren habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Presioak eta mehatxuak

- Bidexkak, pistak, bizikletetarako bideak (D01.01): ur-jauzitik gorako erreka zeharkatzen duen pista mehatxua da balio handiko habitat horren kontserbaziorako.

- Animaliak harrapatzea (F03.02.01): bertako karramarroaren populaziorako jaso diren mehatxuen artean, legez kanpoko arrantza aipatu da.

- Kirola aire zabalean eta aisia-jarduerak, antolatutako olgeta-jarduerak (G01): 7220* habitata duen ur-jauzia dagoen gunea garrantzitsua denez, bisita ugari egiten dira bertara, eta horrek nolabaiteko presio antropikoa dakar.

- Espezie exotiko inbaditzaileak eta espezie aloktonoak (I01): arestian aipatu den bezala, karramarro exotiko gorria eta seinaleduna badaude KBE/HBBEan, baita bisoi amerikarra ere. Bisoi amerikarrari dagokionez, Arabako Foru Aldundia 2003an hasi zen espezie hori Arabako ibai-sarean desagerrarazteko kanpainak egiten.

- Ur-bideratzeak eta -desbideratzeak (J02.03): afekzioak eragiten dizkie habitatei eta funtsezkoak diren elementuen multzo honekin lotutako fauna-espezieei, eta uren kalitateak behera egiten du.

- Aldaketak hidrologian, orokorra (J02.05): 7220* BIHren kasu zehatzean, habitatak toki horretan duen dinamika naturalak higadura-eraginak lotzen ditu eraikitze-eraginekin eta toba berria sortzen dutenekin. Ildo horretatik, oso prozesu zahar baten bilakaera geratzen da agerian, eta kontserbazioak gaur egun dituen arriskurik handienek La Laguna erreka fluxu-aldaketarekin eta uraren kalitatearekin zerikusia dute.

- Lurrazaleko uretatik datozen ur-hartuneak (J02.06): hala Jugalez ibaiak nola La Laguna errekek ur-hartuneak dituzte 7220* BIHren inguruan.

- Harrapakinen eskuragarritasunak behera egitea (sarraskienak barne) (J03.01.01): bisoi europarrak dituen mehatxuen artean, eskura dauden baliabide trofikoak murriztu direla aipatzen da.

- Habitaten konektibitateak behera egitea, arrazoi antropogenikoengatik (J03.02): nahiz eta Toloño mendilerroko haltzadien kontserbazio-maila onargarria den, inguruan dauden laborantza-eremuek eta gizakiak bizi diren eremuek eragina dute, eta bertan, azalera murrizten duten eta konposizioa, egitura eta dinamika aldatzen dituzten askotariko presioak jasaten dituzte etengabe, jarraitutasuna eteten diete hein handi batean, eta korridore biologiko gisa duten funtzionaltasunari eragiten diete, beraz. Beste alde batetik, ibai-habitatak zatikatua daude, eta horrek eragina dauka ingurune urtarretako fauna-populazioengan.

- Gaixotasunak sartzea (K03.03): bertako karramarroaren populazioaren mehatxu nagusia afanomikosiak eragindako afekzioa da. Aipatu beharreko beste gaixotasun bat *Phytophthora alni* onddoa hedatzea da; haltzak lehortzea eragiten du, baina ez da halakorik egiaztatu hizpide dugun gunean, oraingoz.

- Espeziak sartzeak eragindako antagonismoak (K03.04): Arabako hegoaldeko mendilerroak/Sierras meridionales de Álava HBBEaren eremuan, bi espezie exotiko inbaditzaile hauen presentzia aipatu da: karramarro gorria (*Procambarus clarkii*) eta karramarro seinaleduna (*Pacifastacus leniusculus*). Biak ala biak dira *Aphanomyces astaci* onddoaren bektore, eta ingurune urtarrekin lotuta dauden hainbat espezieren lehiakide dira.

Beste alde batetik, bisoi amerikarra (*Neovison vison*) ere eremu horretan dago, eta espezie exotiko inbaditzaile horrek bisoi europarraren gaixotasun aleutiarra transmiti dezake. Halaber, bisoi europarraren eta igarabaren lehiakide handia da.

Baldintzatzaileak

Toloño mendilerroaren barruan sortzen diren ur-ibilbideetan, ongi kontserbatutako eta interes handiko haltzadi-tarteak topa daitezke, hala egiturari nola aniztasunari erreparatuta. Elementu originalenetako bat *Dryopteris carthusiana* iratzea da. Espezie hori EMEKeko «kalteberak» kategorian jasota dago, eta noizean behin agertzen da haltzadietako eremu itzaltsu eta istilduenetan.

Espeziea ibai-sarean eta hezeguneak KBE/HBBEan hedatzeko xedea duen ekimen orok aintzat hartu behar du ez dela bateragarria populazio astazikolak egotea funtsezko elementutzat jotako anfibioen kontserbaziorako intereseko puntuetan.

Era berean, bai bisoi europarrak bai igarabak Arabako Foru Aldundiak onetsitako kudeaketa-planak dituzte Arabako Lurralde Historikoan: bisoi europarraren kasuan, azaroaren 7ko 322/2003 Foru Aginduaren bidez egin zen (ALHAO, 142. zk., 2003ko abenduaren 5ekoa); eta igarabarena, urriaren 27ko 880/2004 Foru Aginduaren bitartez onetsi zen (ALHAO, 136. zk., 2004ko azaroaren 24koa). Kudeaketa-planek espezie horien gaineko mehatxuak ezabatzen saiatzeko beharrezkoak diren gidalerroak eta neurriak ezartzen dituzte, eta espezieok lehengoratzea eta kontserbatzea sustatzen dute.

Kudeaketa-plan horiei jarraituz zehaztu da bisoi europarrarentzat interes bereziko eremu (IBE) den Ega ibaia, Kantabria eta Kodes mendilerroen ekialdeko sektorean dagoena. Ibai hori bera, Jugalez ibaiarekin batera (Urizaharratik bokaleraino), IBE gisa izendatua dago igarabarentzat.

Beste alde batetik, Arabako Foru Aldundia «Bisoi europarra Espainian kontserbatzeko ikuspegi berriak» LIFE Naturaleza (LIFE LUTREOLA SPAIN) proiektuaren onuradun suertatu da duela gutxi, Estatuko beste administrazio eta erakunde batzuekin batera. Proiektu horrek kontserbazio-ekintzak biltzen ditu bisoi europarraren populazioarentzat eta Arabako Lurralde Historikoko zenbait tokitako habitatetarako, horien artean, Ega ibaiko, Kantabria eta Kodes mendilerroen ekialdean.

6. KE.- Harkaitzak eta antzeko inguruneak

Kontserbazio-egoera

Antennaria dioica

Espezie hau goi-mendien gailurretan kokatzen da; zehazki, Pirinioetan, Kantabriar mendietan eta Iberiar sistemako gailurretan.

EAEan, Kodes mendilerroan kokatutako populazio txiki bat bakarrik ezagutzen zen, baina ez da populazio horretako alerik aurkitu 2001etik; hori dela eta, espezie desagertu gisa katalogatuta dago EAEko Floraren Liburu Gorrian.

Baliteke bere habitata pixkanaka aldatu izana azken hamarkadetan, abeltzaintza-ustiapenen murrizketaren ondorioz. Izan ere, horrek espezie honen habitata kolonizatzea ahalbidetu dio pagadiari.

EB kod. -	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea			X	
Populazioa			X	
Espeziearen habitata			X	
Etorkizuneko perspektibak			X	
Ebaluazio globala			X	

Armeria cantabrica subsp. vasconica

Subespezie hau KBE/HBBEan bakarrik aurki daiteke eta eremuko landare adierazgarriena dela esan daiteke. Toloño mendilerroko puntu altuenetan ikus daiteke, eta baita Kodes mendilerroan eta Kostalera mendiaren inguruetan ere.

Armeria genero gatazkatsua da; izan ere, egile batzuek ez dute subespezie hau aitortzen, eta *A. cantabrica* sartzen dute. Azken espezie hori Ancares mendilerrotik Toloño eta Kodes mendilerroetaraino zabaltzen da eta nukleo nagusitik oso bereizita dauden eta, ondorioz, kontserbatzea merezi duten azpipopulazioak ditu.

Armeria populazio hauek elementu floristiko nabarmengarria osatzen dute KBE/HBBEaren barnean, eta interes bigeografiko eta kontserbazio-interes handia dute.

Badirudi taxonaren kokapen-eremua egonkorra izan dela azken urteetan, beraz, on gisa baloratu da; ez ordea populazio-irizpidea, izan ere, populazioak oso esanguratsuak izan ez diren galera batzuk bakarrik izan baditu ere, ez du bere «erreferentziatzko populazio ona» gainditzen. Horregatik, desegoki gisa kalifikatu da.

Espezie honen gainerako habitata ona da, izan ere, iparraldera begira dauden eta, oro har, eskuraezinak diren kareharrizko harkaitz bertikalen pitzadura eta erlaitz txikietan bizi da, eta, horri esker, asaldura handietatik babestuta egon da.

Espeziearen kontserbazio-perspektibak onak dira, batez ere, bere habitatera iristeko ezintasunari esker.

EB kod. -	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala		X		

Centaurea lagascana subsp. lagascana

Kokapen murriztuko endemismo hau kantabriar mendietan bizi da eta bere kokapenaren ekialdeko muga Kodes mendilerroak ezartzen du. Badirudi kokapen-eremu hori pixka bat murrizten ari dela.

Euskal populazioak Arabako mendebaldean (Valderejo-Arcena mendilerroak) eta ekialdean daude (Kodes mendilerroan). Azken horretan, zehazki Kodes eta San Cristóbal mendien artean, ale gutxi batzuk barne hartzen dituen populazio bat dago. Populazio hori «hobi-populazio» gisa hartzen da, hau da, defizita sortzen du propaguluen edo banako berrien ekoizpenean; beraz, alderdi hau desegokia da.

Bere habitatak kareharrizko gailurrak izaten dira, eremu ireki eta eguzkitsuak. Baldintza hobeak izaten dituzte animalien edo suteen eragina jasaten duten lekuetan eta okerragoak, aldiz, itzala dagoen lekuetan. Egindako aipamen batzuk erretako txilardietan eta pagadietako argiguneetan kokatu direnez, populazioa murriztu egin dela edo, gutxienez, mehatxatua izan dela pentsa daiteke. Hori dela eta, bere egoera desegokitza jo dugu.

Espezie honen kontserbaziorako etorkizuneko perspektibak ez daude oso argi, bere iraunkortasuna ez baitago zuzenean erlazionatuta babes- edo kontserbazio-ekintzekin. Beste faktore ugari ere eragiten dute, esaterako, animalien jarduerak, bilakaera klimatikoak edo hainbat gertakari estokastikok.

EB kod. -	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Evaluación global		X		

Cochlearia aragonensis

Arku iberiar izenekoaren bereizgarri den kokapen-eremu mugatuko endemismoa. KBE/HBBEan dauden populazioek kokapenaren mendebaldeko muturra irudikatzen dute; horrek muga biogeografiko eta klimatikoetako aldaketen aurrean sentikortasun berezia izatea dakar, kokapen eremuan atzerapenak eraginez. Espeziearen kokapena desegokitza jotzen da.

Espezie honen populazioak Araban aurki daitezke (Hornillo mendian eta Lokiz mendilerroan), baita Nafarroan ere (Lokizen). Populazio horiek, beren kokapen-eremuaren ertz batean isolatuta badaude ere, handiak dira indibiduen kopurua kontuan hartuta; hori dela eta, populazio-egoera ona dela esan dezakegu.

Espezieak hartzen duen habitata kareharrizko hartxingadietan kokatzen da. Ingurune hau ez da erraz heltzeko modukoa eta gizakiak ezin ditzake aldaketak egin zuzenean; beraz, irizpide hau on gisa sailkatu da.

Espeziearen etorkizuneko perspektibei dagokienez, habitataren jarraipenak ematen duen egonkortasunaren barnean, honako faktore hauek areagotzen dute bere kalteberatasuna: espeziea kokatuta dagoen beste puntu batzuekiko isolamendua eta klima-aldaketari lotutako fenomenoek kokapen-eremuaren mugan dauden populazioak biogeografikoki aldatzeko duten arriskua.

EB kod. -	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Erinacea anthyllis subsp. anthyllis

Espezie honek penintsulako ekialdean kokatutako mendi eta kareharrizko basamortuetan du bere kokapen-eremua; arrasto batzuk Kodes mendilerroaraino iristen dira. Gaur egun, bertan dago bere kokapen-eremuaren ipar-mendebaldeko muga. Badirudi espeziearen eremuaren muga-egoera hori egonkorra dela, beraz irizpide hau on gisa kalifikatu da.

Arabako populazio txikiak osatzen du espezieak Kostalera mendiaren ondoko ingurunean (Nafarroako lurretan) hartzen duen populazioaren zati bat. Populazio orokorraren benetako tamainak eremuko populazioaren presentzia egonkorra izatea ahalbidetzen du, beraz, ona dela esan dezakegu.

Espezieak habitat hauek erabiltzen ditu: haize eta eguzki askoko kareharrizko basamortuak, giro kontinental hotza eta lehorra dutenak. Kontinentaltasun baldintza horiek, euskal mendietan ia ikusten ez direnek, mugatzen dute erabilgarri dagoen habitata eta horiek dira KBE/HBBEaren barnean irizpide hau desegokitzen jotzeko arrazoi nagusia.

Populazioaren kokapena eta giza-jarduera urria kontuan hartuta, ez dago etorkizuneko perspektibekin lotutako inolako arazorik.

EB kod. -	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala		X		

Gypsophila repens

Espezie hau Pirinioetan eta Kantabriar mendietan kokatzen da. Bere kokapen-eremuaren hegoaldeko mugetako bat Kantabria eta Kodes mendilerroetan dago. Dena den, duela gutxi Toloño mendilerroan ezagutzen zen populazioa desagertzeak nabarmen murriztu du espeziearen tokiko banaketa-eremua. Ondorioz, eremuetan duen banaketa desegokia da.

KBE/HBBEaren barneko populazioaren balorazioa ere desegokia da; izan ere, gaur egun Kodes mendilerroan bakarrik aurki daiteke. Aipatutako populazioaren desagertzea eta egun dagoenaren jatorria antropikoa dela kontuan hartuta, aurrekoa desagertu zen bezalaxe desagertu daitekeela pentsa dezakegu, baldin eta tokiaren baldintzek bere ziklo biologikoaren alderdiren bat mugatzen badute.

Espeziearen habitata honako ezaugarri hauek osatzen dute: harkaitzetako pitzadurak eta goi-mendiko kareharrizko lur harritsuak, eskeletikoak baina oso hezeak, eta klima kontinental. Faktore horiek oso gutxitan egiten dute bat Arabako mendietan eta, ondorioz, ez dakigu ziur habitataren hedadura espeziaren iraunkortasuna bermatzeko behar adinakoa den. Hori dela eta, atal hau desegoki gisa kalifikatu da.

Espeziearentzako etorkizuneko perspektibak, euskal lurraldean orokorrean eta Natura 2000 eremuetan zehatzago, ez dira onak, ingurune egokirik ez dagoelako, baina, batez ere, populazio bat desagertu zelako eta egun existitzen den populazioa ezegonkorra delako (nahi gabe berriro sartu izanaren ondorioz). Hori guztia kontuan hartuta, ezin dugu espezieak epe ertain-luze batean bizirik jarraituko duenik ziurtatu.

EB kod. -	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Satureja montana subsp. montana

Espezie hau iparraldean kokatzen da, batez ere Pirinioetan, baina Castellóko portuan eta Burgosko eta Segoviako leku batzuetan ere ikusi daiteke. EAE barnean, KBE/HBBEan bakarrik ikus daiteke, zehazki, Toloño mendilerroko hainbat puntutan eta Joar mendiaren gailurrean, Kodes mendilerroan.

Bere efektiboak Toloño eta Kodes mendilerroen artean banatutako lau populazio ezagun besterik ez dira, eta guztien artean kokapen-eremuaren ipar-mendebaldeko mugan kokatutako gune bat osatzen dute, batetik populazio piriniotarretatik eta bestetik Gaztela eta Leongo populazioetatik isolatua. Horrek populazio honentzako arriskuak areagotzen ditu.

Espezie honen habitata basoetako argiguneek, harkaitzek, erlaitzek eta, batez ere, kareharrizko hartxingadi eguzkitsu eta kontinentalizatuek osatzen dute. Habitat horrek, eremuan agertzen bada ere, ez dirudi egokiena denik; izan ere, espezie hau oso urria da eremu honetan, agian altuera faltarengatik. Horregatik, kalifikazio desegokia du.

Etorkizuneko perspektibek ez dute erlazio handirik izan ditzaketen presioekin edo habitat-asaldurekin (oro har, ez dira erraz aurreikusten bizi den inguruneetan), bai ordea gertuko populazioekiko duen isolamenduarekin eta bere egoera biogeografikoarekin.

EB kod. -	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Epilobium angustifolium

Megaforbio hau goi-mendietan eta leku hezeetan egoten da, eta Iberiar penintsulan, Pirinioetako goi-eremuetan, Kantauriar mendikatean, Erdialdeko eta Iberiar sistemetan eta Sierra Nevadako leku batzuetan aurki daiteke.

EAEan, bi populazio aipatu dira. Badirudi horietako bat ustekabeen sortutakoa dela, hazien garraioaren bitartez; bestea, populazio egonkor bakarra, Toloño mendilerroko puntu altuenetako batean dago, Lagran mendatean, 1 km-ko pare bat UTM lauki barne hartzen dituzten hainbat leku zehatzetan banatuta. Populazioaren egiaztatutako egonkortasuna eta bizitasuna kontuan hartuta, pentsa daiteke bere tokiko kokapen-eremu mugatua bere eremu (habitat) potentzialaren baliokidea izan daitekeela, eta baita bere erreferentziazko kokapen-eremu onarena ere. Beraz, irizpide hau ona dela esan dezakegu.

Espeziearen egungo populazioak, ehun indibiduo inguru besterik barne hartzen ez dituenak, ez du erreferentziazko populazio ona gainditzen; beraz, eremuetan duen egoera

desegoki gisa baloratu da.

Espezie honek hartzen duen habitata oso txikia da; itxuraz egonkorak diren erlaitz humiferoetan kantonatuta egoten da, horien ahalmen guztia aprobetxatuz. Kontuan izan behar da faktore klimatikoaren eta bestelakoaren eragin handia; esaterako, luiziak eta eremu horren arriskutsuetan eta malda handikoetan nahiko probableak diren beste gertakari estokatiko batzuk. Goi-mendietako klima-aldaketaren ondoriozko prozesuek ere aldaraz dezakete. Prozesu horiek populazioaren eragina izan dezakete, horren zati garrantzitsuak ken ditzaketelako edo horien bizitasuna gutxitu dezaketelako; beraz, alderdi hau desegokitzen da.

Populazioaren etorkizuneko perspektibei dagokienez, ez dira faktore mehatxatzaile garrantzitsuak ikusten, lehenago aipatutakoez gain. Alabaina, faktore horiek ere, noizean behin bakarrik gertatzen direnez eta aurreikusitako direnez, bigarren maila batean gelditu dira. Populazioek hartzen duten eremu txikia dela eta, alderdi hau desegoki gisa kalifikatu da.

EB kod. -	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa		X		
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Bonelli arranoa (*Hieraaetus fasciatus*) – A093

Bonelli arranoa hegazti ugaltzaile mehatxatuenetako bat da, bai penintsula mailan bai EAEn; beraz, «galtzeko arriskuan» kategorian sartuta dago Arriskuan dauden Flora eta Fauna Espezien Euskadiko Katalogoan. Espezie honek Arabako Foru Aldundiak onartutako kudeaketa-plan bat du: 612/2001 Foru Agindua, irailaren 28koa, "Bonelli arranoa" (*Hieraaetus fasciatus*) izeneko hegaztia Araban kudeatzeko plana onartzen duena.

Gaur egun EAEn bikote ugaltzaile bakarra dago eta bere bizi-eremua Arabako hegoaldeko mendilerroak HBBEaren mendebaldeko sektorean dago kokatuta, duela hamar urte baino gehiago arrano honek Lokiz (Istora sakana) eta Kodes (La Dormida sakana) mendilerroak hartzen bazituen ere, baita Toloño mendilerroko beste leku batzuk ere (Pagoeta eta Angostina).

Bikote honi segimendu zehatza egiten zaio 1994tik eta bi aleek eraztuna eta irrati-segimendua egiteko ekipamendua dute, nahiz eta une honetan emearena bakarrik dagoen martxan. Horri esker, bikotearen habia egiteko eremua eta bizi-eremua zehatz daitezke: eremuko Bonelli arranoen bikoteak habia egiteko bi eremu ditu, elkarren artean 4,2 km baino gehiagoko distantziarekin (bat Araban eta bestea Burgosen), baina azken urteetan badirudi lehen kokalekua utzi egin dutela, ezin izan baita habia egiteko leku edo lotarako leku gisa erabiltzen dutenik egiaztatu (habiatako bat arrano beltzen bikote batek hartu duelako izan daiteke).

Elikatzeko eremuari dagokionez, El Castillo ehiza-barruti industrialaren inguruan dago kokatuta (Ozio), Cabrera mendian; alabaina, Portilla eta Toloño mendilerroak ere erabiltzen ditu, eta Alto de los Majuelos gainean kokatutako behatokia nabarmendu behar da.

Bestalde, lotarako leku ohikoenak Haroko mendateak (La Serna eta Las Planas) eta Gobera mendilerroa (Burgos) dira. Valinera sakanean (Araba) dagoen lotarako lekuaren erabilera-maiztasuna, aldiz, murriztu egin da.

Ildo horretatik, eta bikote ugaltzaile bakarrak KBE/HBBEan erabiltzen zuen eremua

murritzitu dela kontuan hartuta, espeziak eremuan duen kokapena desegokia dela uste da.

Populazioari dagokionez, aipatu bezala, bikote bakarra dago. Dena den, 2012an hainbat ale azpieldu ikusi dira eremuaren inguruan eta horietakoren bat irrati bidez markatuta dago ondoko autonomia erkidegoetan, esaterako, Nafarroan.

Bikote habiagilearen arrakasta ugaltzaileari dagokionez, informazioa jaso dugun azken hiru denboraldietan (2010-2012) ugalketak porrot egin du. Horren arrazoiak hauek izan dira: errunaldia gaizki egitea (2011ko eta 2012ko denboraldiak), eta inkubazioan akatsen bat egotea (2010). Era berean, azken 10 urteetan hegatu diren 4 txita bakarrik erregistratu dira (2002an 2, 2006an 1 eta 2009an 1). Hori dela eta, Bonelli arranoaren eremuko populazio-egoera txarra dela esan daiteke.

Bonelli arranoa espezie errupikola eta lurraldekoa da, beraz, mendilerro eta labar harritsuak dira berarentzako habitat egokiena. Horrez gain, egitura-aniztasun handia behar du, sastrakadiz eta basoz osatua, elikatze eta bizitzeko eremu gisa erabiltzeko (50-100 km² artekoa).

Habia egiteko habitatari dagokionez, Bonelli arranoak erliebe malkartsuak behar ditu eta altuera ertaina duten mendilerroen inguruetarako joera izaten duten, batez ere labar harrisuetan ugaltu. Bere habitat potentziala ontzat hartu dugu.

Bonelli arranoaren populazioaren etorkizuneko perspektibak txar gisa baloratu dira, beren egungo kokapenarengatik eta EAEko bikote ugaltzaile bakarrak azken denboraldian izandako ugalketa-porrotarengatik.

EB A093 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa			X	
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak			X	
Ebaluazio globala			X	

Ugatza (*Gypaetus barbatus*) - A076

Ugatza Eurasia eta Afrikako mendi-sistema handietan kokatzen den hegazti harraparia da. Mendi horietan egiten du habia, 1.000 m baino gehiagoko altueran. Europa mendebaldean hiru populazio autoktono bakarrik aipatu dira, Kretan, Korsikan eta Pirinioetan. Azken eremu horretan dago populazio handiena (100 bikote inguru).

Iberiar penintsulan, ugatza nagusiki Pirinioetan eta Pirinioaurrean kokatzen da (Katalunia, Aragoi eta Nafarroa), baina Pirinioaz kanpoko beste bi gune ere hartzen ditu: bat Euskal Mendietan eta bestea Kantauriar mendikatean. Azken horietan gero eta ohikoagoa da ale heldugabeak eta erratikoak ikustea.

Gaur egun, EAEn ez dago espezie honen ugalketarako beste lurralderik. 60ko hamarkadan hegazti ugaltzaile gisa agertu zen Valderejon eta Sobrónen. 90eko hamarkadatik hona kolonizazio-saiakera bat egin da Aralarren (Gipuzkoa eta Nafarroa), Andian (Nafarroa), Urbasa-Lokizen (Nafarroa) eta Araban (Arabako hegoaldeko mendilerroak HBBE). Gaur egun lehen bi lurraldeek beren horretan jarraitzen dute, eta EAEko ekialdean ikusten diren aleen kopurua areagotzen ari da urtez urte.

Hala, gaur egun ez dugu ezagutzen KBE/HBBEko paseko ugatzaren kokapena, ezta populazioa ere.

Habitatari dagokionez, ugatza 1.000-3.000 m arteko altuera duten mendiguneei lotutako espezie lurraldekoa da. Horma harritsu handietan egoten da, eta horietan egiten du habia,

haitzulo edo erlaitzetan. Haize orografikoak behar ditu bere elikatzeko eremua osatzen duten hedadura handiak esploratzeko, baita horietan elikagaiak egotea ere, bereziki unguatuak, etxeokak eta basatiak. Hori dela eta, KBE/HBBEko habitat potentziala espeziearentzat ona dela uste da.

Ugatzaren Natura 2000 eremuetako etorkizuneko perspektibak ezezagun gisa kalifikatu dira; izan ere, eremuko indibiduo azpieldu erratikoen kopurua azken urteetan areagotu egin bada ere, ez dirudi espeziearen egonlekurik dagoenik.

EB A076 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Sai zuria (*Neophron percnopterus*) - A077

Sai zuria aztergai dugun eremuko udaldiko migrazio-hegazti nekrofagoa da. Bere negualdi-eremuak Saharaz hegoaldeko Afrikan daude.

Habia bakarka egiten du, ebakiduretako erlaitz eta hutsuneetan, mota guztietako inguruneetan. Ez du baldintza zorrotzik ugalketarako ebakiduraren inguruko habitataren ezaugarriei dagokienez.

Hegazti nekrofagoa da eta bere elikadura etxeok ganaduaren sarrasketan eta tamaina ertain eta txikiko ornodunetan oinarritzen da batez ere. Elikagaiak gunere irekietan bilatzen ditu. Baldintza ekologiko horiek kontuan hartuta, espezie honentzako KBE/HBBEko habitat potentziala positiboki baloratzen da.

Populazio-mailei dagokienez, 2008an eginiko azken erroldan sai zuriaren populazioa bi bikote ugaltzailekoa izan zen KBE/HBBEan. Biak Toloño mendilerroan kokatzen dira (Peña Parda Guardian eta San Cristóbal mendia Bastidan).

Era berean, 2006an Arabako Foru Aldundiak beste bi bikote erregistratu zituen, bat ziur ikusitakoa Las Conchas tunelean (Gatzaga Buradon) eta beste probable bat Peña del Medio mendian (Bergantzu). Azken horretan ez da espeziearen presentziarik egiaztatu gauzatutako laginketa desberdinetan. KBE/HBBEko sai zurien populazioaren egoera desegokitzat jotzen da.

Aztergai dugun eremuko kokapena ere desegokia da, habia egiteko eta bizitzeko erabilgarri dagoen habitata eta horren okupazio urria kontuan hartuta.

Bi Natura 2000 eremu hauetako sai zuriaren etorkizuneko perspektibak ez dira onak azken urteetan ikusitako populazioaren bilakaera eta mundu-mailan duen egoera kontuan hartuta; izan ere, hegazti migratzaile honen penintsulako kontserbazio-egoera nahiko larria da (Liburu Gorriaren arabera, «Arriskuan» dago).

EB A077 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Sai arrea (*Gyps fulvus*) – A078

Sai arrea edozein litologiatako ebakidura harritsueta ugaltzen den hegazia da, baina nahiago izaten ditu kareharrizko inguruneak, bai mendiguneetakoak bai korrante termiko askoko ibai-arroiletakoak. Ereku irekietatik gertu kokatzen da, sarraskia bilatzeko; bereziki, hilotz handi eta ertainak. KBE/HBBEko habitataren ezaugarriak onak dira espezie honentzat.

Babestutako Naturguneko sai arrearen populazioa gutxi gorabehera 128-138 bikotekoa dela kalkulatu da, eta horietatik 115 Toloño mendilerroan daude kokatuta. Populazio hau % 60 baino gehiago areagotu da azken 5 urteetan, 0,54 inguruko produktibitate-tasarekin; beraz, populazioaren egoera ona dela esan daiteke.

Eremuan duen kokapenari dagokionez, adierazi bezala, ugalkolonia nagusiak Toloño mendilerroan daude kokatuta: Valinera-Las Conchas sakana, Peña Parda eta Peña El León; baita Cabrera mendia eta Portilla mendilerroa ere. Dena den, ohikoa da ugaltzaileak ez diren beste ale batzuk ikustea beste gune batzuetan. Beraz, espeziaren kokapen-eremua on gisa baloratu da.

Euskal Autonomia Erkidegoan espezieari mugak jartzen dizkieten faktore nagusi gisa, giza-jazarpena eta linea elektrikoekin izandako istripuak aipatu behar dira. Zenbait argitalpenetan elikagaiaren murrizketa ere aipatzen da, simaurtegiak itxi izanaren edo etxeko ganaduaren hilotzak inguruetatik kendu izanaren ondorioz. Alabaina, egungo populazio-egoera kontuan hartuta, badirudi ez dagoela elikagai faltarik, beraz, logikoa da argudiatzea saiek behar adina elikagai aurkitzen dutela kendu gabe dauden ganadu-hilotzetan, ungalatu basatien sarraskietan eta beste elikadura-iturri artifizial batzuetan (esaterako, Gardelegiko udal-zabortegean). Beraz, espezieak eremu honetan dituen etorkizuneko perspektibak onak dira.

EB A078 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziaren habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Arrano beltza (*Aquila chrysaetos*) – A091

Arrano beltzak amildegiak behar ditu habiak egiteko, eta gune irekiak ehizatzen. Askotariko habitatak izaten ditu, laborantza-eremuetatik sastrakadietara, baina badirudi paisaia irekiak nahiago dituela, baso-eremu zabalak saihestuz. Habiak egiteko lekuak gune lasaiak izaten dira, gizakiaren esku-hartze txikia dutenak (Arroyo, 2004). KBE/HBBEko habitataren ezaugarriak espeziearentzako egokiak direla uste da.

Populazioari dagokionez, 2006an Araban eginiko erroldaren arabera, 5 bikote ziur eta bikote probable bat zeuden (5-6 bikote) KBE/HBBEan; horietatik, 2 bikote (1 probablea) Toloño mendilerroan zeuden kokatuta. Bestalde, zenbait egilek azken eremu horretan 3 bikote ziur daudela adierazten dute, beraz, badirudi 2006an erroldatutako ale guztiak eremuan finkatu direla. Halaber, Lokiz, Kodes eta Portilla mendilerroetako ugalketa-kopuruak bere horretan jarraitzen du. Ereku honetako arrano beltzatzen populazio-egoera ontzat hartzen da.

HBBEko arrano beltz bikoteak Istora sakanean (Lokiz mendilerroa), La Dormida sakanean (Kodes mendilerroa) eta Portilla mendilerroan daude kokatuta, baita Peña Media, Pecho Escorza eta Peña del León (Toloño mendilerroa) inguruetan ere; beraz, alderdi hau on gisa kalifikatu da.

Horrez gain, adierazi behar da bikote ugaltzaile bat ikusi dela Toloño mendilerroaren alderdi errioxarrean, Herrera mendatearen inguruan. Bizi-eremua bertan badute ere, bikote hori ez da KBE/HBBEko espezie ugaltzaile gisa zenbatu, beren habia Errioxan kokatuta dagoelako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, espezie honek Natura 2000 sareko eremuetan dituen etorkizuneko perspektibak onak direla esan daiteke.

EB A091 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Belatz handia (*Falco peregrinus*) – A103

Belatz handia hainbat habitatetan ugaltzaile daiteke, baina habia egiteko leku egokiak eta harrapakinak lortzeko aukera izan behar du; horregatik, gehienetan eremu irekietatik gertuko harkaitz-guneak aukeratzen ditu. KBE/HBBEan espeziearentzako dauden habitat-baldintzak egokiak dira.

2005ean, Arabako Foru Aldundiak belatz handiaren 5 lurralde aipatu zituen Toloño mendilerroaren barnean (Bastida, Pagoeta, Guardia, Kripan eta Bernedo); urtebete beranduago, aldiz, 7 zenbatu ziren, izan ere, lurralde batzuk desagertu ziren (Pagoeta eta Bernedo) eta beste batzuk hartu zituen (Gatzaga Buradon, Monotoria, Herrera mendatea eta Guardia). Bestalde, Lokiz mendilerroan belatz handiak bele-habi bat okupatu du eta Portilla mendilerroan beste bikote bat aipatu da. Beraz, falkoniforme honek aztergai dugun eremuan dituen populazioa eta kokapena egokiak dira.

Ez da egungo populazio ugaltzailearentzako arazo nabarmenik aipatzen, baina hauek dira adierazitako eragozpen nagusiak: ezkutuko ehiza, pozoia eta azpiegituren ondoriozko elektrokuzioa edo talka. Hontz handiarekin lehia izan dezakeela ere aipatzen da.

EB A103 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Hontz handia (*Bubo bubo*) – A215

Gaueko harrapari hau hainbat habitatetara egokitzen da, baldin eta baliabide trofikoak eta ehizarako eremu irekiak baditu. Normalean harkaitzetan eta ebakiduretan egiten du habia, baina baita zuhaitzen gainean ere, giza-jarduera askoko eremuak saihestuz. KBE/HBBEko bere habitat potentzialaren ezaugarriak on gisa hartzen dira.

Populazio-mailei dagokienez, 12 lurralde aipatu dira; horietako bat Lokiz mendilerroan dago, beste bat Kodes mendilerroan eta beste bat Cabrera mendian. Bestalde, Toloño mendilerroaren mendebaldeko aldean espezie honen kontzentrazio bat ikus daiteke, 4 lurralde hartzen dituen, eta gainerakoak gailur-lerroaren inguruan sakabanatuta daude. Beraz, hontz handiaren kokapena eta populazio-mailak ontzat jotzen dira.

Etorkizuneko perspektibak ere onak dira, baldin eta habitatean aldaketarik gertatzen ez bada.

EB A215 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa	X			
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*) – A346

Korbido honek batez ere mendiguneetako haitzuloetan, arrailetan eta hutsuneetan eta ibaien ebakiduretan egiten du habia, baina giza-eraikuntzetan ere ikus daiteke. Elikatzeko gune gisa mendiko larreak edo nekazaritza- eta artzaintza-sistema tradizionalak erabiltzen ditu, landaredia urrikoak. KBE/HBBEko habitat potentziala ona da espeziearentzat.

Eremu hauetan oso zabaldua dagoen hegaztia da, harkaitz-guneei lotutakoa, baina ez ditugu bere populazio-mailak ezagutzen.

Etorkizuneko perspektibei dagokienez, eremu hauetan ez da kalte esanguratsurik aipatu; beraz, on gisa baloratzen dira, baldin eta habitatean aldaketarik gertatzen ez bada.

EB A346 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak	X			
Ebaluazio globala	X			

Ferra-saguzar handia (*Rhinolophus ferrumequinum*) – 1304

Espezie ubikista hau mota guztietako inguruneetan egoten da, baina nahiago ditu gune irekiekin tartekatutako zuhaitz-eremuak. Babeslekuetara dagokienez, haitzuloak eta eraikin antropikoak erabiltzen ditu, baina azken horiek ugalkolonia gisa hautatzen ditu gehienbat. Bizi-eremuak babeslekuetatik 3-4 km ingurura izaten ditu, basoen eta hesien ertzetan, eta horietan gauerako egonlekuak bilatzen ditu, bertatik harrapakinak lokalizatzeko. Hori kontuan hartuta, KBE/HBBEko habitata on gisa baloratzen da espezie honentzat.

Eremuan duen kokapenari dagokionez, hainbat kolonia aurkitu dira inguru hauetan; beraz, parametro hau ere ontzat jotzen da.

Ez dira ezagutzen KBE/HBBEko populazio-mailak, ezta etorkizuneko perspektibak ere.

EB 1304 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Ferra-saguzar txikia (*Rhinolophus hipposideros*) - 1303

Ferra-saguzar txikia nagusiki haitzulotarra da hilabete hotzetan, baina ugalkoloniak abandonatutako eraikinetan eta ganbaretan egoten dira. Babesleku horiek bizi-eremuetatik gertu egoten dira; bizi-eremu gisa baso-guneak erabiltzen ditu, batez ere hostogalkorrekoak, baita gune horien ertzak, hesiak eta baso erriparioak ere, baldin eta gainazaleko ur-masak barne hartzen badituzte. Beraz, KBE/HBBEko habitata ontzat hartzen da espezie honentzat.

Eremu hauetan, Lokiz eta Toloño mendilerroetan aipatu da, baina baita beste leku batzuetan ere: San Leon, Urizaharra, Kripan, etab. Beraz, espeziearen kokapen-eremua on gisa baloratzen da.

Populazio-mailei eta etorkizuneko perspektibei dagokienez, ezin izan da horien balorazioa egin, horretarako informaziorik ez dugulako.

EB 1303 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Ferra-saguzar mediterranea (*Rhinolophus euryale*) - 1305

EAEko kiroptero mehatxatuenetako bat da, nagusiki haitzulotarra (bai ugaltzeko bai hibernatzeko), eta baldintza mikroklimatiko egonkorreko haitzuloak behar izaten ditu.

Bizitzeko habitatari dagokionez, baso hostogalkorrak eta heskai naturalak hautatzen ditu, haran hondoko landazabal zuhaitzuetan kokatuak eta mosaikotasun-maila handikoak. KBE/HBBEko eremuko habitat potentziala espeziearentzako ona dela uste da.

Espeziearen eremuetako kokapenari dagokionez, Toloño mendilerroan aipatu da, eta ikertzailearen batek eremuan ikusi dutela adierazi du, bertako populazioa oso esanguratsua ez bada ere. Ez ditugu espeziearen populazio-mailak ezagutzen.

Espeziearen etorkizuneko perspektibak ere ezezagunak dira, ez baitugu saguzar honek Natura 2000 eremuetan duen egoerari buruzko informazio askorik.

EB 1305 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Arratoi-belarria (*Myotis myotis*) - 1324

Kiroptero hau baso irekiekin eta larre zuhaitzuetan lotzen da. Batez ere haitzuloak eta meatzeak erabiltzen ditu babesleku gisa, baina baita eraikin antropikoak ere. Bizi-eremua baso askoko guneeetan izaten du, eta horietan ehizatzen du, gune irekietan edo landutako lurretan. Hori kontuan hartuta, Arabako hegoaldeko mendilerroetako habitata espezie honentzat ona dela esan daiteke.

Toloño-Kantabria mendilerroa/Arabako hegoaldeko mendilerroak KBE/HBBEaren barnean, Kripan eremuan aipatu izan da; baina egile batzuen arabera, espezie hau Toloño mendilerroko hainbat puntutan ikus daiteke. Hala, eremuaren potentzialtasuna oinarritzat hartuta, espezieak bertan duen kokapena ontzat hartzen da.

Bestalde, ez dira ezagutzen eremuetako populazio-mailak, ezta etorkizuneko perspektibak ere.

EB 1324 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Arratoi-belarri ertaina (*Myotis blythii*) - 1307

Arratoi-belarri ertaina oso taldekoa da eta eremu ireki eta bero edo erdiaridoekin lotzen da; uzta-larreak eta larre artifizialak ere erabiltzen ditu, baina gutxiago.

Babesleku gisa, neguan haitzuloak eta meatzeak erabiltzen ditu eta udan teiltupeak edo ganbarak ere erabil ditzake. Beraz, KBE/HBBEko habitata ona da espeziearentzat.

Kokapenari dagokionez, EAEn hegoaldeko muturrean bakarrik dago; bi aldiz bakarrik ikusi da Toloño mendilerroaren hegoaldean.

Gaur egun ez dugu ezagutzen espezieak eremuetan duen populazio-maila, ezta etorkizuneko perspektibak ere.

EB 1307 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Geoffroy saguzarra (*Myotis emarginatus*) - 1321

Saguzar hau habitat askotan egoten da, baina nahiago izaten ditu orografia malkartsuko eremuak, baso-estaldura eta ur-ibilera egonkorak dituztenak. Dena den, badirudi baso oso itxiak saihestu egiten dituela. Neguan, espeziearen babesleku nagusiak haitzulo beroak eta eraikinak izaten dira; udan, aldiz, indibiduo isolatuek pitzadurak, zuhaitzetako hutsuneak eta, batzuetan, zubiak ere erabiltzen dituzte. KBE/HBBEko espeziearen habitat potentziala ontzat hartzen da.

Eremuan duen kokapena on gisa baloratzen da; izan ere, isolatutako aleak eta ugalkoloniak aurkitu dira hainbat lekutan: Kripan, Guardia eta Urizaharra.

Ez ditugu ezagutzen KBE/HBBEko espeziearen populazio-maila, ezta horren etorkizuneko perspektibak ere.

EB 1321 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Pipistrello arrunta (*Pipistrellus pipistrellus*) - 1309

Espezie hau fisurikola da; harkaitzen arrailetan, zuhaitzen hutsuneetan, habia-kutxetan eta eraikinetan izaten du babeslekua. Hainbat ingurunetan aurki daiteke, hiriguneetatik hasi eta goi-mendietaraino. KBE/HBBEko habitata espeziearentzat ona dela uste da.

KBE/HBBEan oso ugaria dela uste badugu ere, ez ditugu bere populazio-mailak eta

etorkizuneko perspektibak ezagutzen, beraz, ezinezkoa da horien ebaluazioa egitea.

Bere kokapen-eremua zabala da KBE/HBBEan: Lokiz, Kodes, Toloño eta Portilla mendilerroak, baita Cabrera mendia ere. Hori dela eta parametro hau on gisa baloratu da.

EB 1309 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Saguzar mediterranea (*Pipistrellus pygmaeus*) - 5009

Saguzar mediterranea espezie fisurikola eta antropofiloa da, eta babesleku ugari erabiltzen ditu, mota desberdinetako eraikinetatik hasi eta zuhaitzen eta harkaitzen pitzadura edo hutsuneetaraino.

Bizitzeko eta ehizatze eremuak ibaietatik eta beste eremu heze batzuetatik gertu egon ohi dira, hesi eta ibaiertzeko landare askoko guneetan. Hori kontuan hartuta, KBE/HBBEko habitata espeziearentzat ona dela uste da.

Kokapenari dagokionez, Toloño eta Lokiz mendilerroetan agertu da.

Espezieak Natura 2000 eremuan dituen populazioa eta etorkizuneko perspektibak ezezagunak dira.

EB 5009 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Nathusius pipistrela (*Pipistrellus nathusii*) - 1317

Nathusius pipistrela ibilbide handiko espezie migratzailea da; hego-mendebaldetik ipar-ekialderako mugimendu patroia du, negua igarotzeko lekutik ugaltzeko lekura.

Batez ere baso-guneetan, parkeetan eta haltzadietan bizi izaten da, mota guztietako babeslekuak hartuz: zuhaitzetako zuloak edo arrailak, babesleku artifizialak, eraikinetako zirrikituak, etab.

Ehizarako tokiak ibaietan izaten dituzten, baita urmaeletan edo basoen ertzetako ibaietan ere.

Ez dago aztergai ditugun eremuetako espezie honi buruzko ia informaziorik, eta KBE/HBBEko Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitatearen Informazio Sistemak bakarrik aipatu da.

EB 1317 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata				X
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Kuhl pipistrelloa (*Pipistrellus kuhlii*) - 2016

Espezie hau oso sinantropikoa da eta hiriguneetan gehien aurki daitekeena da, baina nahiago ditu behe-mendiko gunek eta haran-hondoak.

Izaera fisurikola izanik, babesleku desberdinak erabiltzen ditu: harkaitzak; zuhaitzetako zuloak; habia-kutxak; egurrezko, harrizko edo hormigoizko eraikinak; etab. Baldintza horiek kontutan hartuta, KBE/HBBEko habitat potentziala espeziearentzat ona dela baloratu da.

Saguzar honek kokapen egokia du eremuan, Toloño eta Portilla mendilerroetan, Cabrera mendian (Kripan, Bastida, Urizaharra, Gatzaga Buradon, etab.), eta Lokiz eta Kodes mendilerroetan agertzen baita. Dena den, ez dira eremu guztietan dituen populazio-mailak eta etorkizuneko perspektibak ezagutzen.

EB 2016 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Savi saguzarra (*Hypsugo savii*) - 5365

Savi saguzarra Iberiar penintsula osoan aurki daiteke. Dena den, kokapen zabala baina etena du, ez baitago aipamenik Duero, Tajo, Guadiana eta Guadalquivir ibaien arroetan, ezta Galiziako ipar-mendebaldeko muturrean ere. EAERI dagokionez, hegoaldeko muturrean bakarrik aurki daiteke, Portilla, Kantabria, Kodes eta Lokiz mendilerroetan, eta Cabrera mendian. Kiroptero honek aztergai ditugun eremuetan duen kokapena ontzat hartzen da.

Gaur egun ez ditugu ezagutzen espezieak eremu hauetan dituen populazio-mailak, ezta etorkizuneko perspektibak ere.

Saguzar hau harkaitzetako eta mendiguneetako espeziea bada ere, mendiko larreetan, eremu karetsuetan edo herrietan ere aurki daiteke, eta babeslekua harkaitzen pitzaduretan, zuhaitzetan eta eraikinetan izaten du. Ehizarako tokiak nekazaritza-inguruneetan, gizakien kokalekuetan, urmaelak dituzten mendiko guneetan, argiguneak dituzten basoetan, etab. kokatzen dira. KBE/HBBEko habitata ontzat hartzen da.

EB 5365 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Baratze-saguzarra (*Eptesicus serotinus*) - 1327

Espezie litofilo eta antropofilo hau mota guztietako giza-eraikuntzetara egokitu da: zabalkuntza-junturak, pertsianen kutxak, etab. Halaber, azaleratutako harkaitzen pitzadura eta arrailetan eta, gutxiagotan bada ere, zuhaitzen hutsuneetan agertzen da. Bere bizitzeko habitata askotarikoa da, hiriguneak, basoak eta ibai-guneak barne hartzen baititu. Lokiz, Kodes, Kantabria eta Portilla mendilerroetako habitata ona dela uste da, baita Cabrera mendikoa ere.

Toloño-Kantabria mendilerroa/Arabako hegoaldeko mendilerroak KBE/HBBEko espeziearen kokapena on gisa baloratzen da, barne hartzen dituen eremu guztietan ohikoa baita.

Ez dugu populazio-mailei eta etorkizuneko perspektibei buruzko informaziorik, beraz, ezin ditugu parametro hauek ebaluatu.

EB 1327 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Hegoaldeko belarrihandi grisa (*Plecotus austriacus*) - 1329

Habitat ugariekin lotzen da, hasi gune ireki edo erdibasokoetatik eta gune basotsuetaraino; alabaina, nahiago izaten ditu orografia irregularreko eremuak. Babeslekuak haitzuloetan, meatzeetan, eraikinetan edo zuhaitzetan izaten ditu, eta ugalkoloniak eta udaldirako egonlekuak, aldiz, teilatupeetan edo isolatutako haitzuloetan egoten dira. Hori kontuan hartuta, KBE/HBBEko habitata espeziearentzako ona dela uste da.

Espezieak eremu hauetan duen kokapena ere ona da, Kantabria eta Kodes mendilerroetan aurki baitaiteke. Alabaina, ez ditugu populazio-mailak eta etorkizuneko perspektibak ezagutzen, ez baitugu horiek aztertze behar besteko informaziorik.

EB 1329 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Shreibers saguzarra (*Miniopterus schreibersii*) - 1310

Espezie haitzulotar honek haitzuloetan eta meatzeetan izaten du bere babesleku nagusia, baina baita teilatupeetan, harkaitzetako pitzaduretan, tuneletan edo zubietan ere. Ehizarako habitata ibaietatik edo urmaeletatik gertu izaten du, baina baita herrietan ere. KBE/HBBEko habitat potentziala ona da espeziearentzat.

Bere kokapena on gisa baloratzen da, ohikoa baita Lokiz, Kodes eta Toloño mendilerroetan; horrez gain, EAEko ugalkolonia nagusienetako bat oso gertu du.

Ez dugu populazioari buruzko informaziorik, beraz, ezin izan dugu ebaluatu; eta gauza bera gertatu da etorkizuneko perspektibekin.

EB 1310 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Saguzar buztanluzea (*Tadarida teniotis*) - 1333

Saguzar buztanluzeak leku irekiak aukeratzen ditu bizi-eremu gisa; esaterako, herriak, argiguneak dituzten basoak, bazkalekuak edo larreak. Babeslekuak, aldiz, ia helezinak diren harkaitzen pitzaduretan kokatzen dira normalean, baina baita beste leku batzuetan ere, esaterako, ebakidura eta amildegietan, haitzuloetan, osinetan, zubietan, etab. Arabako hegoaldeko mendilerroetan (KBE/HBBE), saguzar buztanluzearen habitat

potentziala ona da.

Espezie honek KBE/HBBEan kokapen egokia du; zehazki, Portilla, Toloño, Kodes eta Lokiz mendilerroetan eta Cabrera mendian aurki daiteke. Dena den, egungo populazio-mailak ezezagunak dira eta ez dugu espezieak eremu honetan izango dituen etorkizuneko perspektibak ebaluatzeko informaziorik.

EB 1333 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Presioak eta mehatxuak

-. Laboreak aldatzea (A02.02): Azken urteetan aldaketa bat gertatu da, batez ere Toloño mendilerroaren hegoaldeko laboreetan; zehazki, zereal-laboreak beste labore zurkara batzuekin ordeztu dira pixkanaka, bereziki mahastiekin, eta horrek elikatzeko eta bizitzeko habitataren galera ekar diezaike "Harkaitzak eta antzeko inguruneak" Elementu Gakoen Multzoko fauna-espezieei. Mota honetako laboreak besora jartzen dira gehienetan, eta horrek bertako faunak talka egitea eta eremu horiek ehizarako baztertuta uztea ekar dezake.

-. Biozidak, hormonak eta produktu kimikoak erabiltzea (A07): hegazti errupikolen eta kiropteroen populazioarentzako mehatxu nagusienetako bat da, elikadura- eta bizi-eremuei eragiten baitie. Kiroptero antropofiloenei ere eragiten diete eraikinetako egurrak babesteko erabiltzen diren konposatu organokloratueta eta organofosforodunetan oinarritako tratamenduek.

-. Harrizko hormak eta euste-hormak kentzea (A10.02): kiropteroen kasuan, ohikoak dira zubietako edo beste eraikin batzuetako pitzadurak hormigoiz betetzearekin zerikusia duten kalteak.

-. Energia berriztagarri abiotikoak erabiltzea (C03): espezie hauentzako mehatxuetako bat azpiegitura handien eraikuntza da, bereziki hegaztientzat eta espezie kiropteroentzat, baina baita gailurretako eremuetako landare-espezieen populazio batzuentzat ere.

-. Zerbitzu publikoko azpiegitura linealak (D02): gizakiak flora-espezie hauetan edo ingurumen-baldintzetan eragin zuzena izateko dituen aukerak baxuak dira normalean, baina noizean behin, azpiegitura handiak instalatzeak (komunikazio-bide azkarrak, komunikazio-antenak edo parke eolikoak) kalteak eragin diezazkieke. Horrez gain, harraparien kasuan, mehatxu nagusienetako bat linea elektrikoekin talka egiteko arriskua da.

-. Animaliak tranpen bidez eta pozoi bidez harrapatzea; isileko ehiza (F03.02.03): pozoi bidezko intoxikazioa da harrapari errupikolen populazioaren mehatxu nagusienetako.

-. Alpinismoa, eskalada, espeleologia (G01.04): hegazti errupikolen eta kiropteroen populazioarentzako arrisku-faktore nagusienetako bat ugalketa-eremuetako eragozpenek osatzen dute, eskaladaren, mendizaletasunaren eta halako beste jarduera batzuen ondorioz.

- Harrapakinen eskuragarritasunaren murrizketa (sarraskia barne) (J03.01.01): ikertzaile batzuek hegazti errupikolentzako elikagaien eskuragarritasuna murriztu dela aipatzen dute. Horrez gain, nekazaritzako lurren erabilera aldatu izanaren ondorioz, harrapakinen eskuragarritasuna murriztu dela ere adierazi dute; zehazki, ikertzaile batzuen arabera, zereala lantzeko lurak besora jarritako mahastiekin ordezkatzek nabarmen murriztu du harrapakin-espezieen populazioa (esaterako, eper gorriena).

- Habitaten konektibitatearen murrizketa antropogenikoa (J03.02): multzo honetan sartutako flora-espezie gehienentzat, beren populazioei eusteko baldintzatzaile nagusiak jasan behar dituzten baldintza biogeografikoekin dute lotura: espezieak kokapen-eremu txikietara eta habitat edo ingurune oso zehatzetara mugatuta egotea, egokitzapen espezifikoak eskatzen dituzten ingurumen-baldintzatzaile sendoekin; eta habitaten ezaugarrien ondorioz (urriak eta azalera txikikoak), espezie horiek lurralde potentzial oso txikiak eta zatikatuak izatea, espezieek distantzia handiko konektibitate-fenomenoekiko eta klima- eta inguru-aldaketekiko menpekotasun handia izan dezatela eraginez.

Aztertutako populazioen egoera kontuan hartuta (besteak beste, espeziaren kokapen orokorrean leku marjinal bat edo eremuaren ertz bat hartzearen eragina jasan behar dute), are nabarmenago ikusten da konektibitate-fenomeno horiekiko menpekotasuna; izan ere, inguruko populazioetatik errefortzuak jasotzeko aukera gutxiago edukitzeaz gain, ingurumen-mugen eta muga biografikoen aldaketa jasateko arriskua dute, eskala handiagoan gertatzen diren lurraldeen erabileraren aldaketek edo klima-aldaketek sorraz ditzaketen tokian tokiko aldaketen ondorioz.

Baldintzatzaileak

Baldintzatzaile positiboen artean dago hegazti errupikolei egiten zaien etengabeko segimendua, bai Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Zerbitzuko basozainen aldetik, bai Aldundiak kontratatutako teknikari espezialisten aldetik.

Bestalde, 2009an, Arabako Foru Aldundia «Interreg Necropir: Biodiversidad Sostenible en los Pirineos» proiektuaren onuradun suertatu zen. Proiektu horren baitan, sai arreen 10 kolonia piloturen segimendua egiteko programa ezarri da; 10 kolonia horietatik hiru Toloño eta Portilla mendilerroetan eta Cabrera mendian (Salinillas-Ocio- Recilla-Peña Parda eta El León) daude.

Bonelli arranoaren kasuan, bada kudeaketa-plan bat Arabako Lurralde Historikoan, irailaren 28ko 612/2001 Foru Aginduaren bidez onartua (ALHAO, 120. zk., 2001eko urriaren 22koa), eta bertan jasota daude ugaltzeko eta elikatzeko tokiei buruzko gidalerroak eta arauak.

Bestalde, 2001ean, Arabako Foru Aldundia «Proyecto LIFE-Naturaleza para la recuperación del Águila de Bonelli (*H. fasciatus*) en Álava (LIFE00NAT/E/7336)» proiektuaren onuradun suertatu zen. Proiektuak Bonelli arranoaren habitata hobetzeko zenbait jardun hartu zituen barnean, besteak beste, 89,4 km-tan linea elektrikoak zuzentzea, Bonelli arranoak habia egiteko erabiltzen dituen eremuen inguruetan kokatutako barrutietako ehiza-antolamendurako planak idaztea (kontserbazio-irizpideetan oinarrituta), eta bikote ugaltzailearen irrati bidezko segimendua, kontrola eta zaintza egitea.

Halaber, berriki, Arabako Foru Aldundia, beste administrazio eta erakunde batzuekin batera, «Proyecto LIFE + Integral recovery of Bonelli´s eagle population in Spain (LIFE 12 NAT/ES/000701)» proiektuaren onuradun suertatu da. Proiektuak lau urteko iraupena du (2013/07/01etik 2017/09/30era) eta hainbat ekintza hartzen ditu barnean, besteak beste, habitata kontserbatzea eta harri-pilak eta usategiak jartzea, untxiaren populazioa indartzea eta linea elektrikoak zuzentzea. Historian presentzia handia izan duen guneetan populazioak indartzea ere aipatzen du. Espeziearentzako baldintzatzaile negatibo gisa,

aipatzekoa da, gaur egun, Arabako Lurralde Historikoan duen ehiza-gunearen zatirik handiena Natura 2000 Saretik kanpo dagoela eta, hortaz, baita EAeko Naturgune Babestuen Saretik kanpo ere.

Ugatzari dagokionez, nazioan «galzorian» dagoen espeziea da; horregatik jarri zen martxan Espainian, 2000n, Ugatza Kontserbatzeko Estrategia.

Bestalde, onartzeko bidean da Euskal Autonomia Erkidegoko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana, Euskadiko Administrazio Orokorrak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek sinatua. Planak interes bereziko eremutzat hartzen du Arabako hegoaldeko mendilerroak/Sierras meridionales de Álava HBBE (Lokiz, Kodes eta Toloño mendilerroak) hegazti nekrofago batzuentzat; alegia, ugatza, sai zuria eta sai arrea. Horretaz gain, zenbait gidalerro, debeku eta neurri ezartzen ditu espezie horiek kontserbatzeko eta kudeatzeko. Baterako Kudeaketa Planak, halaber, Espezie Nekrofagoak Elikatzeko Babesguneen Inbentario Ofiziala sortzen du, eta bertan sartzen ditu Natura 2000 Sareko bi eremuak.

Elikagune artifizialei dagokienez, gaur egun, Arabako Foru Aldundiak kudeatzen du Analamendiko simaurtegia, Toloño eta Portilla mendilerroen ipar-ekialdean eta Lokiz eta Kodes mendilerroen ipar-mendebaldean kokatua. Era berean, Nafarroako Gobernuak badu simaurtegi bat Lokiz mendilerroaren Nafarroako zatian, PASAN sarearen barruan.

Lehengoratzeko eta kudeaketa-planen zenbait proposamen ere badaude, bai kiroptero-espezie zehatzetarako, bai kiropteroetarako oro har. Hala, badago EAEn ferra-saguzar mediterraneoaren lehengoratzeko planaren proposamena, 2007an berrikusia. Orobat, arestian adierazi bezala, badago EAeko kiropteroentzako ekintza-planaren proposamen bat ere.

7. KE.- Anfibioak eta narrastiak

Kontserbazio-egoera

Gailurretako uhandrea (*Triturus alpestris*) - 2353

Gailurretako uhandrea habitat mota desberdinetan agertzen da, hasi larreetatik eta pagoedo haritz-basoetaraino. Ez da oso zorrotza ugaltzeko lekua aukeratzeko garaian, beraz ur lasaietan aurki daiteke (esaterako, erreketako putzuetan edo goi-mendietako lakuetan), baina baita aldi baterako urmaeletan, iturrietan, asketan eta paduretan ere.

Lokiz mendilerroa espezie honen kokapen-eremuaren hegoaldeko muturrean dago, beraz, bertako kontserbazio-egoera baldintza dezake. Bi urmaeletan aurkitu izan da (Kontrasta eta Done Bikendi Harana), eta KBE/HBBE eremuan duen kokapena ontzat jotzen da.

Mendilerro honetan habitatak anfibio honek behar dituen ingurumen baldintzak betetzen dituela ulertzen da.

Populazio-mailei dagokienez, lehenago eginiko laginketek ale helduak eta larbak daudela adierazten badute ere, horien populazioa ez dugu ezagutzen. Ez dago espezieak Lokizen dituen etorkizuneko perspektibak ebaluatzeko behar adinako informaziorik.

EB 2353 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Txantxiku arrunta (*Alytes obstetricans*) - 1191

Ingurumen mota guztiei lotutako espeziea da, baldin eta ur-mailei beren horretan eusten bazaie; hori dela eta, urmaeletan, asketan, iturrietan edo ureztaketarako urasketan aurki daiteke. Beraz, KBE/HBBEko habitata espezie honentzako ona dela uste da.

Txantxiku arrunta espazio gehienetan agertzen da, baina ez dugu bere populazio-mailei buruzko informazio zehatz eta berririk. Ildo horretatik, badirudi Toloño mendilerroan Arabako iparraldeko beste eremu batzuetan erregistratutako dentsitateak baino txikiagoak erregistratu direla; aldiz, Lokizen espezie oparoenetako bat da, nahiz eta dirudenez populazioa murriztu egin den.

Kokapenari dagokionez, altuera txikiagoko erreka txikiak nahiago dituela dirudi, baita zenbait urmael ere: Toloño mendilerroan, La Llana, eta Lagran I eta II; eta Lokizen, Kontrasta, Uribarri Harana eta Alda. Espeziearen eremuetako kokapena ontzat jotzen da.

Txantxiku arruntaren eremu honetako populazioen egoerari buruzko informazio zehatzik ez dugunez, ezinezkoa da alderdi hau baloratzea, ezta etorkizuneko perspektibak ere.

EB 1191 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea	X			
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Hegoaldeko apo pintatua (*Discoglossus jeanneae*) - 1195

Hegoaldeko apo pintatua (*Discoglossus jeanneae*) endemismo iberiko bat da, Iberiar penintsularen ekialdeko erdi osoan kokatua; KBE/HBBE eremua bere iparraldeko muturrean dago kokatuta.

Apo hau ur gelditan egoten da, beraz, ibai eta erreka txikitan, iturrietan, urasketan eta edanleketan agertu ohi da. Eremuetako habitataren egoera ona dela uste da.

Kokapenari eta populazio-mailei dagokienez, 2009an eta 2010ean eginiko laginketetan ez zen alerik aurkitu Toloño-Kantabria mendilerroan, baina ezin da etorkizuneko azterketetan agertuko ez denik aurreikusi. KBE/HBBEko gainerako mendilerroei dagokienez, ez dugu espezie honi buruzko informaziorik. Hori dela eta, bi parametroak ezezagun gisa markatu dira.

Hori kontuan hartuta, etorkizuneko perspektibak ere ezezagunak dira.

EB 1195 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Apo ezproiduna (*Pelobates cultripes*) - 1198

Apo ezproiduna (*Pelobates cultripes*) ia Iberiar penintsula osoan dago kokatuta. Dena den, bere populazioa bakanagoa da iparraldean, bertan ia desagertu egiten baita.

EAEan, Araba hegoaldean bakarrik aipatzen da, itsas mailaren gaineko 600 metrotik beherako altueretan. Hain zuzen ere, hori da espeziaren iparraldeko kokapenaren muga. Espeziak badu presentzia eremuan, nahiz eta ez dugun hemen aipatzen ditugun mendilerroetako kokapena ezagutzen, ezta bere populazio-mailak ere. Edonola ere, bere presentzia Toloño edo Kantabria mendilerroa mugatzen dela esan dezakegu; zehazki, Portillara eta Cabrera mendira.

Habitatari dagokionez, lur hareatsuetara lotutako espezie bat da; izan ere, zulatzen espezializatutako espeziea da eta ura azalaren bitartez jasotzen du, landaredi mediterraneoetako habitat irekietan gertatzen den moduan. Ugalketa-garaian ur-bolumen nahiko handiko gune heze natural edo artifizialak aukeratzen ditu. Ez dakigu KBE/HBBEko ingurunea apo hau barne hartzeko egokia den.

Espeziaren KBE/HBBEko etorkizuneko perspektibak ere ezezagunak dira.

EB 1198 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziaren habitata				X
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Apo lasterkaria (*Epidalea calamita*) - 6284

Apo lasterkaria ia Iberiar penintsula osoan aurki daiteke, baina urriagoa da iparraldean.

Nonahiko espeziea da, gune irekien eta basoen zati handi bat hartzen duena. Ugalketarako habitat gisa aldi baterako urmaelak, zohikaztegiak, putzu bihurtutako errekek, belardi hezeak eta halakoak erabiltzen ditu. Jatorri antropikoko habitatetara ondoen egokitzen den espezieetako bat da, beraz Arabako hegoaldeko mendilerroetako (KBE/HBBE) habitata ona dela baloratzen da.

KBE/HBBE eremuan behin bakarrik aipatu da Toloño edo Kantabria mendilerroan, mendebaldeko sektorean; Lokizen, aldiz, oraindik ez da alerik aurkitu. Gainerako mendilerroetan laginketarik egin ez denez, egun dugun informazioarekin, espezie honen KBE/HBBEko kokapena eta populazio-mailak ezezagunak dira.

EB 6284 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziaren habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Zuhaitz-igel arrunta (*Hyla arborea*) - 1203

Zuhaitz-igel arrunta Iberiar penintsularen erdialdean, mendebaldean eta iparraldean kokatzen da, baina ez da horren ohikoa Kantauriar mendikatean.

Toloño mendilerroko Lagran I ureztapen-putzuan agertu zen 2010ean, lehenagoko laginketa eta aipamen bibliografikoetan espeziea beste eremu batzuetan agertu bazen ere. Dena den, igel hau urria da aztergai dugun eremuan.

Bestalde, hainbat ikertzailek adierazi dute Lokiz mendilerroan ez dela espero bezain

ohikoa, eta Los Franceses sakaneko (Kontrasta) putzuan bakarrik ikusi dela aipatuz.

Informazio honen arabera, KBE/HBBEan duen kokapena desegokia dela zehaztu da, eta ezin izan dira populazio-mailak ebaluatu, informazio zehatzagorik ez dagoelako eskuragarri.

Habitatari dagokionez, igel txiki honek habitat hezeak eta landaredi askokoak behar ditu; hala, egunez, ale helduek ur-masa iraunkorreko gunetatik gertu hartzen dute babes, lezkadietan, ihietan eta landa askoko gunetan. Hori dela eta, hainbat egilek adierazi dutenez, eremuan espeziearentzat egokiak izan daitezkeen gunek badaude ere, gune horiek espeziearen iraunkortasuna eragozten duten kalte garrantzitsuak barne hartzen dituzte, beraz, habitata desegokitzat jotzen da.

Habitatetako guneek jasaten dituzten kalteek beren horretan jarraitzen duten bitartean, etorkizuneko perspektibak desegokiak direla esan behar dugu.

EB 1203 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa				X
Espeziearen habitata		X		
Etorkizuneko perspektibak		X		
Ebaluazio globala		X		

Baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*) - 1209

Baso-igel jauzkaria Europa osoan barrena aurki daiteke. Populazio iberikoek osatzen dute bere kokapen-eremuaren hego-mendebaldeko muturra eta, bertan, Arabako eta Nafarroako eremuetan bakarrik agertzen dira. Bestalde, Araban, populazio ugariak Altubeko harizti pedunkulatueta eta Izki inguruko ameztietan aurki daitezke; hain zuzen ere, populazio honek dentsitate handienetakoa du Iberiar penintsulan.

Habitatari dagokionez, ia ez dugu KBE/HBBE honi buruzko informaziorik, beraz, ezezagun gisa markatu dugu.

Etorkizuneko perspektibak ere ezezagunak dira, ez baititugu ezagutzen populazio honek jasaten dituen kalteak.

EB 1209 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea		X		
Populazioa		X		
Espeziearen habitata				X
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala		X		

Gardatxoa (*Lacerta lepida*) - 2004

Mediterraneoko espezie honek ia Iberiar penintsula osoa hartzen du, iparraldeko gune hezeak eta goi-mendietakoak izan ezik. EAEn, Arabako Errioxan kokatzen da, eta iparralderantz hedatzen da, Jugalez, Baia eta Zadorra ibaietan barrena. Azterketa honi dagokionez, bere presentzia aipatzen bada ere, espeziaren kokapenari buruz dugun informazioa ez da nahikoa adierazle hau ebaluatzeko.

Leku ireki samarretan eta babesleku asko dituztenetan egoten da, esaterako, sastrakadietan eta zuhaixka gehiegirik ez duten basoetan. KBE/HBBEko eremuetako habitata espezieentzako ona dela uste da.

Ez dugu espezieak eremuetan dituen populazio-mailei buruzko informaziorik, beraz, ezinezkoa da ebaluazioa egitea.

Populazioen egoerari eta kokapenari buruzko informazio zehatzik ez dugunez, espeziearen etorkizuneko perspektibak ezezagun gisa sailkatu dira.

EB 2004 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Txaradi-sugandila (*Psammodromus algirus*) - 2430

Txaradi-sugandila Iberiar penintsula ia osoan agertzen den narrastia da, eragin atlantiko edo eurosiberiar argia duten eremuetan izan ezik.

EAEn, isurialde mediterraneora mugatzen da, alegia, honako inguru hauetara: Arabako Errioxa, Valderejo eta Izki. KBE/HBBEan presentzia duela egiaztatu da, baina ez ditugu ezagutzen ez bere kokapena ez populazio-mailak.

Habitatari dagokionez, espezie ubikista da. Alabaina, nahiago ditu zuhaixka-estaldura trinkoko eremuak, esaterako, sastraka mediterraneoak edo baso mediterraneo bakanduak.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, etorkizuneko perspektibak ere ezezagunak dira.

EB 2430 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Eskailera-sugea (*Elaphe scalaris*) - 2464

Narrasti honen penintsulako kokapena ere Mediterraneoko isurialdera mugatzen da, beraz, ez dago halakorik iparraldean.

Ez ditugu xehetasunez ezagutzen KBE/HBBEan duen kokapena eta populazio-mailak, baina espeziea Jugalez ibaiaren ibarraren inguruan ikusi izan da.

Sastrakadietako eta baso-ertzetako ingurune mediterraneoetako lur mota guztietan egoten da, baina landareak eta leku hezeak behar izaten ditu. Beraz, EAEn artadietan edo konifero-plantazioetan, sastrakadietan eta landare-formazio naturalak dituzten laborantza-eremuetan aurki daiteke. Hori ikusita, Arabako hegoaldeko mendilerroek barne hartzen dituzten Natura 2000 eremuetako habitata espeziearentzat ona dela uste da.

Espezieak eremuan dituen etorkizuneko perspektibak ezezagunak dira.

EB 2464 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Montpellierko sugea (*Malpolon monspessulanus*) - 2466

Kokapen zirkunmediterraneo du; beraz, Iberiar penintsulan Montpellierko sugea isurialde mediterraneoan bakarrik dago. EAEn, bestalde, eskailera-sugearen kokapen bera du; beraz, Arabako Errioxan eta Ebro eta Jugalez ibaien ibarretan agertzen da.

Ez dugu espezie honek eremuetan duen kokapenaren edo populazio-mailen informazio zehatzik; beraz, bi parametroak ezezagun gisa zehaztu dira.

Nahiago ditu estaldura ertain edo baxuko sastraka-guneak eta eremu irekiak; ohikoa izaten da espezie hau gizakia ibiltzen den inguruneetan aurkitzea: laborantza-lurrak, landa-eraikinak, harrizko hesiak, etab. Espezie honentzako KBE/HBBEko habitat potentziala ona da.

Etorkizuneko perspektibei dagokienez, eta aurrez aipatutakoaren arabera, bere populazio-mailak eta kokapen-eremuak ezezagunak dira, oraindik ez baitira ebaluatu eta zehaztu.

EB 2466 kod.	Ona	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Kokapen-eremua edo tartea				X
Populazioa				X
Espeziearen habitata	X			
Etorkizuneko perspektibak				X
Ebaluazio globala				X

Presioak eta mehatxuak

-. Artzaintza intentsiboa (A04.01): abeltzaintzaren presioa aipatu da Natura 2000 eremuetako anfibio-espezie interesgarriak kontserbatzeko faktore negatibo gisa; izan ere, urtaro batzuetan Toloño iparraldean kokatutako mendiko larreetan sortzen diren putzuek abeltzaintzaren presio handia jasaten dute uda garaian, abereak inguru horietan kokatutako bi askatara etortzen baitira edatera, horiek ia desagerraraziz.

-. Artzaintza-sistemak abandonatzea, artzaintzarik eza (A04.03): narrastien kasuan, aipatutako baldintzatzaile nagusia beren habitataren aldaketa eta suntsipena dira. Esaterako, artzaintza abandonatzeak eta gutxitzeak gune irekiak aldatzea ekarri du, sastraka trinkoei lekua utziz eta, ondorioz, Elementu Gakoen Multzo honetako espezieentzako habitat ona izan daitekeena galtzea ekarri.

-. Oihanpea ezabatzea (B02.03): baso-guneak laborantza-eremu bihurtzeak edo, egur-ustiapenen ondorioz, oihanpea ezabatzeak habitatak kaltetzea eta zatikatzea ekarri du.

-. Espezie exotiko inbaditzaileak (I01): kontuan izan beharreko beste faktore negatibo bat espezie exotiko inbaditzaileen presentzia da, esaterako, karramarro gorriarena eta karramarro amerikarrarena. Egoera horrek urmael eta hezegune askotako anfibio-populazioen bideragarritasuna baldintzatzen du. Horien artean, Lagran I nabarmendu behar da, anfibio-komunitate handia barne hartzen baitu.

-. Ekosistemen beste asaldura batzuk (J03): KBE/HBBEko eta, bereziki, Toloño edo Kantabria mendilerroko anfibio-populazioaren kontserbaziorako mehatxu nagusienetako bat espezie horiek ugaltzeko leku egokien urritasuna da. Hala, bai eremuen izaerak bai hezeguneetan arrazoi antropikoen ondorioz (ureztapen-putzuak, etab.) gertatutako asaldurek eragin negatiboa izan dute espezie honen kontserbazioan.

Ureztapen-putzuak habitat ona izan daitezke espezie hauen ugalketarako, baina horien egiturek eta ezaugarriek (ezponda handiak, harresi periferikoak, landarerik eza, etab.) espezie hauek espero baino gutxiago erabil ditzatela edo erabili ezin izan ditzatela eragin dute. Hala gertatu da, esaterako, La Llana (Zanbrana) eta Villaverde (Lagran) ureztapen-putzuetan.

Bestalde, putzuz betetako eremuak drainatzeak eta transformatzeak ugalketarako lekuak galtzea ekarri du.

-. Habitaten konektibitatearen murrizketa antropogenikoa (J03.02): narrastien eta anfibioen populazioarentzako beste mehatxu-faktore bat errepideetako harrapaketen ondoriozko hilkortasuna da.

Baldintzatzaileak

Baldintzatzaile positiboen artean, KBE/HBBE Montpellierko sugearen, gardatxoaren eta eskailera-sugearen Interes Berezikoko Eremu gisa definituta dagoela nabarmendu behar da. Horrez gain, Lehentasunezko Kokapen Eremua da txaradi-sugandilarentzat, baita aipatutako beste hiru espezieentzat ere.

8. KE.- Konektibitatea

Kontserbazio-egoera

EAEren esparruan oro har, eta, zehazki, Toloño-Kantabria/Arabako hegoaldeko mendilerroak KBE/HBBEan, zatiketa edo deskonexio ekologikoko prozesuak aztertzeko hainbat lan egin dira. Hala, Arabako Lurralde Historikoko korridore ekologikoen sareak Lokiz mendilerroaren iparraldeko muturraren eta Entzia BGLaren arteko sektorea barne hartzen du, baita Arburu eta Hornillo mendiak ere (mendilerroaren mendebaldean). Sare honek Entzia BGL, Toloño-Kantabria mendilerroa/Arabako hegoaldeko mendilerroak KBE/HBBE eta Izki HBBE eta BGL lotzen ditu.

Sare honetan sartzen dira, halaber, Toloñoko ekialdeko muturrean kokatutako eremua (Angostina eta Kinta mendilerroak), Jaunden mendia, Portilla eta Cabrera mendilerroak, eta San Cristóbal gailurraren inguruak (Gatzaga Buradonen hego-mendebaldean); hala, KBE/HBBEaren mendebaldeko sektorea lotzen du, batetik, Izki HBBEarekin eta BGLarekin, eta bestetik, EAEtik kanpo kokatutako beste Natura 2000 eremu batzuekin.

Bestalde, EAEko korridore ekologikoen sareak lotu beharreko eremu nagusi gisa ezartzen du Toloño-Kantabria mendilerroa/Arabako hegoaldeko mendilerroak KBE/HBBE osoa, honako eremu hauen garrantzia nabarmenduz: Hornillo, Arta, Jaunden, Pradoko sakana eta Portilla mendilerroa.

Beraz, KBE/HBBE mendi-sistema zentralek (Valderejo HBBE, Arkamo-Gibijo-Arrastaria BGL, Gasteizko Mendi Garaiak BGL eta Entzia BGL) osatutako korridore ekologikoaren eta hegoaldeko mendien (Kodes mendilerroa BGL, Nafarroa), Obaranes-Kantabria mendilerroa HBBEren (Errioxa) eta Montes de Ebro eta Ameyugo HBBEaren (Burgos) arteko lotura nagusienetakoa da.

Bestalde, KBE/HBBEak hartzen duen esparruan dauden eta lotura-interesa duten ibai-zatiak ere nabarmendu behar dira, bereziki, Jugalez, Ega eta Istora ibaietakoak.

Presioak eta mehatxuak

-. Nekazaritza indartzea (A02.01): KBE/HBBEaren eremuaren hegoaldeko zatiak aldaketa handia jasan du azken hamarkadetan, nekazaritza indartu izanaren ondorioz, eta larre-, sastraka- eta baso-eremu asko lehorreko laborantzak eta mahastiak barne hartzen dituzten nekazaritzako lur bilakatu dira.

-. Errepideak, bideak eta trenbideak (D01): KBE/HBBEan ia ez dago faunari espazio honetatik inguruko beste batzuetara mugitzea eragozten dion oztopo artifizialik; honako errepide hauek bakarrik aipatu behar dira: A-2128, Lokiz mendilerroaren mendebaldeko ertzetik igarotzen dena; A-4161, Kodes mendilerroaren iparraldeko muturrean kokatua; eta A-2124, Toloño mendilerroa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duena, Urizaharra inguruan. A-2128 bidean egoten dira basa-faunarekin lotura duten istripu gehien; hain zuzen ere, 2003 eta 2011 artean ia 25 istripu zenbatu ziren, eta, ondorioz, Lokiz mendilerroaren iparraldea harrapatze askoko zati gisa kalifikatu zen.

Zatikitze-prozesuetan garrantzia duen beste bide bat A-132 errepidea da, KBE/HBBEtik kanpo dagoena, Lokiz eta Kodes mendilerroen artean, eta HBBEaren eta BGLaren artean. Errepide honetan 213 istripu gertatu ziren 2003 eta 2011 artean. Azterketa honetan ez dira fauna igarotzeko azpiegitura espezifikokoak aipatzen, bat izan ezik: A-132 errepidean (Natura 2000ren eremuetatik kanpo) faunarentzako azpiko pasabide bat dago, baina horren funtzionalitatea ez da egiaztatu.

-. Habitaten konektibitatearen murrizketa antropogenikoa (J03.02): aurrekoaren ondorioz, espezie asko, batez ere flora-espezieak, eremuko ertz txiki batzuetara mugatu dira.

Baldintzatzaileak

Lehen ere aipatu bezala, Arabako Lurralde Historikoan eta EAE osoan eremu hauek barne hartzen dituzten korridore ekologikoen bi sare daude.

Jarraian, Toloño-Kantabria mendilerroa/Arabako hegoaldeko mendilerroak KBE/HBBE eremuak jasaten dituen presio eta mehatxu nagusiak daude laburtuta.

Erantsitako taula eremu horri dagozkion presioen balorazio orokorra egiteko matrizea da; horretarako, gaur egun eremuko elementu gakoiei eta presio bakoitzaren eragina jasaten duten inguruneko aldagaiei eragin diezaieketen mehatxuak identifikatu dira.

Kontuan hartutako ingurumen aldagai bakoitzak jasaten dituen presioak identifikatzeaz gain, presio horien balorazio orokor bat egin da, lan hau gauzatu duen talde teknikoaren irizpideei jarraituz:

Presio altua	Inguruneak eragina jasateko aukera handia dago
Presio moderatua	Inguruneak eragina jasateko aukera dago
Presio baxua	Inguruneak eraginik ez jasateko aukera handia dago

KBE/HBBEan hautemandako presioak		LURREKO KORRIDOREA	URETAKO KORRIDOREA	AIREKO KORRIDOREA			
		LOTUTAKO ELEMENTUAK					
		Basoak, larreak, ingurune andeatuak, zohikaztegiak, habitat arrokatsuak eta haitzuloak, flora mehatxatua, basoko ornogabeak, narrastiak eta anfibioak, hegazi errupikolak eta basokoak, mesogaztunak, kiropteroak, etab.	Ibai-sistemako uretako habitatak, anfibioak, ibai-karramarro autoktonoa, bisoi europarra eta beste mustelido erdiuakuatiko batzuk.			Hegazi-fauna eta kiropteroak	
		KALTETUTAKO ALDAGIAK					
Presio-mota	Presioa	Estaldura	Konektibitatea	Uraren kalitatea	Iragazkorta suna	Jarraitutasuna	
Nekazaritza	Laboreak	Altua	Altua	Altua	-	-	
	Nekazaritza jardueren aldaketa	Altua	Moderatua	-	-	-	
	Larreak moztea/sasiz garbitzea	Moderatua	Moderatua	-	-	-	
	Artzaintza	Altua	-	-	-	-	
	Bioziden, hormonon eta produktu kimikoen erabilera	Altua	Moderatua	Altua	-	-	
	Ongarrien erabilera	Altua	Moderatua	Altua	-	-	
	Partzela-kontzentrazioa	Altua	Altua	-	-	-	
Basogintza, basoko jarduera	Eremu irekiak basotzea	Altua	Altua	-	-	-	
	Basoen eta plantazioen kudeaketa	Altua	Altua	-	-	-	
	Bioziden, hormonon eta produktu kimikoen erabilera (basogintza)	Altua	Altua	-	-	-	
Meatzaritza-erazketa-jarduera, energia ekoizpena	Energia berriztagarri abiotikoen erabilera	Baxua	Baxua	-	-	Baxua	
Garraioak eta komunikazio-sareak	Errepideak, bideak eta trenbideak	Altua	Altua	Moderatua	-	-	
	Zerbitzu publikoko azpiegitura linealak	Moderatua	Moderatua	-	-	Altua	
Hirigintza, eta egoitza- eta merkataritza-garapena	Hondakinak	Moderatua	Moderatua	Moderatua	-	-	
Nekazaritza eta basozaintzatik bereizten diren baliabide	Animalia basatien ehiza eta harrapaketa	Moderatua	-	-	-	-	
	Lehorreko landareak biltzea eta kentzea	Moderatua	Moderatua	-	-	-	

KBE/HBBEan hautemandako presioak		LURREKO KORRIDOREA		URETAKO KORRIDOREA		AIREKO KORRIDOREA	
		LOTUTAKO ELEMENTUAK					
		Basoak, larreak, ingurune andeatuak, zohikaztegiak, habitat arrokatsuak eta haitzuloak, flora mehatxatua, basoko ornogabeak, narrastiak eta anfibioak, hegazti errupikolak eta basokoak, mesougaztunak, kiropteroak, etab.		Ibai-sistemako uretako habitatak, anfibioak, ibai-karramarro autoktonoa, bisoi europarra eta beste mustelido erdiuakuatiko batzuk.		Hegazti-fauna eta kiropteroak	
		KALTETUTAKO ALDAGIAK					
Presio-mota	Presioa	Estaldura	Konektibitatea	Uraren kalitatea	Iragazkortasuna	Jarraitutasuna	
biologikoen erabilera	Legez kanpoko harrapaketa	Moderatua	-	-	-	-	
Gizakiaren intrusioa eta nahasmenduak	Aire zabaleko kirolak eta aisialdiko jarduerak	Altua	Altua	-	-	-	
	Gizakiaren beste nahasmendu eta intrusio batzuk	Altua	Altua	-	-	-	
Espezie exotiko inbaditzaileak	Espezie exotiko inbaditzaileak	Altua	Altua	Altua	-	-	
Sistema naturalaren aldaketak	Suteak eta horiek itzaltzeko lanak	Altua	Altua	-	-	-	
	Egoera hidraulikoetan egindako aldaketak	-	-	Moderatua	Moderatua	-	
	Ekosistemetako beste aldaketa batzuk	Altua	Altua	-	-	Moderatua	
Prozesu natural biotikoak eta abiotikoak	Prozesu abiotiko naturalak (motelak)	Altua	Altua	-	-	-	
	Espeziearteko fauna-harremanak	Altua	Altua	Altua	-	-	
	Aldakortasun genetikoaren murrizketa	Altua	Altua	Altua	-	-	

5.1 taula.- KBE/HBBEko presioen eta mehatxuen laburpena.

6.- KONTSERBAZIORAKO ARAUAK

6.1.- ARAU OROKORRAK

1.- Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritako araubide orokorra gorabehera, behar bezala ebaluatu beharko dira tokian-tokian funtsezkotzat jotzen diren habitatak edo espezieak nahiz katalogatuta edo babes bereziko erregimenean dauden espezieak aldatzea edo ezabatzea dakarten planak, proiektuak eta jarduerak, eragin nabarmena izan dezaketelako.

2.- Eraginen ebaluaziotik ondorio negatiboak atera arren jarduketaren bat egin behar bada Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legean ezarritako salbuespen-baldintzak betetzen direlako, beharrezko neurri osagarriak hartu beharko dira Natura 2000 Sarearen koherentzia orokorra bermatzeko eta babes bereziko erregimenean dauden eta jardueraren eragina izan duten elementu guztiak kontserbazio-egoera onean daudela ziurtatzeko.

3.- Kalterik ez eragiteko neurriak hartu arren kalteak eragiten bazaizkie kontserbatu beharreko elementuei, behar bezala konpondu beharko dira, eta kostu guztiak ordaindu, Ingurumen Erantzukizunari buruzko 26/2007 Legean ezarritako baldintzetan.

4.- Kaltea kasuan kasuko elementuaren erreferentziako kontserbazio-egoeraren arabera ebaluatu ahal izateko, egin beharreko leheneratze-lanek zer arrakasta izan dezaketen aztertzeko, eta babes bereziko erregimenean dauden elementuak kontserbazio-egoera onera iristen direla edo egoera horri eusten zaiola ziurtatzeko, kasuan kasu ezarritako helburu neurgarriak aintzat hartuta, aurrez elementuen uneko edo oinarrizko egoera zehaztu beharko da, metodo kuantitatiboan bidez edo, bestela, balioespen kualitatibo fidagarrien bidez.

5.- Ondoren, aldian-aldian ebaluatu beharko da, prozedura estandarizatuen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 Sareko beste toki batzuetan lortutako emaitzekin alderatu ahal izateko eta, horrela, sare osoaren kontserbazio-egoera balioetsi ahal izateko. Prozedurok kudeaketa-tresnaren segimendu-programan txertatuko dira, eta hainbat alderdi ebaluatzeko erabili ahal izango dira (espezieak edo habitatak, talde taxonomikoak edo beste taxon-talde batzuk), betiere, geroago espezieak banan-banan baloratzeko aukera ematen badute.

6.- «Babes bereziko erregimenean dagoen habitat edo espezie» bat egoera txarrean (edo desegokian) dagoela erabakitzen bada, funtsezkoa edo kudeatzekoa den elementutzat ere hartuko da. Ondorioz, kontserbazio-neurriak, neurri espezifikokoak eta beharrezko neurriak hartu beharko dira berehala, salbu eta halako neurriak ezarrita badaude funtsezko beste elementu baterako kudeaketa-tresnan eta nahikotzat jotzen badira kasuan kasuko habitata edo espeziea kontserbazio-egoera onera iristeko. Kasu honetan, neurriak aurreko ataleko taulan zehaztuko dira.

7.- Kontserbatzekoak diren habitat eta espezieen kontserbazio-egoeran aldaketa esanguratsuak eginez gero, eremu bakoitzaren segimendu-programaren baitan egiten diren aldizkako txostenetan adierazi beharko dira. Era berean, ebaluatu egin beharko da zer ondorio dituzten aldaketa horiek EAEko Natura 2000 Sarearen kontserbazio-egoera orokorrean. Bestalde, ebaluazioaren emaitzak MAGRAMari jakinaraziko zaizkio, 42/2007 Legearen 47. eta 53.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

8.- Ega-Berron ibaia/Río Ega-Berron KBEak Arabako hegoaldeko mendilerroak/Sierras meridionales de Álava HBBE zeharkatzen duen guneeetan, aplikagarri izango dira, dokumentu honetan HBBEari buruz biltzen diren erregulazioak ez ezik, KBErako ezarritako xedeak eta erregulazioak ere bai, baita ingurune hidrikoari lotutako Natura 2000 guneeetarako arau orokorrak ere.

Aplikagarri den araudi sektoriala gorabehera (bereziki mendiei eta urei buruzko araudia), egoki irizten zaio honako arau hauek nabarmentzeari:

6.1.1.- Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerari buruzko arau orokorrak

1.- KBE/HBBEan aplikagarri izango da Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea, ekainaren 7ko 112/2011 Dekretuaren bidez onartua.

2.- Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak bateragarria izan beharko du habitat naturalen kontserbazioarekin, espezieen ugaltoki eta babesgune diren paisaiako elementuekin, eta populazioei zabaltzen eta harremanetan jartzen laguntzen dien elementu konektoreekin.

3.- Abeltzaintzako itxiturak instalatzean, bermatu egingo da fauna basatia zabaltzen eta mugitzen dela, eta ez dela hiltzen.

6.1.2.- Ehizari eta arrantzari buruzko arau orokorrak

1.- Debekatuta dago ehiza- edo arrain-faunako espezieak edota barietateak askatzea edo haiekin birpopulatzea, ekimena pribatua zein publikoa izan, baldin eta mehatxua izan badaiteke KBE/HBBEan dauden animalia eta landare basatien espezieetarako (salbu eta egun aktibo dauden barruti industrialetan eta, betiere, aleak esparrutik kanpo askatuko ez direla bermatzen bada).

2.- Fauna KBE/HBBEan halabeharrez edo legez kanpo sartuz gero, oro har, ez da ehiza- edo arrain-aprobetxamendua baimenduko eta, hala badagokio, espezieak kontrolatzeko neurri egokiak sustatuko dira, espezie horiek desagerrarazteko asmoz.

6.1.3.- Ura erabiltzeari buruzko arau orokorrak

1.- Gainazaleko eta lurpeko ur-hartune eta -aprobetxamendu berrien harira, kontserbazioaren xede diren KBE/HBBEko elementuetan izan ditzaketen ondorioak ebaluatuko dira aurrez, bakarrik edo beste aprobetxamendu batzuekin konbinatuta emari ekologikoen erregimena alda badezakete edo hezeguneei eta haien babesguneei eragin badiezaiekete. Ebaluazio horretan, besteren artean, teknikoki bideragarriak diren alternatibak aztertuko dira, eta emakida egin behar dela eta erabakitako irtenbidea ingurumen-mailan egokia dela justifikatuko da behar den moduan; orobat, ziurtatuko da ez dela afekzio nabarmenik eragingo guneeetan kontserbatzekoak diren elementuetan. Edozein kasutan ere, ziurtatuko da emarien erregimena bateragarria dela kontserbatzekoak diren habitaten edo espezieen aldeko kontserbazio-egoerari eustearrekin edo berau berrezartzearekin.

6.1.4.- Hirigintza-araubideari, hirigintzako erabilerei eta eraikuntzari buruzko arau orokorrak

1.- Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeak 45.2 artikuluan dioenez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginak (apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak) 13. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Natura 2000 Sareko tokiak babestutako naturguneak dira. Lurralde-antolamenduko tresnek eta hirigintza-plangintzak egoera hori islatuko dute, eta ziurtatuko dute toki horietan eremu horietako natura-habitaten motak eta espezieak kontserbatuko direla, dokumentu honetan finkatzen diren xedeen arabera.

6.1.5.- Azpiegiturei, ekipamenduei eta erauzketa-jarduerei buruzko arau orokorrak

1.- Saihestu egingo da KBE/HBBEaren barruan azpiegiturak (bideak, trenbideak, energia ekoitzi eta garraiatzekoak, etab.) ekipamendu handiak eraikitzea. Hortaz, aztertu egingo da KBE/HBBEaren mugetatik kanpo zer beste trazadura izan dezaketen edo zer beste tokitan koka daitezkeen.

Hala ere, ebaluazio egokia egin eta KBE/HBBEaren baimentzen diren lurpeko azpiegitura linealak (kolektoreak, ur-hodiak, gasbideak, telekomunikazio-sareak, linea elektrikoak, etab.) lehendik dauden azpiegituretan eta zortasunetan oinarrituko dira, ahal dela.

2.- KBE/HBBEan ez da gauzatuko kontserbatzekoak diren elementuak muga ditzakeen industria-proiekturik, are gutxiago flora- eta fauna-espezieetarako sentikorrenak diren guneeetan (mehatxatutako florarako banaketa mugatuko gunek, hegazti errupikolen eta basokoen habia egiteko tokiak eta ehiza-gunek) gara daitezkeenik.

3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginak (apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuak) 19.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuta, KBE/HBBE izendatu eta onartzerakoan baimendu ez diren erauzketa-jarduerak ez dira guneen kontserbazio-xedeekin bateragarritzat joko. Bateriaezinak izango dira, ingurune horietako habitat eta espezie mota gehienak oso hauskorrak edota kalteberak direlako eta menpekotasun funtzionala dutelako, eta Batasunaren intereseko elementu gehienak kontserbazio-egoera desegokian edo txarrean daudelako.

4.- Teknikoki bideragarria bada, zutoinak eta dorre elektrikoak Habitategi buruzko 92/43/CEE Zuzentarauak Batasunaren edota lehentasunezko intereseko habitat gisa sailkatutakoak ez eragiteko moduan kokatuko dira. Edonola ere, instalazio horiek talken aurkako eta elektrokuzioaren aurkako gailuak izango dituzte, hegazti-fauna ez hiltzeko.

6.1.6.- Beste erabilera eta jarduera batzuei buruzko arau orokorrak

1.- KBE/HBBEaren barruan taldeentzako jarduerak antolatu nahi izanez gero (kiroletakoak edo aisialdikoak), organo kudeatzaileari jakinarazi beharko zaio aurrez eta, jardueraren arabera, baliteke baimenak eskatu behar izatea.

6.2.- FUNTSEZKO ELEMENTUETARAKO XEDEAK ETA ERREGULAZIOAK

1. KE.- Basoak

Kontserbatzeko xedeak eta arauak	
Azken xedeetako 1.a	Basoen egoera estrukturala eta funtzionala hobetzea, eta banaketa lokaleko eremuari eta basoetako flora- eta fauna-populazioei eustea.
1.1 xede operatiboa	KBE/HBBEko basoetan estratifikazioa, dibertsitate espezifikoa, zur hilaren presentzia eta beste balio estruktural eta funtzional batzuk handitzea.
Erregulazioak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Urizaharra-Montoriako hariztiaren kontserbazio-egoera hobetzean, haritza nagusitzea bultzatuko da, pagoaren ordez. 2. Basoen kontserbazio-egoera hobetzeko, kontuan izan beharko da konifera-masetako zuhaitz kaduzifolioen unadak kontserbatzea; arreta berezia eskainiko zaie ur-lasterrekin erlacionatutakoei, landare-diaren dibertsitatea eta barne-konektibitatea hobetzeko era gisa eta, zenbaitetan, suebaki natural gisa. 3. Suebakiak jartzeko, bide-sareko ertzak erabiliko dira, edo zuhaitz heldu barne-hutsez edo bakanez osaturiko gunek. 4. Basoak eta sastrakak barne-hustuta jarritako suebakiaren eremuak ganaduaren bidez kudeatuko dira. 5. Baso garaiak eta irregularrak sortzea bultzatuko da, egungo masetan oinarrituta, eta sexu-ugalketa sustatuko da, landare-ugalketaren ordez. 6. Zuhai-xka-orken presentzia bultzatu eta mantenduko da, ahal dela, bereziki nekazaritzako laboreekin harremanetan. 7. Debekatuta dago lurrera eroritako zur hila erauztea, salbu eta organo kudeatzaileak baimena ematen duenean, eta, betiere, Batasunaren intereseko habitatak kontserbatzeko lanak arriskuan jartzen ez badira. 8. Debekatuta dago baso-espezie aloktonoak landatzea, salbu eta organo kudeatzaileak baimena ematen duenean, eta, betiere, Batasunaren intereseko habitatak kontserbatzeko lanak arriskuan jartzen ez badira. 9. Debekatuta dago KBE/HBBEan luberritzeak sortzea, salbu eta organo kudeatzaileak baimena ematen duenean, eta, betiere, Batasunaren intereseko habitatak kontserbatzeko lanak arriskuan jartzen ez badira.
1.2 xede operatiboa	9180* eta 9580* habitaten azalera estalia mantentzea edo, areago, handitzea; arreta berezia eskainiko zaie hagin-basoei, interesgarriak eta bitxiak direlako eta gutxi daudelako.

<p>Erregulazioak</p>	<p>10. Debe katuta dago mendi-hegaletako eta lur-jauzietako baso mistoaren habitata (9180*) eta hagin-baso mediterraneoen habitata (9580*) suntsitzea. Hala ere, ez da mendi-hegaletako eta lur-jauzietako baso mistoen habitat-galeratzat joko hagin-baso mediterraneoen habitat bihurtzea.</p> <p>11. Baso-aprobetxamenduetan, debe katuta dago haginak moztea, bai banaka, bai multzoan.</p> <p>12. Debe katuta dago haitzebakien oineko baso mistoei (9180* habitata) edo hagin-basoei (9580* habitata) eragin diezaieketen bidexka edo pista berriak egitea. Lehendik daudenen kasuan, iragangune bakarrak sortuko dira.</p>
<p>1.3 xede operatiboa</p>	<p>Baso-habitatetan kontserbatu nahi diren flora-espezieen populazioak eta banaketa hobetzea eta mantentzea.</p>
<p>Erregulazioak</p>	<p>13. Pagadietan aldaketarik egotea debe katuko da <i>Cardamine heptaphylla</i> eta <i>Pyrola minor</i> espezieak agertzen diren lekuetan.</p> <p>14. Hariztietan aldaketarik egotea debe katuko da <i>Dryopteris carthusiana</i> eta <i>Geum rivale</i> espezieak agertzen diren lekuetan.</p> <p>15. Debe katuta dago egurketetan eta gunearen beste baso-aprobetxamendu batzuetan <i>Sorbus latifolia</i> aleak moztea.</p>
<p>1.4 xede operatiboa</p>	<p>Baso-habitatetan kontserbatu nahi diren fauna-espezieen populazioak eta banaketa hobetzea eta mantentzea.</p>
<p>Erregulazioak</p>	<p>16. Debe katuta dago <i>Lucanus cervus</i> eta <i>Cerambyx cervus</i> espezieetako aleak harrapatzea, salbu eta xede zientifikoetarako bada eta administrazio eskudunaren berariazko baimena badago.</p> <p>17. Debe katuta dago <i>Euphydryas aurinia</i> eta <i>Callimorpha quadripunctaria</i> espezieetako aleak harrapatzea, salbu eta xede zientifikoetarako bada eta administrazio eskudunaren berariazko baimena badago.</p> <p>18. Debe katuta dago KBE/HBBEko baso-masetan produktu fitosanitarioak edota pestizidak erabiltzea, salbu eta berariazko baimen arrazoitua badago eta aurrez Natura 2000 gunearen organo kudeatzaileak txostena egin badu, KBE/HBBEan kontserbatzekoak diren objektuetan eraginik ez dutela izango esanez. Inola ere ez da baimenduko zehaztu gabeko produktu fitosanitarioak edota pestizidak erabiltzea.</p> <p>19. Debe katuta dago poliporoak dituzten zuhaitzak erauztea, betiere, zuhaitzietan hektareako 20 oin baino gehiago ez badira edo aleak zuhaitz handiz inguratuta badaude.</p> <p>20. Debe katuta dago markak egitea zuhaitz motzak ebakitzeko, baita 36 cm-tik gorako diametroa duten eta hilzorian edo zahartuta dauden zuhaitzak ebakitzeko ere.</p> <p>21. Debe katuta dago basoko faunako espezieek habia egiteko plataforma edo kofa ezin hobeak dituzten zuhaitz-aleak</p>

	<p>ebakitzea edo ipurditik moztea.</p> <p>22. KBE/HBBEaren eremu osoan, debekatuta dago, martxotik uztaileira bitartean, kontserbatu beharreko basoko faunaren populazioan eragin negatiboa izan dezakeen jarduera oro (nekazaritza, abeltzaintza, basoa, aisialdia, etab.) hazkuntza-eremuetatik edo babesguneetatik hurbil egitea. Horretarako, 100 m-ko babes-perimetroa ezarri da habien edo hazkuntza-eremuen inguruan.</p>
1.5 xede operatiboa	Baso- eta larre-aprobetxamenduen aukerak bateratzea eta hobetzea, produktibitate ekonomikoa, eskualdearen nortasuna eta inguruko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko bide gisa.

2. KE.- Larreak

Kontserbatzeko xedeak eta arauak	
Azken xedeetako 2.a	Batasunaren intereseko larreak (bereziki lehentasunezkoak) kontserbatzea, baita haiekin erlazionatutako intereseko flora- eta fauna-espezieen banaketa-eremua eta populazioak ere.
2.1 xede operatiboa	6210*, 6220* eta 6230* habitatak kontserbazio-egoera onean mantentzea eta bere ezagutza hobetzea.
Erregulazioak	<p>23. Larreen kudeaketan, debekatuta dago halako habitaten berezko egitura eta flora-osaera alda dezaketen jarduerak gauzatzea, besteak beste, medeatzeak, harrotzeak, ongarritzeak eta landaketak.</p> <p>24. Abeltzaintza estentsibo tradizionala sustatuko da; kontuan izango dira ganadu-karga eta haren urtaroko banaketa.</p> <p>25. Orkideen ugalketa-garaian (apiriletik ekainera), bazkatzeko eremu libre batzuk mugatuko dira 6210* lehentasunezko habitataren esparruan.</p> <p>26. Suteak edo herbizidak erabili ordez, sastraken kentzeak sustatuko dira sastraka gehien dauden bazkalekuetako kontrol-neurri gisa. Jarduera horiek, ahal dela, udazkenean egin beharko dira, eta beti malda txikiko eremuetan (%25-30).</p> <p>27. Debekatuta dago eremuan ezer isurtzea eta materialak edo ibilgailuak biltzea, berriaz horretarako prestatutako tokietan izan ezik; inoiz ez, ordea, kontserbatzekoak diren habitatatetan.</p>
2.2 xede operatiboa	Intereseko flora-espezieen banaketa-eremua mantentzen dela ziurtatzea, eta bertako populazioak eta haien ezagutza handitzea.
2.3 xede operatiboa	Kontserbazio-interes handiena duten eremu irekietako harraparien populazioen banaketa eta bilakaera ezagutzea eta mantentzea.

3. KE.- Zohikaztegiak

Kontserbatzeko xedeak eta arauak	
Azken xedeetako 3.a	Higro-zohikatzen multzoen kontserbazio-egoera orokorra mantentzea, baita haiekin erlazionatutako floraren populazioena ere.
3.1 xede operatiboa	Higro-zohikatzeko habitatek eta larre-ihidi mediterraneoeok osatutako mosaikoen kontserbazio-egoera onari eustea.
Erregulazioak	28. <i>Berula erecta</i> eta <i>Senecio carpetanus</i> espezieen berreskuratze-planak prestatuko dira. 29. 7210* eta 7230 habitatak kudeatzerakoan, <i>Berula erecta</i> eta <i>Senecio carpetanus</i> espezieak berreskuratze-planetako gomendioak integratuko dira. 30. Ihitza larre mediterraneoetan (6420 habitata) zuhaixkak (nagusiki elorri zuriak) eta zuhaitz sakabanatuak indartuko dira.
3.2 xede operatiboa	Zohikatzeko inguruneetako flora-espezie guztien banaketa-eremua mantentzen dela ziurtatzea, eta bertako populazioak eta haien ezagutza handitzea.

4. KE.- Ingurune andeatuak

Kontserbaziorako xedeak eta arauak	
Azken xedeetako 4.a	<i>Teucrium botrys</i> eta <i>Peucedanum officinale</i> espezieen populazioen tokiko banaketa mantentzea eta, ahal dela, haien egungo banaketa hobetzea.
4.1 xede operatiboa	Ingurune andeatuetako habitaten ezaugarriak, populazioen mailak eta bertako espezieen banaketa mantentzea.

5. KE.- Ibaiak eta ingurune erriparioak

Kontserbaziorako xedeak eta arauak	
Azken xedeetako 5.a	Habitat erriparioen eta haiekin erlazionatutako fauna-espezieak hobetzea eta kontserbatzea, baita iturburu petrifikanteetako ohiko habitataren ezaugarriak eta dinamika mantentzea (erregimen hidrológico eta uraren ezaugarri fisiko eta kimikoak).
5.1 xede operatiboa	Ibaiertzetako basoen egitura eta osaera hobetzea.
